

Txosten berezia Parlamentuari:

HAURRENTZAKO IDENTITATE BAT

Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako
hezkuntza Nafarroan



Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa

TXOSTEN BEREZIA PARLAMENTUARI:

HAURRENTZAKO IDENTITATE BAT

**(0tik 3 URTERA BITARTEKO HAURRENTZAKO HEZKUNTZA
NAFARROAN)**



**Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa**



Izenburua: Txosten berezia: **Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntza Nafarroan**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa

© 2005eko apirila

Diseinua-maketazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege-gordailua:

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. 0 eta 3 URTE BITARTEKO ALDIA KONSTITUZIOAREN AURREKO ARAUDIAN.	13
3. KONSTITUZIOA ETA ARAUDIAREN ONDOKO GARAPENA; LOGSE ETA LOCE LEGE ORGANIKOEN INGURUKO AIPAMEN BEREZIA	19
4. 0 ETA 3 URTE ARTEKO HAURREN BEHARRAK ETA HEZKUNTZA EREDUAK	35
5. GIZARTEA ETA 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAURREN HEZKUNTZA BEHARRAK:	67
• NAFARROAKO ARARTEKOAREN AURREAN PLANTEATUTAKO KEXEN ETA GALDEREN ANALISIA	69
• GURASOEN ITXAROPENAK ETA ESKAERAK 0 ETA 3 URTE ARTEKO HEZKUNTZA DELA-ETA	94
• 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HEZKUNTZARAKO BALIABIDEAK ETA BALIABIDE HORIEN EZAUGARRIAK (FORU GOBERNUAK EMANDAKO INFORMAZIOA)	98
6. 0 ETA 3 URTE BITARTEKO ZIKLOA HEZITZAILEA IZATEAREN EGOKITASUNA	109
7. ONDORIOAK	115

1. SARRERA



Nafarroako Parlamentuan nagusi diren bi alderdi politikoek hainbat printzipio hitzartu zuten eskoletan toki berriak sortu eta familiek 0 eta 3 urte bitarteko haurren arretaren alorrean zituzten eskariei erantzuteko. Hiru urtean baino gutxiagoan, ordea, printzipio horiek gizartearen dinamikak berak gainditu dituela dirudi, sortutako tokiak baino toki gehiago izateko premia azaleratu eta hitzarmenok aurreikusitako plangintza bere horretan gelditu baita.

Testuinguru horri "tentsio sozial" kontzeptua aplikatzearen arrazoia da ditugun baliabideen eta familiek beharrezkotzat dituzten baliabideen artean dagoen aldea; hau da, tokien eta eskolatzearen, beharraren eta ahalmenaren inguruko datuek herritarren poztasun maila eskasa berretsi dute azken urteetan. Hartara, akordio horren garrantziak balioa galdu du azken bi urteetan, plangintza bere horretan gelditu dela-eta. Nolanahi ere, ontzat eman beharrekoa da baliabide berriak sortu eta finantzazio partekatuko sistemari buruzko akordio horren planteamendua; oro har, zuzenketa batzuk egin badi-tuzte ere, egokitzen jo dute alor honetan dauden beharrak arretaz aztertu dituztenek.

Gogoeta egin liteke herritarrei arreta hobe ematearen inguruko akordioaren garrantziak berak ez ote zuen bere baitan hainbat gorabehera eta muga; hain zuzen ere, gorabehera eta muga horiek azaleratzen ari dira orain indartsuen. Gero eta zabalduago dago honako ideia hau, alegia, hasiera bateko plangintza hori zentzuzko motibazio politikoz beteta sortu zela, baina motibazio horiek plangintza aplikatzea hain "premiatzkoa" ere ez zela ikustea galarazi zutela. "Zerbitzu" honen inguruko beharren bilakaeraren ikuspuntutik, epe luzeagorako ikuspegia izatea galarazi zuten, eta tokiko administrazioek esku hartze handiagoa izatea. Izan ere, akordio horrek zuzeneko eragina du eta izango du tokiko administrazioetan, hainbat muga izan arren, inplizituki hartzen dutelako parte akordio horretan, zuzeneko arduradunak diren heinean; ez dugu esan nahi akordioa abian jartzeko ardura dutenik.

Foru Administrazioak halako zuhurtzia eduki izanak, 0 eta 3 urte bitartekoen hezkuntzaren alorreko ardura bere gain hartzeko, udalek herritarrekiko erantzukizun handiagoa izatea ekarri du.

Egoera hori ez da batere bidezkoa, hezkuntza zerbitzu horretan parte hartu eta konpromiso horiei erantzuteak ahalegin ekonomiko handia egin dezaten eskatzen duenez gero edo, gutxienez, beste administrazioen mendean izatea; kasu honetan, Foru Administrazioaren mendean daude udalak. Horrenbestez, mendekotasun ekonomiko edo, egoera ikusirik, mendekotasun ekonomiko eta politikoa dute. Herritarrak sistema finantzatzen laguntzeko prest daude, ordea, eta ez dute prozesu horren buru zer administraziook izan behar duen jakiteko premiarik edo finantzazioari zein administraziook egin behar dion aurre jakiteko premiarik; eskaintza nahikoa izan dadila besterik ez dute eskatzen, kanti-tatearen aldetik baino ez bada ere.

2001eko akordioaren balizko ikuspegi mugatu horrek berak eragin du ez ematea behar adinako garrantzia gauzatu beharko litzatekeen sistemaren funtsari, alegia, hezkuntzari.

Hainbat hutsune nabarmendu zen, eta horren helburua etorkizunean "tentsio soziala" eta familien eskaeren premiazkotasun logikoa baino harago dagoen zenbait alderdi argi eta garbi antzemateko aukera izatea besterik ez zen izan. Hala eta guztiz ere, akordio hori 0 eta 3 urte bitarteko haurren heziketaren beharrei erantzuteko sistema baten abiapuntua izan zen.

Txosten berezi honek Espainiako gobernuek hezkuntzaren eta esku-bide hori aplikatzearen inguruan egin dituzten ekarrien laburpen historiko trinkoa egin du, eta laburpen hori bera da gai honen garrantziaren adierazgarri. Aldaketek nabarmentzen dituzten adostasunak eta desadostasunak ikusirik, argia dirudi beharrezkoa dela aipatu Parlamentuko akordioaren oinarri mugatuari eutsi zion eredu gainditzea foru araudi berriak, halakorik dagoenean; sortuko diren zerbitzuen baliagarritasuna eta sortzean zituen edo izango dituen hezkuntza helburuak bateratuagoak izateko alderdiak hartu beharko ditu aintzat horretarako.

Konplexua eta, aldi berean, garrantzitsua da Espainiako "arauen historia" gertatu berrienaren segida, eta garrantzia nabarmena eman dio haurren hezkuntzaren oinarri juridikoari. Izan ere, behar materiala alde batera utzita, eskariak eta hezkuntza baldintzatzailek oinarrikoenek bat egitea da eskakizuna, beharrezkoa eta iragarritakoa

denez, sektorea arautuko duen epe laburrerako edo ertainerako edozein ekimenek etorkizun osoagoa har dezan kontuan; hau da, norbanakoak haurtzaroan duen bilakaera hartu beharko luke kontuan, baita norbanakoaren, haurren eta familien esku jarritako baliabide profesional eta ekonomikoen etekin handiagoa ere, eta alderdi bakoitzari duen garrantzia eman.

XXI. mendean izanik, hurrek nortasun propioa izateko helburua bakarrik izan liteke haur hezkuntzako araudiaren ardatza. Helburu horren ezaugarriak ikusirik, alde batera utzi beharko lirateke beste bide batzuk, ez direlako eragingarriak, administrazioek eta familiek ahalegin handiagoa egitea dakartelako eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrak "biltzeko guneak" ugaritzeko baino ez luketelako balioko; gainera, datuek erakutsi dutenez, ez lukete osatuko Foru Administrazioak behar bezainbat koordinatutako eskari kualitatibo nahikoa, ezta, seguru asko, kuantitaboa ere.

Haur hezkuntza antolatzeak administrazioek ahalegin politikoa egin dezaten eskatzen du, hezkuntzaren helburuak administrazio publikoen ardurapeko interes orokorren esparruan txertatzearen. 0 eta 3 urte bitartean borondatezkoa bada ere oraindik, hezkuntzarako esku-bideak izan beharko luke nagusi, beste edozein iritzi ekonomiko edo egoeraren arabera gainean.

0 eta 3 urte bitarteko haur hezkuntzaren eredia definitzeak ahalegina eskatuko du, eredia aurretiaz dugun errealitatean txertatzeko. Ezbairik gabe, arreta hobetzea oro har, aurretiaz ditugun ikastetxeak egokitzea eta ikastetxe berriak sortzea izan behar ditu helburu; Hezkuntza Administrazioak etengabe ikuskatuta betiere, ikastetxe berri horiek haurraren eskubideen gaineko oinarrizko printzipioaren arabera sortu behar dira, gizakia eta hezkuntzarako eskubidea duen norbanakoa den heinean.

2001eko akordioak Foru Komunitatean 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeak ezartzeko abiapuntua izan ziren, eta garatzen ari zen eredia antolatuz justifikatu eta gauzatu ziren.

Eredu horrekin bat, haurren arretak zuzenbidearen arabera araberakoagoa izan behar du, orekatuagoa alderdi ekonomikoei dagokienez, gurasoei

lana eta familia bateratzeko behar duten babes adierazteko gai, eta sistemaren kalitatearen eskakizunaren ardura euren esku utziko duen esparru batean egon behar du.

0 eta 3 urte bitarteko haurren hezkuntza izugarri aldatu da azken bi hamarkadetan, gizartearen iritziari eta araudiaren bilakaerari dagokienez, eta nabarmen egin du aurrera hezkuntzarako eskubidearen inguruko sistema taxutzen; haurren eskubide orokorrak dira sistema horretan jarduteko funtsezko oinarria.

Lortutako aurrerapenak laster berretsiko ditugu seguru asko, eta lorpen horiek araudiaren autonomiaren ildoan bideratu behar dute esku-mena duten gobernuen jarduera, funtsezko doktrina finkatuta dagoenez gero jadanik. Gizarteak lortzen dituen aurrerapenetatik abiatutako plangintza egitea ez da erraza, baina erronka pozgarria da araudia egiteko ardura duenarentzat.

Gehiegitan transmititu izan da emakumea lan merkatuan sartu izana dela seme-alaben heziketaren inguruko hainbat arazoren arrazoia, prestakuntza eta familiarteko betebeharren banaketa eskasa direla-eta. Litekeena da datu zientifikoetan oinarritzea baieztapen hori, baina horrek ez du esan nahi atzerakoia ez denik, hainbat egoeraren sorburutzat erabiltzen denean, hala nola, familiarteko bizitzaren kalitate handiagoa –ez du diru sarrerak emendatzea izan beharrik– eta seme-alaben heziketa hobea lortu nahi denean, 0 eta 3 urte bitarteko haurren hezkuntzaren inguruan gertatzen denez.

XXI. mendeko familiarteko bizitza aisialdi handiagoaren beharrak eragiten duen presioaren mendean dagoela ahantzi ezean, garrantzizkoa da lanaldi bikoitza izatea, bi ezkontideen artean banatuta betiere, norbera pertsonalki hobetu eta lan merkatuak alde horretatik dituen defizitei aurre egitearren; izan ere, lan merkatua ezegonkorra, aldakorra eta globalizatua da, eta lehen baino gutxiago erantzuten die behar ekonomikoei, eta apenas lan arloko helburuei.

Era berean, herritarrek euren eskubide teoriko guztiak erabiltzeko duten irrika ere da eragilea, gizartearen hobekuntzak –eskubideak barne– eta erabiltzean gizartearen hobekuntzak dakartzaten eskubideak garatzearen aldeko gizartearen apustua.

Ikuspegi horretatik interpretatu behar da Nafarroan 0 eta 3 urte bitarteko haurren hezkuntzaren inguruan gaur egun dauden alderdiak plazaratu izana.

Gizartearen oihartzunak eta kexek tokirik eza nabarmendu duten arren, aldi berean, hurrek duten hezkuntza beharraren inguruko eskakizuna azaleratu da; ziklo horretako langileen lan baldintzen duintasunaren ingurukoa –eskandalu iturri izan dira beste komunitate batzuetan–; guztiok haur eskola publiko eta doakoa izateko esku-bidearen ingurukoa; aniztasunean oinarritutako hezkuntza eta gizarte eredia garatzearen ingurukoa; ikastetxeak euskara arloko errealitatearen arabera egokitzearen ingurukoa; instalazio berri ororen helburua kalitatea izatearen ingurukoa; modulu/haur ratio ekonomikoak hobetzearen ingurukoa; ikastetxe pribatuak mantentzeko baimenaren eta arduraren gainean behar bezainbateko zorrozatasuna izatearen ingurukoa; familiei gero eta gehiago eskatzen zaien eta eska dakiekeen parte hartze demokratikoaren ingurukoa, euren eskubidea eta betebeharra den heinean; tokiko erakundeek haur eskolak abiarazi, finantzatu eta mantentzen duten parte hartzea ikuskatzearen ingurukoa; familien ekarpen ekonomikoaren gaineko sistema bidezkoago bat bilatzearen ingurukoa, familiak errentaren arabera baztertuko ez dituen; eta, azkenik, Foru Administrazioak bultzatuta, Espainiako tradizio arautzaileak haurren eskubideen eta haurrak hezkuntza prozesuan berdintasunez barneratzearen alde egin duen lana suspertzearen garrantziaren ingurukoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa

María Jesús Aranda Lasheras

2. 0 ETA 3 URTE
BITARTEKO ALDIA
KONSTITUZIOAREN
AURREKO
ARAUDIAN



Legegilearen borondatearen adierazgarri izateaz gain, arlo bat arautzea prozesu historiko-arautzaile jakin baten emaitza da. Horrexegatik, egungo araudiaren aurrekariak aztertzeak ikuspegi osoagoa eta zabalagoa izatea ahalbidetzen digu, edukiari, hedadurari eta garrantziari dagokienez.

1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren aurreko araudia gizarte testuinguru jakin baten arabera da; alegia, *"2 eta 3 urteko haurrek ez dute guztiz ezinbesteko hartzaindegia, familia arrunt baten baitan bizi badira. Izan ere, ama da haurraren heziketaren eragile nagusia adin horretan –bakarra ez bada ere–. Amak edo amaren ordezkoez ezin badute haurraz arduratu, ordea, guztiz ezinbestekoa da hartzaindegia"* (1973ko uztailaren 27ko Ministro Agindua).

Aurreko testuak ondorioztatzen duenez, emakumezkoa pixkana-pixkana lan munduan sartzeak eta orduan nagusi zen familiaren ikuspegiak ekarri zuten, hein handi batean, nahitaezko oinarrizko hezkuntzaren aurreko aldia arautzearen helburu espezifikoa ama langileen seme-alabak laguntzea izatea antolamendu horren arabera, nahitaezko eskolatzaren aurreko aldiko hezkuntza beharrei erantzutea izan beharrean.

Hortaz, berezkotasunik izan ezean taxutu zuten nahitaezko oinarrizko hezkuntzaren aurreko aldi hau, 2 eta 6 urte artekoa, legediari dagokionez. Ondoko hezkuntza zikloa prestatzeko aldia zen, *"amaren lan baldintzatua dela-eta, 6 urtetik beherako haurrak buru argiz artatu eta zaintzea"* beharrezkoa zen egoerei erantzuteko bideratua, 1945eko Lehen Hezkuntzaren Legeak hitzez hitz zioenez. Jarraian jorratuko dugu lege hori.

Hartara, Konstituzioaren aurreko araudiak "0 eta 3 urte bitarteko aldia" zeritzan aldiaren ezaugarriak nabarmentzen ahaleginduko gara, ondoko arauak labur-labur azalduz:

1945EKO UZTAILAREN 17KO LEHEN HEZKUNTZAREN LEGEA

Lege horren 18. artikulua zioenez, baten eskolako mailakatzaren hasialdi bat, bi adin tartetan banatutakoa: 2 eta 4 urte artekoan, eta 4 eta 6 urte artekoan. Bi adin tarte horietako haurrek "eskolaurreko erakundeetara" joateko aukera zuten eta, ikasleen adinaren arabera, erakunde horiek "ama eskolak" –2 eta 4 urte bitarteko haurrentzat– eta "hur eskolak" –4 eta 6 urte bitartekoentzat– izena zuten.

Botere publikoek ez zuten zertan ama eta haur eskolak ezarri. Euren helburu nagusia ama langileen haurrak laguntzea zenez gero, emakumezkoak alokatzen zituzten industria eta nekazaritza zentroek zuten behar hori.

Alde horretatik, Legearen 18. artikulua onartu zuen *"tokian tokiko aukerek eta aukera ekonomikoek"* mugatuko zutela kasuan-kasuan botere publikoek esku hartzeko esparrua. Hurrengo artikulua xedatu zuenez, *"ama eta haur eskolak matrikula nahikoa ahalbidetzen duten biztanleriaguneetan sortu behar dira". Nolanahi ere, lehen aipatu dugunez, "mota honetako behar adina eskola sortzea nahitaezkoa da, amaren lan baldintzatua dela-eta, 6 urtetik beherako haurrak buru argiz artatu eta zaintzea beharrezkoa den industria eta nekazaritza zentroetan".*

Legeak ez zuen aparteko arretarik jarri zaintza eta arreta lan horiek egiteko beharrezko tituluan. Ikastetxe horietako jarduera ama langileak egingo lukeenaren ordezkoa izanik, *"irakasleak emakumezkoak bakarrik"* izan zitezkeela baino ez zuen zehaztu (19.1. artikulua).

Era berean, Legeak eta hura garatzeko araudiak ez zituzten xedatu zaintza eta arreta ikastetxe horiek bete beharreko baldintzak, ezta enpresek sortutako guneek bete beharreko gutxieneko baldintzak ere. Horri buruzko xedapen bakarrak, aurrez azaldukoaren ildoan, *"(ama eta haur eskoletako) instalazioak, diziplinak eta moldaerak etxeko giroa islatu"* behar zutela nabarmendu zuen (19.1. artikulua).

14/1970 HEZKUNTZAREN LEGE OROKORRA, ABUZTUAREN 4KOA, HEZKUNTZAREN ERREFORMA FINANTZATZEARI BURUZKOA.

14/1970 Legeak planteamendu handinahia zuen, hezkuntza sistemaren erreforma osoa egin nahi izan baitzuen.

Lehen aldiz, antolamenduak hainbat mailatan barrena gertatzen den osotasun bateratutzat hartu zuen hezkuntza prozesua; maila bakoitzak bere nortasun propioa zuen, eta erabateko lotura zegoen euren artean.

Funtsezko printzipio horiek Legearen artikuluetan bertan islatu ziren. Izan ere, 9. artikulua zioenez, xedapen orokorrei buruzkoak, *"hezkuntza sistemak hezkuntza prozesuaren batasuna bermatzen du (...). Mailen arteko harremanari erantzun behar dio (...). Maila bakoitzeko edukiak eta hezkuntza metodoek ikasleen bilakaera*

psiko-biologikoaren arabekoak izan behar dute". Lehen aldiz, eskolaurrea maila horietako bat zen, hain zuzen ere, lehenengoa.

13. artikulua hezkuntzako lehen maila horren edukia garatu zuen, eta aldaketa handiak egin zituen aurreko araudiaren aldean, aldiaren legezko taxutzearen aldaketa kualitatiboa ekarri zutenak:

- Eskolaurreko hezkuntza haurraren nortasunaren bilakaera harmonikoa helburu zuen hezkuntzako aldia zen.
- Eskolaurreko hezkuntza borondatezkoa zen.
- Doakoa izan behar zuen Estatuaren ikastetxeetan, eta litekeena zen doakoa izatea, Estatuarenak izan ezean, ituna eskatzen zuten ikastetxeetan.
- Eskolaurreko hezkuntza 2 eta 5 urte bitartekoa zen, eta bi alditan banatuta zegoen: batetik, haurtzaindegian egin beharrekoan -2 eta 3 urteko haurrentzat- eta, bestetik, haur eskolan egin beharrekoan -4 eta 5 urteko haurrentzat-.
- Legearen planteamendu berritzaile eta aurrerakoi horrek, ordea, porrot egin zuen praktikan, testuko iragarpenak ez zirelako arauen bidez garatu.

Artikuluetan barrena, Legeak etengabeko aipamenak egin zituen ondoko garapenaren inguruan, taxutzen ari ziren erregimen juridiko berriaren funtsezko alderdiei buruzkoak. Garapen hori, ordea, ez zen nahikoa izan eta, batzuetan, kontraesana ere zegoen garapenaren eta Legearen espirituaren artean.

Legearen arabera, aldi honen beharraren oinarria haurraren nortasunaren garapen harmonikoa den arren, 1973ko uztailaren 27ko Ministro Agindua -txostenaren hasieran aipatu dugu-, Legea garatu eta eskolaurreko ikastetxeen oinarritzko orientazio pedagogikoa zehazteari buruzkoak, honako hau xedatu zuen:

"2 eta 3 urteko haurrek ez dute guztiz ezinbesteko haurtzaindegia, familia arunt baten baitan bizi badira. Izan ere, ama da haurraren heziketaren eragile nagusia adin horretan -bakarra ez bada ere-. Amak edo amaren ordezkoez ezin

badute haurraz arduratu, ordea, guztiz ezinbestekoa da haurtzaindegia (...). 4 urtetik aurrera hain nabarmena da harreman sozialak izateko joera, haurraren bilakaera sistematikoa eta mailakatuaren beharrak justifikatzen du eskolaurreko ikastetxea".

Gainera, aldez aurretik nabarmendu dugunez, "garatuko zuten xedapenek" osatu beharreko araudia aipatu zuen Legeak hainbat gairi dagokienez, hala nola, ikastetxeetako irakaskuntza erregimenari, gobernu eta administrazio sailen osaerari eta eskumenei (60.3. artikulua), eta irakasleen baldintzei (107. artikulua) dagokionez. Nolanahi ere, irakasleak direla-eta, unibertsitateko diplomadunak izan behar zuten gutxienez (102. artikulua).

Aurreko araudiak agindu zuenez, emakumezkoa alokatzen zuten erakundeak eta enpresak langileen seme-alabentzako eskolaurreko ikastetxeak sortzen eta mantentzen laguntzera behartuta zeuden (98. artikulua). Hala eta guztiz ere, aurretiko baimena behar zen Estatuarenak ez ziren ikastetxeak ireki eta abiatzeko (94. artikulua), eskatzekoak ziren baldintzak betetzearen arabera eman edo baliogabetu zitekeena.

Azkenik, nabarmentzekoa da orain arte egin dugun arauen azterketan inola ere ez ditugula aipatu 2 urtetik beherako haurren heziketa beharrak.

Izan ere, aurrerakoiagoa izan arren, eta hezkuntza sistemaren erreforma osoari ikasleak adin bakoitzean dituen berezitasun psiko-pedagogikoen ikuspegitik heldu nahi zion arren, adierazgarria da 14/1970 Legeak ere 2 urtetik beherakoei buruzko inongo aipamenik egin ez izana.

3. KONSTITUZIOA ETA ARAUDIAREN ONDOKO GARAPENA



1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioak arlo honen funtsezko alderdiak nabarmendu zituen, egitura juridiko-politiko berria taxutu eta, atal dogmatikoari dagokionez, herritarren oinarrizko eskubide eta askatasun publiko guztiak arautzeko funtsezko araua den heinean.

I. Tituluaren II. Kapituluaren 1. Atalaren barnean, hain zuzen ere, *"Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak"* izenekoaren barruan, Konstituzioko 27. artikulua hezkuntzarako eskubidea arautu zuen. Agindu horrek *"guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntza askatasuna aitortzen da"* adierazi ondoren, honako hau zehaztu zuen: *"Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz"*.

27. artikuluko 5. atalaren bitartez, botere publikoen esku utzi zuen gizabanako guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzea, ikastetxeak sortuz, eta hezkuntzari buruzko programazio orokorra eginez. Nolanahi ere, ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortu zien hurrengo atalean pertsona fisikoei eta juridikoei, Konstituzioko printzipioei dagokien begirunearen barruan. Gainera, oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa izatea bermatu zuen Konstituzioak.

Litekeena da Konstituzioko araua zehaztea, 27. artikuluan, 9.2. artikuluko klausulan eta 14. artikuluan xedatutakoa erlazionatuz; izan ere, I. Tituluaren II. Kapitulan aitortutako eskubide guztietan zuen eragina 14. artikulua, eta horiek interpretatzeko erreferentziatzko puntua zen. Hartara, Konstituzioak botere publikoen esku utzi zuen beharrezko inguruabarrak sustatzea, pertsona guztiei hezkuntzarako benetako eskubide eragingarria bermatzearen berdintasun egoeran, eta oztopoak kentzea, eskubide hori osotasunean egikaritzea eragotzi edo zailtzen bazuten.

Hezkuntzarako eskubidea Espainiako Konstituzioko 27. artikuluan (I. Titulua, II. Kapitula, 1. Atala) aztertzeak, batez ere, 53. artikulua xedatu zuen babes oso eta indartua egotzi zion eskubideari. Funtsezko edukiaren garapena, berriz, Lege Organikoaren maila zuen arau baten mendean zegoen (Espainiako Konstituzioko 81. artikulua).

Bestalde, Konstituzioak Estatuaren eta autonomia komunitateen arteko eskumena lurraldekako banaketa zehaztu zuen, eta 149.1.30. artikulua xedatu zuen Estatuaren eskumena zela *"titulu akademikoak eta lanbide heziketako tituluak eskuratu, aterabidea eman eta homologatzeko"*

baldintzak arautu eta Konstituzioko 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko". Halaber, agindu honen 1. ataleko 1. puntuak Estatuari egotzi zion espainiar guztien berdintasuna bermatzen zuten oinarriko baldintzak arautzea, Konstituzioko eskubideak egikaritu eta Konstituzioko eginbeharrak betetzen; hau da, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzea, hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukia dela-eta.

Azkenik, ezin dugu Konstituzioaren aipamena alde batera utzi honako hau adierazi gabe, alegia, gizarte eta ekonomia politika zuzentzen duten Espainiako Konstituzioko I. Tituluko III. Kapituluko printzipioei dagokienez, 39. artikulua botere publikoen esku utzi zuela familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzea; aginduaren azken atalak honako hau nabarmendu zuen: *"Hurrek nazioarteko itunetan ezarritako babesaren izango dute, itunok euren eskubideak zaintzen dituzten neurrian"*.

Geroago ahaleginduko gara Konstituzioko araudi honetan eta bere hedaduran eta 0 eta 3 urte bitarteko aldiaren izaera hezitzailearen oinarrian sakontzen, ziklo horren heziketa alderdiaren egokitasuna aztertzen dugunean, txosten berezi honetan dagokion atalean.

KONSTITUZIOA GARATZEKO ARAUDIA. LOGSE ETA LOCE LEGE ORGANIKOEN INGURUKO AIPAMEN BEREZIA

Ekainaren 19ko 5/1980 Lege Organikoa, ikastetxeei buruzkoa, denbora laburrez egon zen indarrean. Lehenik, Konstituzio Auzitegiaren aurrean haren aurka egin zuten behin-behinean, eta hezkuntzarako eskubidea arautu zuen 1985eko Lege Organikoa indargabetu zuen ondoren. Arrazoien Azalpenean argitu zutenenez, 1985eko Lege Organikoa *"5/1980 Lege Organikoa arautze partziala eta leialtasun eskasekoa Konstituzioaren espirituaren aldera"* ordezkatzea zuen helburu eta, hain zuzen ere, 1985eko uztailaren 3an aldarrikatu zuten hezkuntzarako eskubidea arautu zuen Lege Organikoa (LODE).

8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, hezkuntzarako eskubidea arautu zuena (LODE)

1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrek oinarrizko hezkuntzak nahitaezkoa eta doakoa izan behar zuela xedatu zuen, eta zerbitzu publikotzat hartu; hortaz, Estatuaren gain utzi zuen hornitzearen erantzukizuna, batik bat. Hala eta guztiz ere, hezkuntza apur batzuen pribilegioa izan zen praktikan denbora luzez, guztien eskubidea baino gehiago.

Konstituzioak guztien hezkuntzarako eskubidea aitortu eta bermatu ondoren, LODEk funtsezko edukiaren garapenari heltzea zuen helburu.

Lehenik eta behin, LODEk hezkuntzaren helburu nagusiak definitu zituen, baita eskola komunitatea osatzen duten guztien eskubideak eta askatasunak ere. Jarraian, ikastetxeak sailkatu zituen, titulartasun juridikoaren, mantentzea bermatzen duten baliabideen eta baliabide horien jatorriaren arabera.

Legearen hitzaurreak berak justifikatu zuenez, helburua zen *“urte luzez behar adina arreta eman ez zaion irakaskuntza publikoari duintasuna ematea, aukera berdintasuna sustatuz”*. Hortaz, xedatu zuen Estatuari eta autonomia komunitateei zegokiela hezkuntza beharrei erantzun eta toki eskaintza egokia egitea eskoletan, irakaskuntzaren programazio orokorra eginez norberari zegozkion eskumenen esparruan.

LODEk arreta berezia eman zion hezkuntzarako eskubidea eta ikastetxea aukeratzea aldi berean bermatu beharri. Izan ere, *“delako askatasuna ez da zinez existitzen, ez bada guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzen”* nabarmendu zuen hitzaurreak.

LODEko 11. artikulua xedatu zuenez –2002 Lege Organikoak, hezkuntzaren kalitateari buruzkoak, indargabetu zuen gero–, *“delako ikastetxeak Eskolaurreko Hezkuntzakoak, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrekoak, Batxilergokoak eta Lanbide Heziketakoak izan daitezke, ematen duten irakaskuntzaren arabera”*. LODE indarrean dago gaur egun, eta 14. artikulua du ardura ikastetxe orok, bere ezaugarriak direla–eta, bete beharreko gutxieneko baldintzak bermatzeko; honako hau agindu zuen:

“Ikastetxe guztiek gutxieneko baldintzak bete behar dituzte, irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko. Gobernuak arautu behar ditu gutxieneko baldintza horiek. Gutxieneko baldintzek irakasleen titulu akademikoen, ikasleen eta irakasleen arteko proportzioaren, irakaskuntza eta kirol instalazioen eta eskoletako toki kopuruaren gaineak izan behar dute”.

Horrenbestez, aipatutako azken bi aginduetako araudiarekin bat (LODEko 11. eta 14. artikuluekin bat), hezkuntzarako eskubidea arautu zuen Lege Organikoak eskolaurreko ikastetxeek gutxienerako hainbat baldintza betetzeko eskatu zuen, bertan ematen zen irakaskuntzaren kalitatea bermatzearren. Legeak berak zehaztu zuen zein alderdiren ingurukoak izan behar zuten baldintza horiek.

LODEko 14. artikulua xedatu zituen gutxienerako baldintza horiek ikastetxe pribatuei ere eska zekizkiekeen. Izan ere, LODEko 23. artikulua honako hau xedatu zuen: *“Erregimen orokorreko zein erregimen bereziko irakaskuntza ematen duten ikastetxe pribatuak ireki eta abiatzeak Administrazioaren baimenaren mendekoa izan behar du. Administrazioak baimena eman behar du, Lege honetako 14. artikuluan xedatutakoarekin bat ezarritako gutxienerako baldintzak betetzen badituzte ikastetxeek”*.

Nolanahi ere, LODEko 24. artikulua onartu zuen ikastetxe pribatuak zuzenbide komunaren arauen mendekoa izatea, ematen zuten irakaskuntza ez bazegoen bideratuta baliozkotasun akademikoko titulua eskuratzerara. Bazen salbuespenik, ordea, *“haurrak babeste aldera”* justifikatu zuena LODEk. Alegia, *“haur hezkuntzako adin tarteko haurrak erregulartasunez hartzen dituzten ikastetxe pribatuek 23. artikuluan aipatutako Administrazioaren baimenaren mendekoa izan behar dute”* xedatu zuen 24. artikuluko 2. atalak, eta 1/1990 Lege Organikoak idatzi zuen, hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzkoak (gogorarazi beharra dago 3 urte bitarteko aldia LOGSEko haur hezkuntzako lehen zikloari zegokiola. Hortaz, haur hezkuntzak barnean hartzen zuela ulertu behar zen).

Eskolaurreko ikastetxeak sortzeko eskumena zuenari dagokionez, LODEko 17. artikulua aurreikusi zuen ikastetxeak sortzea autonomia komunitateko gobernu batzordeari edo gobernuari zegokiola norberari zegozkion eskumenen esparruan.

Edonola ere, LODEko 2. xedapen gehigarria idatzi zuen 10/1999 Lege Organikoak, eta honako hau xedatu zuen: *“Tokiko erakundeek hezkuntza administrazio eskudunekin batera aritu behar dute elkarlanean, ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko, baita nahitaezko eskolatzea betetzen dela begiratzeko ere, indarrean dagoen legediak xedatutakoaren esparruan eta, hala behar izanez gero, haiekin hitzartutako baldintzetan”*.

Xedapen horrek eta LOGSEko 11. artikulukoak bideratu zuten Foru Komunitatean hitzarmenen lege esparru bat ezartzea. Lege esparru horren erregimen juridikoa Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak eratu zuen, eta tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautu zituen, erakundeek sustatutako haur hezkuntzako ikastetxeak abiatu eta hornitzeko.

1/1990 Lege Organikoa (LOGSE), urriaren 3koa, hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzkoa

Legegilearen LOGSEko hitzaurreko gogoetak arretaz irakurriz gero, araua aldarrikatu izanaren asmoen eta helburuen berri izango dugu.

Legeak hasiera batean gogorarazi zuenez, hezkuntzaren bidez transmititu eta erabiltzen dira gizartean bizitzea ahalbidetzen duten balioak, batik bat, oinarrizko askatasun eta eskubide guztien alderako errespetua; gainera, hezkuntzaren bidez eskuratzen dira elkarrekin demokratikoki bizi eta elkar errespetatzeko ohiturak. Hein handi batean, gizartearen heldutasuna norberaren eta komunitatearen dimentsioak barneratzeko ahalmenaren ondorio da, hezkuntza hartuta abiapuntu, eta hezkuntzari esker. Hedadura dena delakoa ere, gizartearen aurrerapena helburu izan duen aldaketa oro hezkuntza suspertu eta sustatzearekin batera gertatu da, hezkuntzak aldatzeko ahalmena duelako itxaropenarekin batera; are gehiago, hezkuntzaren suspertzea eta sustatzea, hezkuntzak aldatu egin dezakeelako itxaropena aurrez gertatu izan da batzuetan.

Gogoeta orokor horien testuinguruan, Legea aldarrikatu zen memento historiko-arautzailearen inguruko balioespen laburra egin zuen Legeak berak, lortutakoaren ingurukoa eta erreforma berria justifikatu zuten gabezien eta eskasien ingurukoa.

Konstituzioko araudiaren inguruko aipamena egin zuen ezinbestean, eta espainiar guztiei hezkuntzarako eskubidea eman ziela nabarmendu zuen; era berean, hezkuntzarako eskubidea arautu zuen Lege Organikoa egindako irakaskuntzaren programazio orokorraren bidezko eskubide horren garapena aipatu zuen. Horren ostean, Legeak aitortu zuen formaren aldetik indarrean jarraitzen zuen hezkuntza diseinua 1970eko Legeak xedatu zuena zela.

Nolanahi ere, bi hamarkada pasatu ziren orduz geroztik, demokrazian batez ere, eta aurrerapen handia izan zen hezkuntzaren arloan: erabateko eskolatzea lortu zen oinarrizko hezkuntza orokorrean, nahitaezkoak ez ziren maila guztietako eskolatzea nabarmen hazi zen, aurrerapen handiak egin ziren aukera berdintasunerantz eta hezkuntza sistema Estatuaren autonomia egiturak ekarritako dinamika berriaren arabera egokitu zen.

Legeak ohartarazi zuen, ordea, lorpen handi horiek ezin zutela eragotzi orduko hezkuntza sistemak ezinbestekoa zuen erreforma egitea. Helburua zen *“hezkuntzaren arlokoa baino ez den egiturazko hainbat arazoren konponbide egokia aurkitu eta sorrerako akatsak zuzentzea, denborak aurrera egin ahala azaleratu edo areagotu diren urritasunak eta disfuntzioak”*.

Erreforma justifikatu zuten sorrerako akats eta urritasun horiek mugatu zituen Legeak: *“nahitaezko eskolatzearen aurreko aldia hezkuntzaren ikuspegitik taxutu ez izana, besteak beste”*.

Aztergai dugun aldiari dagokionez, bederen, erreforma prozeduraren elementurik erabakigarrienetako bat izan zen hezkuntza komunitateko kide guztiek ateratako eta zientzia psiko-pedagogikoen arloko adituek onartutako ondorioak kontuan hartu izana. Izan ere, azterketa prozesu luze bat egin zuten, eta hutsuneak azaleratu ziren; gainera, Europako herrialderik aurreratuenetako esperientziak hartu zituzten kontuan, konparazioa egitearren.

Hainbat berrikuntza metodologiko egin zuten, eta aldaketak egin zituzten hezkuntzako aldietako ikasketa planetan. Prozesu horren ondorioz, eta esperientzia horien azterketa kritiko eta analitikoaren ondorioz, Hezkuntza sistema erreformatzeko liburu zuria osatu zuten; haren forma juridikoa eman zuela aitortu zuen LOGSEK.

“Esperientziak eta ikerketak hezkuntzak ziklo honetan duen garrantzia erakutsi dute, hasiera bateko funtzioa ama langileen seme-alabak zaintzea izan arren”.

“Gurasoek lan egiten duten ala ez kontuan izan ezean, helburua da haurrari garatzen lagunduko dion esperientzia multzo bat ematea, familiartekoak ordezkatu beharrean, sustatu eta osatu egiten dituztenak”.

"Haur hezkuntzak lehen hilabeteen eta 6 urteen bitarteko aldia hartzen du barnean, eta hezkuntza sistemaren lehen aldia izan behar du. Maila horretako eskolatzea ez da nahitaezkoa. Hezkuntzako aldi honek irakasleek hezteko asmoa izan dezaten behar du, esperientzien eta jardueren plangintza arretaz egitea, espezializatutako profesionalak, eta lan baldintza jakinak osasungarritasunari, guneei, irakasleen eta haurren arteko proportzioari... dagokienez".

"Hezkuntza irizpideen arabera, antolamendu berriaren helburua da arreta eskasa izan duen baina, pedagogikoak baino ez diren xedeak baino gehiago, laguntza xedeak eta xede sozialak ere maiz bete izan dituen maila arautzea... Maila hau hezkuntzako alditzat hartzeak ikastetxeen eta bertan ematen diren hezkuntza esperientzien antolaketaren aldaketak ekarri behar ditu".

"Haur hezkuntza antolatzearen ardurak hezkuntza administrazioena izan behar du. Haur hezkuntzako ikastetxe guztiek xedatzen diren hezkuntza baldintzak bete ditzaten begiratu behar dute, irakasleei, gune fisikoei eta segurtasunguneei, higienerari eta osasunari... dagokienez. Ikuskaritza Teknikoaren Zerbitzuak egin behar ditu dagozkion ekintzak".

LOGSEko hitzaurrearen amaiera Espainiako hezkuntza sistema Europa gero eta handiagoaren barnean berriz antolatu nahia zen.

Berriro ere nabarmentzekoa da Europa aipatu zuela testuak amaieran.

Izan ere, gogorarazi beharra dago bederatzi urte lehenago Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen 1981eko urtarrilaren 23ko Gomendioa onartu zutela, haurra jaiotzen denetik 8 urte betetzen dituen arte hartu eta hezteari buruzkoa.

Estatu kideek bete behar zuten eginkizuna dela-eta, honako hau xedatu zuen Gomendioak:

"Jaiotzen direnetik 8 urte betetzen dituzten arte, haurren hezkuntzak duen garrantzia kontuan hartuta, 80ko hamarkadako Europako gizartean, honako hau egin behar dute estatu kideek:

1. -*Haurren hezkuntza antolatu behar dute gurasoekiko elkarlan estuan, familiarteko heziketa eta hezkuntza iraunkorraren lehen aldia osatzearren:*

- *Funts nahikoak izan behar dituzte*
- *Familia, lan eta gizarte arloko legedia hobetu behar dute*
- *Hezkuntza sistemaren plangintza egin behar dute, jarraitutasuna mantendu eta heldua sormenez eta era berritzailean trebatzearren."*

LOGSEko artikuluen testuak aipatutako alderdiak juridikoki mugatu baino ez zituen egin.

Esate baterako, 3. artikulua hezkuntza sistema osatzen duten erregimen orokorreko irakaskuntzen artean sartu zuen haur hezkuntza.

Legeko I. Tituluko I. Kapituluak, berriz, haur hezkuntza arautu zuen (7.-12. artikulua), eta honako hau xedatu zuen: *"Haur hezkuntzak 6 urte artekoa izan behar du, eta haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo, sozial eta moralari lagundu behar dio. Haur hezkuntzako ikastetxeek elkarlan estuan aritu behar dute gurasoekin edo tutoreekin, hezkuntzako aldi horretan duten funtsezko erantzukizuna kontuan izatearren".*

Aldi honetako eskolatzea borondatezkoa zela ezarri zuen, baina Administrazioaren esku utzi zuen toki kopuru nahikoa bermatzea, eskatzen zuten haurren eskolatzea bermatzearren.

LOGSEk hezkuntzako aldi honen helburuak zehaztu zituen, eta haurren honako ahalmen hauek garatzen lagunduko zuela nabarmendu zuen:

- "a) Euren gorputzaren eta aukeren berri izatea.*
- b) Gainerakoekin harremanetan jartzea hainbat adierazpideren eta komunikabideren bitartez.*
- c) Natura, familia eta gizarte ingurunea behatu eta miatzea.*
- d) Ohiko jardueretan gero eta autonomia handiagoa eskuratzea".*

Haur hezkuntzako aldiak bi ziklo zituen. Lehenengo zikloa 3 urte arterakoa zen, eta bigarrena, berriz, 3 eta 6 urte artekoa.

Hezkuntzaren arloko metodologiak esperientzietan, jardueretan eta jolasean oinarritu behar zuen, adiskidetasunezko eta konfiantzazko giroan.

Aldi honetako lehenengo zikloak mugimenduaren garapenari, gorputzaren kontrolari, komunikazioaren eta hizkuntzaren lehen adierazpenei, elkarbizitzaren eta harreman sozialen oinarrizko jarraibideei eta ondoko inguruneaz jabetzeari erreparatu behar zien.

Haur hezkuntza zegokion espezializazioa zuten irakasleek eman behar zuten. Gainera, lehen zikloko ikastetxeek behar bezalako prestakuntza zuten bestelako profesionalak izan behar zituzten, adin bitarte honetako haurrei hezkuntza arreta egokia ematearren.

LOGSEko araudiaren amaierak hezkuntza administrazioen esku utzi zuen aldi honen garapena. Horretarako, tokiko korporazioekin, beste administrazio publikoekin eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin hitzarmenak sinatzeko aukera aztertu zuen.

Batetik, gizarte, ekonomia, kultur edo bestelako faktoreek ekarritako desberdintasunak arintzera bideratutako osabidezko hezkuntzaren arloko neurriak aipatu zituen. Eremu horretan aurretiko neurriak hartzearen garrantzia nabarmendu zuen Legeak, hezkuntza administrazioen esku utzi baitzuen baldintzarik egokienak bermatzea halakoetan, haurrak haur hezkuntzan eskolatzeko (LOGSEko 64. artikulua).

Bestetik, 1. xedapen iragankorrak zehaztu zuen 6 urtetik beherako haurren artan baimenik gabe aritzen ziren ikastetxeak egokitzeko mekanismoa; izan ere, Legea indarrean sartzen zenean, haur hezkuntzako ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzen arabera egokitu behar zuten.

LOGSEn bertan eta hezkuntzarako eskubideari buruzko Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, LOGSEko araudi hori garatu zuten ondoren, ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuaren eta irailaren 6ko 1330/1991 Errege Dekretuaren bitartez. 1004/1991 Errege Dekretuak erregimen orokorreko irakaskuntza ematen zuten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak xedatu zituen, eta 1330/1991 Errege Dekretuak, berriz, haur hezkuntzaren oinarrizko alderdiak.

Foru Komunitatean, xedapen horiek Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko aipatu 3086/2001 Ebazpenak garatu zituen, batez ere. Izan ere, tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautu zituen, erakundeek sustatutako haur hezkuntzako ikastetxeak abiatu eta hornitzeko. Besteak beste, honako alderdi garrantzitsu hauek zehaztu zituen:

Haur eskoletan euren zerbitzuak ematen zituzten profesionalei eskatu beharreko tituluak:

- Haur Hezkuntzako Goi Teknikaria
- Haurtzaindegiko Teknikari Espezialista
- OHOkoko Maisu/Maistra edo Irakaslea
- Haur Hezkuntzako Maisu/Maistra Espezialista
- OHOkoko Irakaslea, Eskolaurreko Espezialista
- Psikologia
- Pedagogia
- Psikopedagogia.

Ikastetxeko profesional kopurua. Zeuden unitateen kopuruari bat gehitzearen emaitza izan behar zuen, honako ratioen arabera:

- Urte 1etik beherako haurrentzako unitateak: 1/8
- Urte 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako unitateak: 1/12
- 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako unitateak: 1/16

Ikastetxeak ez bazuen haur kopuru nahikoa, unitateetan adin ezberdinetako haurrak elkartzea baimendu zitekeen, honako ratioen arabera:

- 0 urte eta urte 1 bitarteko haurrentzako unitateak: 1/7
- Urte 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako unitateak: 1/14
- 0 urte, urte 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako unitateak: 1/10

Ikastetxeen instalazioek bete beharreko baldintzak. Haur hezkuntzako ikastetxeak beheko solairuan egon behar zuen, eta sarbide independentea izan. Jolasgunea izan behar zuen kanpoan, ala patioa. Gelek haur bakoitzeko bi metro koadroko azalera izan behar zuten, gutxienez, eta bainugelek haurren neurriaren arabera egokitutako komunak izan behar zituzten. Azkenik, instalazioek indarrean zegoen araudia bete behar zuten, osasungarritasunari, higieneari eta segurtasunari zegokienez.

Barne antolaketa: egutegia, ordutegia eta onartzeko gutxieneko adina.

Ikastetxeek hilabeteka eman behar zuten zerbitzua, eta zerbitzuak hamaika hilabete iraun behar zuen. Hilabetez itxi behar zuten (uztailean, abuztuan edo irailean), eta zegokion tokiko erakundeak aukeratu behar zuen zein hilabetetan itxi.

Haurrek ezin zuten eguneko zazpi orduz baino gehiagoz egon ikastetxean, aparteko egoeretan izan ezik. Azkenik, ikastetxeek ezin zituzten onartu 16 astetik beherako haurrak.

10/2002 LEGE ORGANIKOA, ABENDUAREN 23KOA, HEZKUNTZAREN KALITATEARI BURUZKOA (LOCE)

Arrazoen Azalpenean adierazitakoarekin bat, hezkuntzaren kalitateari buruzko Lege Organikoak hezkuntza sistemaren mailen eta aldien egitura berriz definitzeko helburua zuen.

Eskolaurreko hezkuntzari dagokionez, ordura arte haur hezkuntzako bigarren ziklotzat hartzen zutena izateari utzi zion, eta 3 urtera arteko aldia zen. *"Ezaugarria du lehen haurtzarorearen hezitzailea eta artatzaile eta zaintzailea izatea aldi berean, eta toki kopuru nahikoa bermatu behar du, familien eskariei eta beharrei erantzutearren"*.

Haur hezkuntza, berriz, 3 eta 6 urte arteko aldia zen, eta borondatezko eta doako alditzat sortu zuten lehendabizikoz.

LOCEko I. Tituluko I. Kapituluak zehaztu zuen eskolaurreko hezkuntza zelakoaren araudia, eta honako hau xedatu zuen:

"artikulua: 1. Hezkuntza sistemak eskolaurreko hezkuntza, eskolako irakaskuntza eta unibertsitateko irakaskuntza hartzen ditu barnean.

2. Eskolaurreko hezkuntzak hezitzaile eta laguntzailea izan behar du, eta araudi espezifikoa izan.

3. Eskolako irakaskuntzak erregimen orokorrekoak eta erregimen berezikoak dira..."

Horrenbestez, LOGSEk eskaini zuen araudia gorabehera, aldi honek hezkuntza sistemako eskolako irakaskuntzaren barneko erregimen orokorreko irakaskuntza izateari utzi zion.

I. Tituluko II. Kapituluako 10. artikulua tratatu zuen espezifikoki eskolaurreko hezkuntza, eta honako hau xedatu zuen hitzez hitz:

10.1. artikulua: "Eskolaurreko hezkuntzaren helburua da lehen haurtzaroaren arreta hezitzailea eta laguntzailea. 3 urtera arteko haurrentzat da".

2. "Gobernuak aldi honetako hezkuntza alderdien inguruan xedatzen duen oinarrizko araudiarekin bat, autonomia komunitateei dagokie hezkuntzako aldi honetako haurren arreta antolatu eta arreta hori ematen duten ikastetxeek eta erakundeek bete beharreko baldintzak ezartzea. Gainera, egoki jotzen dituzten ikuskapen eta kontrol prozedurak ezarri behar dituzte".

3. "Eskolaurreko hezkuntza adin honetako haurrak egokiro artatzeko prestakuntza duten profesionalek eman behar dute".

4. "Eskolaurreko hezkuntza borondatezkoa da gurasoentzat. Administrazio eskudunek familien artean dauden beharrei erantzun behar diete, eta eskariari erantzuteko behar adina toki eskaintzea koordinatu".

5. "Eskolaurreko Hezkuntzak mugimenduaren garapenari, gorputzaren kontrolari, komunikazioaren eta hizkuntzaren lehen adierazpeni, elkarbizitzaren eta harreman sozialen oinarrizko jarraibideei eta ondoko inguruneaz jabetzeari erreparatu behar die".

LOCEko V. Tituluak ikastetxeak arautu zituen, baina ez zuen aipamenik egin eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeen inguruan. 6. xedapen gehigarriak eta 2. xedapen iragankorrak bakarrik aipatu zituzten. 6. xedapenak aurreikusi zuen haur hezkuntzako lehenengo zikloa emateko baimena zuten ikastetxeek eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe bihurtu behar zutela Legea indarrean sartzen zenean; 2. xedapenak, berriz, 3 urtetik beherako haurrak baimenik gabe artatzen ari ziren ikastetxeak egokitzea tratatu zuen.

Honako arau hauek onartu zituzten, araudi hori garatzearren:

- 827/2003 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 27koa, LOCE aplikatu beharreko egutegia xedatu zuena.
- 828/2003 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 27koa, eskolaurreko hezkuntzako oinarrizko hezkuntza alderdiak zehaztu zituena.
- 113/2004 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, eskolaurreko hezkuntzako irakaskuntzaren oinarrizko hezkuntza alderdiak eta antolaketa garatu zituena, eta aldi honetako ikastetxeek bete beharreko baldintzak zehaztu (Hezkuntza Ministerioaren esparruan aplikatzekoa).
- 1318/2004 ERREGE DEKRETUA, maiatzaren 28koa, ekainaren 27ko 827/2003 Errege Dekretua aldatu zuena. 827/2003 Errege Dekretuak hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatu beharreko egutegia xedatu zuen, eta hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak xedatu zuen antolamendu hori.

1318/2004 Errege Dekretuko artikulua bakarrak 2006-2007 ikasturtera arte atzeratu zuen eskolaurreko hezkuntza ezarri beharreko egutegia (2004-2005 ikasturtean aplikatuko zela aurreikusi zen), baina honako hau xedatu zuen: *"Eskolaurreko hezkuntza ezartzea 2003-2004 ikasturtera aurreratu zuten hezkuntza administrazioek ondoko ikasturteetan ezar dezakete"*.

4. 0 ETA 3 URTE
ARTEKO HAURREN
BEHARRAK ETA
HEZKUNTZA
EREDUAK



Haurra eskubidezko subjektua zela besterik gabe adierazteak, printzipio baten balioaz gain, ez zuen jaso eskubide horren beraren alde bat, hain zuzen ere, haurraren nortasuna osatzen duten alderdien multzoa, hau da, gizakia den heinean duen berezitasuna.

Azalekoa besterik ez bada ere, komenigarria da 0 eta 3 urte bitarteko haurraren azterketa egitea, haren nortasunari, bizi esperientziak etorkizunera bideratuko duen moduari eta aldi honetan inguruan dituen gizarte, familia eta hezkuntza egoerak eragingo dioten moduari dagokienez. Helburua da haurrek hezkuntza alderdien alorrean eta haurtzaroan dituzten eskubide espezifikoak ustezkoak bakarrik ez izatea, eta haurra delako eskubideak erabiltzeko subjektu "oraindik-ez" aktibo edo "garrantzirik gabeko subjektutzat" hartu izan dutenen alderantzizko akatsa ez egitea.

Milurteko hau hasi baino askoz lehenago ere, ikertzaileek eta adituek iragarri zuten aldaketak izango zirela tarte honetan, eta horietako asko oso lotuta daude hezkuntza alderdiekin. Duela hainbat urte gizarteak jasaten hasi ziren lurrikara ekonomiko, teknologiko eta soziala oso lotuta dago XXI. mendeko haurrekin eta gazteekin; izan ere, XXI. mendean apenas izan da aldaketarik joan den mendeko azken urteen aldean.

Kontzientzia dago merkatuaren globalizazioak ez duela konponduko herrialdeen bizi mailaren artean egun dauden ezberdintasunen arazoa, areagotu egingo duelakoa baizik; eta justiziaren eta leialtasunaren arteko gatazkak, eta demokrazia global utopikoaren aldeko borrokan segitu beharrak planetako harremanak nabarmen markatuko dituztelakoa¹. Gizonezko eta emakumezko guztiek duintasun bera lortzearen aldeko eskari unibertsalak norberaren kulturaren, ongizatearen eta tradizio historikoaren alderako leialtasuna eragotziko lieke globalizazioak egun mesede egiten dienei.

H. Kennet Galbraithek (1995) uste zuen lanpostu bat eta gizarte eta ekonomia aurrerapena lor zezaketenentzako segurtasun sarea lortzeko kezka handiagoa izan behar zuela².

1. Richard Rorty, 1995

2. José Rivero. XXI. mendeko haur hezkuntza. Haur hezkuntzari buruzko mundu mailako IV. biltzarra. Madril. 1998

Kezka horren ondorioz, "**Guztientzako hezkuntzari buruzko munduko adierazpenak**" funtsezko eragina izan zuen haur hezkuntzan, honako hau adierazi baitzuen³: "Ikaskuntza haurra jaiotzen denetik hasten da. Horregatik, haurrak goizdanik zaindu behar dira, eta hasieratik hezi; familiarentzako, komunitatearentzako eta erakundeentzako neurrien bitartez lor daiteke hori, komeni denaren arabera". Horren guztiaren ildoan, berriro ere nabarmendu beharra dago gizakien adimena, nortasuna eta jarrera soziala oso arin garatzen direla lehen urteetan. Garuneko zelularik gehienak eta neuronen arteko konexioak lehenengo bi urteetan garatzen dira, eta garunaren moldaera funtsezkoa da ikasteko ahalmena emendatzeko; osasunak eta elikadurak ez ezik, haurren inguruko giroak eta gizartearen elkarrekintzak ere hartzen dute parte.

Heziketa goiztiarra izan zuten eta izan ez zuten bederatzi herrialdetako haurrak⁴ alderatu zituzten hamabost azterketaren sistematizazioak haur hezkuntzaren ageriko ondorioak nabarmendu zituen, besteak beste, haur hezkuntzaren abantailatzat:

- Esku hartze goiztiarra izateak eragin positiboa izaten du eskolako aurrerapenean eta jardunean, eta jaitsiera nabarmenak izaten dira eskola uztearen eta ikasturtea errepikatu beharraren tasetan.
- Haur txiroei aberatsago batzuei baino onura handiagoa ekar diezaike alderdi anitzeko programetan parte hartzeak.
- Lehenaren kalitate eskasak eta egiturazko baldintzek jardun akademikoa prestatzeak izan ditzakeen ondorioak leundu ditzakete⁵.

Aipatu arrazoi guztiak direla-eta, garrantzitsua da lehen haurtzarora hezkuntzaren ikuspegitik artatzea. Batez ere, baztertuta dauden familietatik datozen haurrak artatzeak etxeko bertako gabeziak berdintzeko indar izugarria du, eta pobreziaren gupil zoroa eteten nabarmen laguntzekoa.

3. Jomtienko mundu mailako konferentzia

4. Argentina, Bolivia, Txile, Kolonbia, Filipinak, India, Maroko, Peru, Turkia

5. R. Meyers, 1998

Horregeatik agian, oso interesgarria da honako datu hau⁶: 1980 eta 1995 artean, 37 bat milioi ikasle gehiago izan ziren munduan eskolaurreko hezkuntzan eta irakasle kopurua 1,73 milioi hazi zen aldi horretan; irakasle horietako gehien-gehienak emakumezkoak ziren.

Berdintasun eta elkartasun handiagoa, gizartearen lankidetzeta handiagoa lortzearen, ezinbesteko iturria da hezkuntza, eta funtsezkoa da hezkuntza sistemak finkatzea lehen haurtzaroan. Kultura berri horren abiapuntuak haurraren eskubide guztiak salbuespenik gabe betetzea izan behar du, eta garrantzi bereko hainbat aldaketaren lorpena objektibatu eta aldaketa horiek lortzeko ahalegindu beharra dakar horrek. Horretarako edo horregeatik, haur hezkuntza oso lotuta dago haurrak moldatzen diren errealitate sozio-ekonomikoak aldatzearekin.

Hezkuntza sistemen kezka eta erronka 6 urtetik beherako guztiak hasieratik artatzea den heinean milurteko honetan, elikadurara eta osasunera lerratzen ez den hezkuntza goiztiarraren ikuspegitik heldu behar zaio hezkuntzarako eskubidearen estaldura nabarmen emendatzeari; izan ere, faktore horiek erabakigarriak izan daitezke hainbat herrialdetan. Eskolaurreko hezkuntzaren konbentzionalismoak gainditu behar dituzte, eta eskolatzearen ingurukoak baino ez diren "ohiturak".

Hezkuntzaren arloko lanen eta hainbat ikerketaren esperientzia aberatsak bat datoz: haurrek antolaketa psiko-motriz bat hartzen dute abiapuntu komunikazio eta ikasketa matrizeak eraikitzeko, eta antolaketa hori lau alorretan banatuta dago, gutxienez: heldurik adierazgarrien(ar)ekiko loturan, miaketan, komunikazioan eta orekan⁷.

Arrazoi handiz, nabarmendu izan da antolaketaren alor horien arteko elkarrekintzak ahalbidetzen diola haurrari hasierako hezkuntzaren eta hezkuntza iraunkorraren oinarriak sendotzea: buruko irudikapena, abstrakzioa eta, ondorioz, hizkuntzaren eta "pentsamendu eragilearen" garapena.

Hasierako hezkuntzak irauten duen bitartean, haurrak izaera du jadanik, eta bere edukiak plazaratu eta kanpo edukiak barneratzeko gai da; hortaz, jarrera berriak

6. UNESCO. *Statistical Yearbook. 1997. Paris. 1997*

7. José Rivero. *Ibidem*

behar dituzte praktika pedagogikoak eta irakasleak: batetik, hezkuntzak libreago eta berdintasunezkoagoa izan behar du, eta haurraren interesak hartu behar ditu barnean; bestetik, maisu/maistrak ez du izan behar edukiak ematen dituen bakarra, hau da, haurrak bihurtu behar ditu euren ikasketaren eta garapenaren protagonista. Hasierako hezkuntzaren ahalegin nagusiek gaur egungo haurrari bere burua proiektatzeko ahalmena ematera bideratu behar dute; giro atsegingarri bati esker, haurrak taldean lan egin, besteekin elkarlanean aritu, adierazi, erabaki, arazo berriak konpondu eta autonomo izateko gai izan behar du gero, besteekiko harremanetan betiere.

"Delors txostenak" (XXI. mendeko hezkuntzari buruzko nazioarteko batzordeak UNESCOrentzat eginiko txostenak) lehen hezkuntzaren garrantzia nabarmendu zuen, eta honako hau baieztatu zuen: "Egiaztatu ahal izan da lehen haurtzaroarentzako hezkuntza izan duten hurrek eskolaren alderako jarrera ona dutela, eta eskola behar baino lehenago uzteko aukera gutxiago dutela, aukera hori izan ez dutenek baino".

Osasun eta hezkuntza alderdien arteko desberdintasunak oinarri hartuta, nabarmena dirudi hezkuntzaren funtzioa ez dela oinarritzen laguntza funtzioan aldi honetan ere ez; izan ere, hori ondoriozta daiteke ikerketak kontzeptualki eta gizartearen garapenak berak kulturalki gainditu dituzten araudi historikoetatik. "Laguntzak" hezkuntza arloan izan lezakeen gutxiespenezko konnotazioa alde batera utzita, laguntza kontzeptuaren beraren oinarriak "gutxienekoak" dira, zerbitzuaren beharrei eta eskaintzari dagokienez; Administrazioak, hots, botere publikoek, aparteko ekintzak egiten dituzte egoera okerragoan dauden herritarren beharrei erantzuten laguntzeko.

Hala ere, haurren eskubideak aitortuz gero, kontzeptu hori ezin aplikatuzkoa da, are gutxiago hezkuntzaren arloan.

Izan ere, eskubideen dualtasuna jazotzen da hezkuntzan: haurren eskubide espezifikokoak eta hezkuntzarako eskubide orokorragoak dituzte hurrek. Banaka zein batera, gizakiaren dimentsioa eratzen dute biek ala biek, baita haurraren bizitzako lehenengo urteetan ere, eta laguntzeko esku hartzea ez da ulertzekoa, ezta zuzena ere, muturreko kasuetan edo gizarte bazterketa gertatzen denean izan ezik.

Haurrak aldi honetan dituen beharrak, hala nola, gorputzaren zaintza, elikadura eta garbiketa, laguntzazkoa baino ez den ikuspegitik arta daitezkeen

alderditzat hartu izan dira; heziketaren arloko beste jarduera batzuk, berriz, "hezitzailetzat" jo izan dira terminoaren alderik akademikoenetik, hala nola, irakurtzea, idaztea, margotzea... Hala eta guztiz ere, sobera erakutsi da ikuspegi hori okerra dela, mugatzailea delako; alderdi batzuen eta besteen artean desberdintzen du, biak ala biak batez ere hezitzaileak diren arren adin horretan: egitatearen berri izan, egitatea ikasi eta haurraren nortasun pertsonalean barneratzea.

Are gehiago, pedagogoen eta psikologoek behin eta berriro gogorarazten dutenez, haurrek ez dute memento hezitzaileen eta ez-hezitzaileen artean bereizten; hortaz, adin honetako edozein memento hezitzailea da, behar bezala bideratu eta behar adina antolatzen bada eta goi mailako baliabideak eta profesionalak baditu. Litekeena da gure gizarteak azken hamarkadetan izandako kultur eta gizarte bilakaera izatea aldi honetako beharren alderako erantzunen ikuspegi "fisiko hutsa" (zaintza) gainditzeko bultzadarik onena, nahiz eta emakume gehienak lan merkatuan sartu izanak presioa egin eta egiten dion gizarteari haurra artatzeko guneak aurkitzeko.

Orduan gertatzen da haurraren garapenaren ezaugarrien eta haurraren hezkuntza arreta egokiaren arteko gatazka, eta familiak lagundu beharra, erantzun gabeko premia bihurtzen dena maiz. Baten eta besteen eskubideen arteko kontraesan puntu hori ezin da konpondu behin-behineko politiken bitartez; aitzitik, alderdi guztien eskubideak babestu eta erabili behar dira, ezin bateragarriagoak direnez gero, "noiznolako" neurriak hartzea dakarren irizpide ekonomikoa aplikatzen denean izan ezik, laguntzazkoa dena nabarmen.

Haurrentzako hezkuntza zerbitzuek familiarteko beharrak babestea eta zerbitzuok emakumeek lan egin dezaten sustatzeko duten garrantzia ezin eztabaidatuzkoak diren neurrian, gogorazi beharra dago hezkuntza sistema osoaren oinarria dela haur hezkuntza. Hortaz, litekeena da familiarteko heziketa osatzen duen testuingurutzat hartzea, gizakiaren ahalmenak eta potentzialtasunak garatzen laguntzen duelako jaiotzen denetik, familia guztiak egokiak izan ez arren heziketaren ikuspegitik.

Haurtzaroko aldi honetarako toki eskaria alde batera utzita, baita kexa bihurtutako tentsioa ere eskaintza eskasia dela-eta, haur hezkuntza ezin da gizartearen eskariaren edo beharraren ikuspegitik bakarrik aztertu. Ez dago gizartearen presioari aurre egingo dion ezpondarik eraikitzerik, lehen haurtzaroan hezkuntza egokia izateko premia babesteko. Zenbat eta handiagoa

izan haurren garapen osoa ahalbidetzeko nahia, orduan eta handiagoa da administrazio publiko eskudunen erantzukizuna, eta erantzukizun hori erabili egin behar dute, gizartearen beharren arabera tokiak izateko ez ezik, haurren eskubideen ezaugarrien eta beharren arabera tokiak ere izateko, besteak beste, hezkuntza zuzenagoaren arabera.

Haurren beharrei erantzunez, haur eskolen sistemaren helburu nabarmena hezkuntza da, eta laguntzazkotzat jotzeko alderdiak hezkuntza helburu horien mendean daude.

Katalunian 15.000 biztanlerekin egindako ikerketa batek desberdintasun nabarmenak aurkitu zituen haurren garapen psiko-motrizaren dela-eta, haurtzaindegira edo haur eskolara joan ziren edo beranduago ekin zioten eskolako zikloari. Haurtzaindegira joateak haurren nortasunean izan zuen eragina etxean gelditu izan balitz baino negatiboagoa izan zen, baina haur eskolara joan zirenak prestatuagoak zeuden familiarteko arreta hutsetik zetozenak baino, eta askoz ere prestatuagoak haurtzaindegietatik zetozenak baino.

EZIN SAIHESTUZKO ETORKIZUNEAN PENTSATUZ

María José González López soziologo eta Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia Politikoen eta Soziologiaren Saileko irakasleak 2003ko lan dokumentu baten bitartez nabarmendu zuenez, haurrak eskolatzeko egungo eskaintza ez da nahikoa⁸. Gure geografia eta kultur esparru bereko beste herrialde batzuetako errealitatearen aldean, eskasia dago 0 eta 3 urte arteko haurrentzako tokien eskaintzari dagokionez hala sektore publikoan, nola sektore pribatuan, familiek ez diotelako behar bezainbateko babes ematen haur hauen artari, familiaren eta lanaren arteko bateragarritasun beharrezkoari eusteko. Halaber, desoreka handia omen dago lurraldeen artean zerbitzu horiek emateari dagokionez. Nabarmendu zuen egitateetako beste bat da eskaintza publikoa hazi egiten dela haurren adinak 3 urteetatik gora egiten duen heinean.

Orain arte bederen, eskaintza pribatuak hezkuntza sektore honetan izan duen presentzia txikia pizgarri ekonomikorik ezaren ondorioa izan da, biztanle gutxienerako inguruetan batik bat; hau da, etekinak lortzeko aurreikuspenik ezarena.

Administrazioek haurren eskubideen inguruan duten jarrerak oso pozgarria ez den errealitate hori alda dezake, eskolatzeko behar honi zuzenean helduz –indarrean dagoen legediak baimendu egiten du–. Oro har, Espainiako hezkuntza legediak ez du egungo beharrei erantzuteko funts nahikorik, eta are gutxiago etorkizuneko beharrei erantzuteko. "Haurren eskolatzeko ez da eskubide erreala, eskubide formala baizik", baina "haur hezkuntzaren sistemak baliabide eskasak ditu eta, gainera, administrazio bakoitzaren eskumenak ez daude argiro xedatuak". Bere ustez, "faktore horrek askotariko egoerak azaleratu izana ekarri du udal eta probintzia esparruan".

Bere aburuz, "zaintza zerbitzuen eskasiak familien mendekotasuna sustatu eta gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak errepikarazi besterik ez ditu egiten. Aitzitik, ekonomiaren aldetik eskuragarriak diren zerbitzuak garatzeak honako helburu hauek ditu:

8. M. J. González López. "Servicios de atención a la infancia en España". 1/2003 lan dokumentua (Alternativas Fundazioa)

Norbanakoaren eskubideak sustatu eta gurasoek lan merkatuan parte hartzea bideratzea; gainera, egun familiartekoez edo etxeko ordukako langileek egiten duten lan informala lan merkatura aldatzea ekar dezake eta, orobat, lanpostuak ugariagotzea. Lanpostuak ugariagotzea zaintza zerbitzuetarako langileak kontratatzearen ondorioa izango litzateke, eta amen enplegua babestu eta "diru sarrera bikoitzeko familiek" (bi ezkontideek lan egiten dutenek) zerbitzu gehiago eska dezaten bultzatzearena.

Oro har, zerbitzuen eskasiari aurre egiteko Europa mailako azken joerak bitan banatuta daude: seme-alaba txikiak dituzten familiei laguntza ekonomikoak ematen (zerga arintzeak eta aldizkako ordainketak) eta haurrentzako zerbitzuak garatzea zuzenean sustatzen. Haurrentzako zerbitzuen eskasia bada, familiei emandako laguntza oro positiboa da. Nolanahi ere, zerbitzu publikoak sustatzeko aukerak askoz ere eragin homogeenagoa izan dezake familiengan, haur guztiek gutxieneko kalitate baldintzetan lortzen baitute eskolatzeko eskubidea. Ekinbide bakarra laguntza ekonomikoak izateak, berriz, oso ondorio ezberdinak izan ditzake familiaren errentaren eta emakumeak lan merkatuan duen tokiaren arabera.

Horren arrazoia da baliabide gutxien dituzten familiei laguntza ekonomikoak emateak familiei beraiei aldatzen diela konponbideak sektore pribatuan bilatzeko ardura. Familia horiek ahalik eta kostu gutxien izateko irizpidea izango lukete seguru asko, edo euren gain har litzaketen kostuak soilik izatekoa. Hartara, ez da "herritarrik txikienen" hezkuntza aukeren berdintasuna bermatzen eta, hain zuzen ere, horrek behar luke gizarte politiken benetako lehentasuna.

Azkenik, "kalitateko haur-hezkuntza sistema publikoa familien pobrezia-aren aurkako estrategia izan daiteke, etorkizuneko belaunaldiak hezi eta trebatzeko aukera berdintasunerako mekanismoa baita. Etorkizuneko belaunaldi horiek oso urriak izango dira, demografiaren egungo dinamika dela-eta".

Etorkizunean lehen haurtzaroarentzako arreta zerbitzuak garatzeari dagokionez, lehenik eta behin, ikastetxe publikoetako eta pribatu-⁰ eta 3 urte bitarteko haurrentzako haur hezkuntzako tokien eskaintzaren eskola mapa egin beharko litzateke, adinen eta udalerrien arabera.

Hezitzaileek, parte hartzen duten administrazioek eta ikertzaileek, oro har, izan beharko lukete udal eskola mapa horren berri, eta Foru Gobernu-ko Hezkuntza

Departamentuak izan beharko luke egiteko horren buru, beharrezkoa balitz, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa lagun; izan ere, Ministerioa arduratzen da gaur egun hezkuntza estatistikak zentralizatzear.

Halaber, garrantzitsua da lehen haurtzarorako zerbitzuen eskari erreal eta latentearen ikuspegi argia izatea. Informazio hori eskuratzeko bide bat izango litzateke titulartasun publikoko ikastetxeetako itxaronzerrendak (gauzatu gabeko aurretiko izen emateak) nahitaez argitaratu beharra.

Hirugarrenik, zerbitzuen kudeaketa publikoaren gardentasuna hobetu beharko litzateke, herritarrek administrazio bakoitzak hartutako konpromisoen berri izan dezaten, bakoitzarengandik espero izatekoak diren eskudantziena eta egiten ari diren ekarpen errealea. Gardentasun hori hobetu egingo litzateke konpromiso konkretuak ezarriko balira tokiko gobernuek edota Foru Gobernuak euren gain hartu beharko lituzketen biztanle kopuruaren araberako gutxienerako inbertsio egonkorrei buruz. Hartara, lurraldeen arteko berdintasunerako politikak ere sustatuko lirateke, biztanle kopuru bera izanik, antzeko aurrekontuaren bitartez erantzun beharko litzaikeelako. Alde horretatik, positiboa litzateke administrazio bakoitzak urtero egindako inbertsioen ehunekoia plazaratzea ere, haur hezkuntzako ikastetxeak kudeatu eta mantentzeko. Adituek uste dute haur hezkuntzako sisteman egindako inbertsioek ez luketela izan beharko Barne Produktu Gordinaren %1 baino txikiagoak, baina Danimarka eta, agian, Suedia bakarrik iristen dira zifra horretara gaur egun⁹. Kostuen banaketari dagokionez, berriz, familiek heren bat ordain lezakete eta sektore pribatuak bi heren; gutxienerako diru sarrerak eskuratzen ez dituzten familiak ordaintzetik salbuetsiko lirateke.

Administrazio bakoitzak arlo honetan duen eskumenari dagokionez, haur eskolatzea sustatzeko politika eta ekimen askotarikoak positiboak direlako ideia har dezakegu abiapuntu. Alderdi negatiboa, ordea, egun lurraldeen artean zerbitzuak emateko garaian dauden desoreka handietan datza. Herritarrengandik hurbilen dauden gobernu maila diren heinean, desoreka horiek konpontzeko modu bat izango litzateke tokiko gobernuari (udalei) jarduteko aukera handiagoak ematea¹⁰, aurrekontu bereziak lortu eta kudeatuz erantzun diezaioten zerbitzuen eskariari. Izan ere, tokiko gobernuek hobeto

9. Tietze et al. 1999

10. M. J. González López. *Ibidem*

dakite udalerriko errealitate sozio-demografikoaren eta zerbitzuak kudeatzeko beharren berri, oro har.

Halaber, tokiko gobernuek erraztasun handiagoak dituzte hurbileko zerbitzua bideratzeko, baita gurasoek hezkuntza komunitatean parte har dezaten bideratzeko ere. Besteak beste, udalei baliabide espezifikoak emango lizkieketen mekanismo ekonomikoei heltzea ekarriko luke horrek.

Haur hezkuntzako lehenengo zikloa ematen duten ikastetxe publikoetan sartzeari dagokionez, familien errenta erabili ohi da sartzeko, baina hainbat alderdi negatibo du horrek, diru sarrera bikoitza duten familiak baztertu, emakumeek lan egin dezaten eragotzi eta diru sarrera eskaseko kolektiboak biltzea eragiten duelako eta ez duelako lortzen familiaren eta lanaren bateragarritasuna sustatzerik.

Ikastetxe publikoetan sartzeko irizpideek gizartearen errealitatearen arabera egokitu beharko lukete, eta familien errentaren gehienekoa handitu, soldatapean lan egiten duten amen seme-alabak sartzea bideratzearen. Sartzeko irizpideak zabalduko balira, eskari handiagoa izango litzateke eta, hortaz, beharrezkoa izango litzateke konpromiso erreal bat hartzea eskaintza handitzeko.

Azkenik, haurrak goiz eskolatzearen aldeko iritziak daude, lehen haurtzaroaren garapen sozio-emozional eta kognitiboaren alderako onura ugari dakarrelako, baina onura horiek zalantzazkoagoak dira urte 1 bete ez duten haurren artean. Horregatik, positiboa litzateke aitak edo amak soldatapeko aitatasun edo amatasun baja hartu ahal izatea, gaur egun amatasun bajagatik dagozkien 16 astez harago.

Haurren inguruko testuinguru honetan -0 eta 6 urte bitarteko haurren hezkuntza osoaren ezaugarriei erreparatu beharra eta 3 urte arteko haurren hezkuntzaren ezaugarriei espezifikoki erreparatu beharra-, eta familien ingurukoan -famiaren beharren eta seme-alaben hezkuntza beharren arteko orekaren alde hobekien egiten duen eredia hautatu beharra-, Iruñeko udal haur eskolen eredia izan eta garatzea garrantzi handiko erreferentzia puntua da, seguru asko, administrazio publiko guztientzat eta gurasoentzat. Izan ere, etengabe hazi eta errotzen ari da esperientzia hori, eta azken 25 urteetan barrena luzatu da.

"Haurren eskubideak berreskuratu nahi dituen hezkuntza kultura, komunitate osoak parte har dezan horietan".

Erakunde autonomotzat sortu ziren, eta barne nortasun ezberdina dute Iruñeko eta Nafarroako beste eskola batzuen antolaketaren aldean. Administrazio taxutzearen ezaugarri nabarmenetako bat da Zuzendaritza Batzordeak onartzen duela eskoletan jarraitu beharreko ildo pedagogikoa.

Ezberdintasun horren aldetik, historikoa izan zen eskola horien "ildo pedagogikoa" onartzea 1979an, eta Udal Patronatu bihurtzea 1983ko abenduan. Hezkuntza baino ez duten funtzioa ikastetxeen alderako erabakia eta hautua finkatu zuen horrek, eta arlo honetako joerarik aurreratuenak aplikatzeko asmo argia, Loris Malaguzzi zabaltzen ari zen hezkuntza proposamenak zuzenean ezagutuz; italiar pedagogoa Reggio Emiliako (Italiako) udal haur eskolen asmatzaile filosofikoa izan zen.

Urte hauetako esperientziak pedagogia eta metodologia aberats eta konplexua sortu ditu, bat-batean egiten errazak ez direnak, eta ardura profesional eta bokaziozko handia eskatzen dutenak. Besteak beste, ildo pedagogiko horren oinarriak honako printzipio hauek dira:

- Haurren irudi aberatsa: aukeraz betetako haurra, ahultasunez, pobreziaz eta ezintasunez egindako haurren irudiaren orde; jaiotzaz gerotik, errealitatearen eraikitzaile aktibo, irakurle eta gai den haurra; bere historiaren aktore eta protagonista, helduekin eta adin berekoekin elkarrekintzan aritu eta, gainera, haiengan eragin handia izateko gai den haurra.
- Berak jakintzak eraiki ditzakeen pedagogia behar duen haurra, jakintzen hartzaile pasibo huts bihurtuko ez duena.
- Eskolan barneratutako familiaren kontzeptua, eskolatik bereizitakoaren orde.
- Hala irakaslearen, nola ikaslearen bakartze indibidualistak gaindituko dituen harremanen pedagogia.

- Haurraren ehun hizkuntzen teoria, haurraren irudi aberatsa, positiboa eta trerbatua duena bere baitan.
- Entzumen aktiboa praktikatzea, haurren kultura etengabe behatu eta ikertzeko.
- Dokumentazioa, haurren ikaskuntza prozesuak irakurri eta balioesteko gakoak den heinean, eta haurren alderdi ezezaguna interpretatu eta ezagutzeko tresna.
- Sormena haur txikien garrantzizko ondarea ere badela jabetzea.
- Gunearen eta giroaren kalitatea "hizkuntza isiltzat" hartzea, ideiak, gizarteratzea, proposamenak eta ongizatea iradoki ditzakeena, eta "hirugarren hezitzaile" bihurtu daitekeena, hezkuntza bikotearekin batera.
- Antolaketa kalitateko proiektu pedagogiko baten zati erabakigarritzat hartzea, kudeaketa huts jo ordez.
- Langileen trebakuntza, hezitzaileek berek ekoizten dituzten jakintzen esku utzi nahi dena, batez ere.
- "Lantegiaren" eta "atelieristaren" presentzia, artearen, estetikaren, ikerketaren eta sormenaren inguruko interesa bermatzeko elementu berritzaile eta funtsezkoak diren heinean.
- Programazio batena baino gehiago, proiektu baten antza duen pedagogiaren kontzeptua –haurraren ezagueraren ziurgabetasuna hartzen du kontuan–, nahitaez gertatu behar duenaren xehetasunak aldeztu aurretik iragartzeko.
- Eskola atsegina bat: Malaguztiren ustez, eskola langile, sortzaile, txeratsua, dokumentatzaile eta narratzaile eta komunikatzailea da eskola atsegina; gune alaiak, ikertzeko lekua, etengabe ikasteko lekua, gogoeta eta kultura lekua, haurrak, profesionalak eta familiak daudena gustura.

Udal Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren bitartez, Iruñeko Udalak honelako bederatzik ikastetxe ditu bere gain hiriko hainbat gunetan:

Haur eskolak	Helbidea	E-posta	Tel. zkia.
HAURTZARO	Artika 1, bis	eimhartzaro@animsa.es	948 145607
ROTXAPEA	Arrotxapeko Juanito z.g.	eimrotxapea@animsa.es	948 144426
EGUNSENTI	Miravalles z.g.	eimegunsenti@animsa.es	948 146928
IZARTEGI	Marcos Goñi z.g.	eimizartegi@animsa.es	948 123817
PRINTZEAREN			
HARRESI	Blas de Laserna 61 bis	eimprintzea@animsa.es	948 247788
MILAGROSA	Irati erreka 7	eimmilagrosa@animsa.es	948 235171
DONIBANE	Ekoiengo monasterioa 1	eimdonibane@animsa.es	948 269155
MENDEBALDEA	Premín de Iruña 1	eimmendebaldea@animsa.es	948 270558
MENDILLORRI	Egulbati jaurerria 26	eimmendillorri@animsa.es	948 162567

0 eta 3 urte arteko haurren zikloa ematen dute horietan, 1990eko urriaren 3ko hezkuntzaren antolamendu orokorrari buruzko Lege Organikoak (LOGSEk) 0 eta 6 urte arteko haurren ziklo osotzat hartu zuen hezkuntza aldiaren barnean.

Patronatuko eskola guztiak eraikin independenteak dira, solairu bakarrekoak eta patio eta lorategi batez inguratuak. Honako hau da barne egitura berezia:

- Zerbitzugunea
- Sukaldea
- Garbategia
- Biltegiak
- Bulegoak eta bilera aretoa
- Haur aulkien gela
- Adierazpen lantegia

- Ikasgelen eremua: sektoreko ikasgela bat, eta honako hau du bakoitzak:
 - Bainugela
 - Lantegi txikia
 - Jangela
 - Logela

Kanpo egiturak, berriz, honako hauek ditu:

- Kanpo patioa, harrizko eremua eta belardia dituen. Haurrik txikientzako eremu berezi bat dago gunen barruan.
- Patio estalia
- Patioko biltegia

ANTOLAKETAREN EGITURA

Haurrak adinaren arabera biltzen dira Iruñeko udal eskoletan ikasturtea hasten denean, urte bakoitzeko abuztuan betiere:

TALDEAK	ADINAK	
HEZITZAILEAK (*)		
Bularrekoak	3 eta 10 hilabete bitarteko haurrak.	2
Ibiltariak	Hilabete 1 eta 19 hilabete bitarteko haurrak.	2
Ertainak	19 eta 23 hilabete bitarteko haurrak.	2
Hautzaindegia	24 hilabetetik aurrerako haurrak.	2

Litekeena da antolaketa hori eraikinaren egituraren arabera aldatzea. Aurrerago mintzatuko gara honi buruz, baina funtsezko beste datu bat hezkuntza bikotea da, ezinbesteko analisi eta eztabaida elementua baita ikasgelako jardueran eragina duten auzi guztiei dagokienez.

IRAKASLEAK ETA IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEAK

Ikasgelako edo haur sektoreko bi hezitzaile daude haur eskola bakoitzean, eta ordutegi ezberdina dute, ikastetxea zabalik dagoen ordu guztiak betetzearren. Ikastetxeko arduradun bat dago. Zerbitzuetako langileek ikastetxeko gelak, aretoak eta bulegoak garbitzen dituzte, eta janaria prestatu.

Langileei dagokienez, honako hau da eskola bateko eredu/tipoa:

IRAKASLEAK	8 HEZITZAILE IKASTETXEKO ZUZENDARI 1
IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEAK	SUKALDARI 1 SUKALDEKO LAGUNTZAILE 1 GARBIKETAKO 2 LAGUNTZAILE
LANGILEAK GUZTIRA	13

Ikastetxe bakoitzeko langileez gain, ikastetxe guztietan komunak diren lanak egiten dituen talde bat dago:

- Administrazioko langileak
- Gizarte langilea
- Adierazpen lantegien koordinatzailea
- Talde teknikoa
- Peditra
- Psikologoa
- Gerentea



1. Haurren irudia

Iruñeko udal haur eskolen proiektuaren ardatza haurren irudia bera da. Irudi horrek haurtzaroaren kultura argitu eta esplizitu bihurtzea du xede, eta ez dago bakartuta kultura eta gizakia ulertzeko modutik, harreman sistema osatzen duenez gero haiekin batera. Irudi horren ingurukoak dira plangintza, bizipen, emozio, ezaguera, elkarrekintza eta borroka guztiak, eta helburua da harremanen, entzumenaren, behaketaren eta dokumentazioaren pedagogia egitea irudi horrek eragina duen giro eta esparru arkitektoniko batean.

Irudi horrek ideia honi eusten dio, alegia, haurtzaroak estatus berezia izan behar duela, J.J. Rouseauk zioenez. Bere ustez, haurrak haur izan daitezen nahi du naturak, heldu bilaka daitezen baino lehen, eta berezkoa duten ordena naturalean bilaka eta gara daitezen; ordena horren erritmoak errespetatu behar dira, bizitzako aldi bakoitzak bere perfekzio egokia eta heldutasun mota duelako.

Era berean, Loris Malaguzziren ideiak haur eskolen proiektuaren garapenean ageri dira, batez ere, gizarteak duen haur txiro baten irudiaren –tradizioaren araberako ikuspegi laguntzailearen erroa– eta haur trebatuaren irudiaren arteko antagonismoa nabarmentzea. Iruñeko udal haur eskolen hezkuntza proiektuaren egileek gogorarazi zuten, Malaguzzi hurrek nortasuna izan zezaten tematu zen, babesik gabeko haurren irudiaren aurrez aurre erabat: “Izan ere, haur txiro, bereiztezin, eta nolakotasunik, sexurik, rolik eta historiari gabeak –paradigmatzat onartua– ezin du bere burua babestu.

Nahi duzun tokian dago, nahi duzun bezala deskribatzen duzu, edozein teoria edo aplikazio pedagogiko onartzen du, bateragarria da behar bezainbat trebatu eta ordaintzen ez dieten eta prestigio eskasa duten maisu/maistrek eta –hautespen naturala ez den arrazoiren batengatik– emakumezko hezitzaileen esku utzitako erakundeekin¹¹.

11. Ajuriaguerra neuropsikologoaren ikerketetatik erazia, Madril 1977

Iturri hori bera da ereduaren hainbat printzipioren sorburua, haur trebatuen irudia lortu nahian:

- «Lehen egitekoetako bat da nortasun historikoa ematea mendeetan gaizki tratatutako haurtzarolari, eta heldua haurraren gainean kokatzen duen larderiako kultura harroak gutxietsitako haurrari».
- «Irudi hori ez dago banatuta –ezin da egon– gizona, emakumea, bizitza eta mundua ulertzeko dugun modutik».
- «Haurraren irudia oinez ahal bezainbat ibiltzeko eskubidea eskatzen duen haurraren batasun eta osotasun irudia da».
- Haurrak nortasuna praktikaren bidez eman diezaiozun eskatzen du, «praktikak ezarri behar duelako teoriaren gaineko nagusitasuna eta praktikan dagoelako jokoan gizakiaren eta gizateriaren patua».
- «Haurraren heldutasunik eza ez da ezintasuna, hazteko aukera eta ahalmena baizik».
- "Honela hartu behar da haurra, alegia, «inguruarekin elkarrekintzan aritu eta hartu eta emateko berehalako prestasuna duen subjektutzat, eta bere ondarea garatzeko prest dagoena inguruarekin harremanetan dagoen artean; eta hautatu eta hautuen erantzukizuna bere gain hartzen duen subjektu aktibotzat».

Haur konstruktibista

Haurra konstruktibista da: bere hezkuntzaren protagonista da, probatu, ediren, aurkitzeko premia dutelako haurrek. Ahaleginaren eta bilaketaren atseginaz eraikitzen dute; azken batean, ezagueraren atseginaz.

Haurrek batera eraikitzen dute ezaguera, hala euren artean, nola helduekin eztabaidatu eta hitz eginez. Hori da harremanen pedagogiaren definizioa. Bakardadean edo gauzeekin bakarrik aritzen ez den haurraren kontzeptua da.

Haurrek egiten dutenaren zentzua aurkitu beharra dute. Haurrak esanahia aurkitzen duenean bere kabuz, alaitasun berezia sentitzen du. Esanahiak

ekoizten ditu haurrak, hain zuzen ere, ikertzean bilatu eta aurkitzen dituen esanahiak. Zirrara horrek eragiten du hazi, ikasi, hezi... alderako grina¹².

Merkatu honetan, hurrek ikasteko aukera dute, eta besteeikiko harreman solidario eta bereizgarrian antzematen dituzten ikuspuntu elkarsubjektiboan arteko ezberdintasunen, gatazken, tirabiren eta desadostasunen bitartez eraikitzen da ikaskuntza hori.

Hartara, haur aberatsaren kontzeptua azaleratzen da, uste baino askoz ere bizkorragoa eta pentsatu baino askoz ere dohatuagoa den haurrena: «Hezi behar duen helduak ere ahalmenetan, talentutan eta trebakuntzan aberatsa izan behar duela dakar horrek, baita gizartea oraindik onartzeko prest ez dagoen gizarte aldaketa ere» (Malaguzzi, 1989).

Haur elkarreragile eta solidarioa

Trevarthenen hainbat ideiri jarraiki (1986), Malaguzzik azaldu zuen jaioberria elkarrekintzazko harremanetan jartzen dela, baita edoskitzaroan ere. Bere begiradak, begiek eta zurrupatzeko moduak txandakako erritmo sinkronizatua ezartzen dute amarekin edo biberioia ematen dion beste pertsonarekin. Haurra hainbat solaskiderekiko harreman aktiboa ezartzeko gai da. Sozializazioaren kontzeptua baino harago doa ideia hori; elkarrekintza sistemiko eta ekologikoa da, Malaguzzik uste duenez gero haurra gai dela pertsona batekiko baino gehiagorekiko lotura esanguratsuak ezartzeko jaiotzen denetik.

Malaguzzik subjektu elkarreragiletzat hartu zuen haurra hasieratik, parte hartze aktiboa duelako gainerakoen bizi mental, sozial eta afektiboan. Elkarrekintza besteen alderako errespetua da, batez ere; gugandik ezberdina den bestearen alderako errespetua. Haur elkarreragile honek amaren eta haurren arteko harreman klasikoaren kontzeptu tradizionala eteten du.

Hortaz, haurrak helduen maitasuna jasotzeko eskubidea du, segurtasuna eman, erreferentetzat balio eta maitatzen irakats diezaion. Haurra gai da, harremanetan jarri eta elkarrekintzan aritzeko gai; bere burua mundua

12. Loris Malaguzzi

eraikitzen duen bitartean eraikitzeko gai da eta, era berean, munduak eraikitzen du.

Ahalmen genetiko izugarriko haurtzaroa

Ereduaren abiapuntua da haurra aparteko ahalmen biologiko eta neuronalak dituela jaiotzen delako ustea. Potentzialtasun horiek garatu eta adierazten lagundu behar zaio, bere izaera eta heltze erritmoak errespetatuz betiere, presarik eta kitzikatze goiztiar programa desegokirik gabe.

Haurtzaro aktiboa eta parte hartzailea

Ustea dago haurrak ez duela helduen eskaeren beharrik ekiteko. Bere ikaskuntza prozesuetan parte hartze aktiboa izatea atsegin du eta bere eskumenekoak diren auzietan parte hartu eta sartzea atsegin du. Tradizioz bazter utzi duen ikuskera alde batera uzten duen haurraren irudia da. Malaguztik zioenez, haurra minduta eta deseroso dago, eta interesgarri iruditzen zaiona nahi du, maisu/maistrari interesgarri iruditzen zaionaren orde.

Haur konplexua

Haurrak konplexutasuna maite du, eta gertuko eta urruneko harreman osagarrietan jartzea fisikoki dagoen gorabeherekin. Bere aukeretan eta ahalmenetan gehiago sakonarazten duten konplexutasunek gararazten dute haurra.

Haur baikorraren irudia

Iruñeko udal haur eskolen proiektuak nabarmendu zuenez, "baikortasunik gabe ez dago hezterik. Haurrek erakusten digute alaitasunaren bidez ikas daitekeela, harriduraren, umorearen eta ironiaren bidez. Izan ere, haurrek ehunka poz dituzte abesteko, ehunka mundu amesteko, alaitasunez uler ditzaketanak; litekeena da, Aste Santuan eta Eguberrietan ez ezik, bestela ere harritzea, eta lana eta jolasa bateragarriak direla erakusten digute.

Zehaztu gabeko haur ezezaguna¹³

Malaguzziren etikaren oinarria da gizakiaren zehaztasunik ezak bere bilakaeraren beraren ziurgabetasuna adierazten duelako uste sendoa. Horrenbestez, ez da bidezkoa definizio eta praktika murriztaileen bidez, programazioen bidez edo alde bakarreko itxaropenen bidez estutzea. Ziurgabetasuna eta konplexutasuna atsegini, Malaguzzik ez zuen onartzen fase psikologikoen linealtasuna, ezta haurra kontzeptu negatiboen edo ahalmenik ezen bidez definitzea ere. Bere ustez, haurtzaroa ezin susmatuzko aukeren abentura da, etengabe alda daitekeen osotasunik ezarena.

Haur autonomia eta erantzulea

Defendatzen ari garen haurtzaroaren irudia ezin da ulertu uste gabe haurrak izugarriko ahalmen autonomoak dituela bere kabuz ikasi eta ikasten ikasteko. Alde horretatik, bere erabakiak bere gain hartzen daki. Haurrek halako erabakiei egiten diete aurre eguneroko autonomiaz eta erantzukizunez, eta bere bizitzari zentzua emateko gai da haurra.

Pedagogiaren eguneroko praktikak alderdi horiek berresten ditu, baita haurren autonomiari eta antolatze ahalmenari buruzko ikerketa guztiek ere. Alde horretatik, gure eskola askoren adierazgarri, E.I. Izartegiren ikerketak azter daitezke: "Mi cuento de fotos (Argazkien nire ipuina)" (1994-1995) eta "El Taller (Lantegia)" (1996-1997); besteak beste, helduek nekez aurreikus ditzaketen egoera ustez konplexuetan haurrek euren burua antolatze duten ahalmena ageri da.

Zirrara horrek hazi, ikasi eta hezteko grina eragiten du, eta Malaguzzi eskoletatik eta bere buruarengandik urruntzen ahalegintzen den axolagabekeria deuseztatzen du, tumore gaiztoa bailitzan.

Apustu horrek belaunaldi berrien etorkizunean itxaropena izatea dakar. Horretarako, haur eta gizaki indartsuen irudia behar dugu, euren potentzialtasunak sormenez, naturarekin bat etorri eta larderiarik gabe

13. Honako testu honetan dago oinarrituta: Hoyuelos, A., "Loris Malaguzzi. Pensamiento y obra pedagógica", *Pedagogía Koadernoak* (2001eko azaroa), 52.-57. orr.

erabiltzeko gai direnak. Hobeto erabili behar ditugu naturak berak ematen dizkigun baliabideak.

Ezaguerak euren kulturaz berriz asma ditzaketen hurrek zerikusi handia dute itxaropen horretan, "gauzak taxutu ditzaketelako, gauzek taxutu ditzaten baino lehen", eta munduaren ikuspegi berriaz ohartaraz gaitzakete. Horixe da Malaguzzik etorkizunaren nostalgiaren inguruan izan zuen ideia ospetsua; etorkizuneko malenkonía dinamiko moduko bat, izan zitekeenari baina ez denari barre egiten diona, izan litekeen arren.

Hori da Malaguzziren ziurtasun eskasetako baten abiapuntua: etorkizuna hurrekin eta euren ideiekin eta kulturarekin proiektatzeko itxaropena. Haurrak itxaroten daki eta asko espero du, eta dakiena eta jakin nahi duena esan nahi digu harritzen eta txunditzen dakienaren indarrak eta aberastasunaz. Gizateriaren itxaropena da haurra, balioak daramatzalako bere baitan eta etorkizunak eraikitzen dituelako, eta bere nortasunean errespetatzen eta balioets dezaten eskatzen du indar handiz.

HAURTZAROAREN, GIZAKIAREN ETA ESKOLAREN GAINEKO KULTURA

Iruñeko udal haur eskolen ereduak jarrera garbia du honako eztabaida pedagogiko tradizional honen inguruan:

- a. Hurrek euren kultura propioa duten, hau da, euren ideia, jokabide, sinesmen, sinbolo, balio, ohitura... propioak dituzten eta kultura hori zenbateraino erlazionatu eta nahasten den helduen kulturarekin; eraikitzen ari garen eskolak gizarte moldeak errepikatu beharko lituzkeen, kultura ekoitzi eta gizartea eraldatzeko funtsezko elementua izan beharrean.
- b. Eskolak nagusi den kultura errepikatzen duen edo, aitzitik, gizartearen eraldaketaren kultur eragilea den.

Izan ere, Iruñeko udal haur eskolen ereduak kategorikoki dio eskola ezin dela gizarte moldeak errepikatzeko gunea izan, kultura ekoizlea eta gizartea eraldatzeko funtsezko elementua baizik. Gainera, haurren kultura propio eta originalaren alde egiten du, kultura horren bidez gure kultura kutsa

dezaketelako, helduekiko harreman esanguratsuetan jarriz –larderia eta hierarkiarik gabeak–.

Printzipio adierazpen hori gorabehera, oraindik ere badago haurtzaroaren gizarte irudikapen pobrea, ez datorrena bat zientziaren, psikologiaren eta pedagogiaren aurrerapenekin¹⁴; eta adostasun handia izan arren teoriarik, bizitasun praktikoa txikia dago, oso zaila delako lehendik existitzen ziren ikuskerak, ohiturak eta aurreiritziak aldatzea.

Eredu hau bultzatu zuten irakasleen ustez, gizarte eta giza zientzien aurkikuntzek eta aurrerapenek ez dute berehalako ondorio biribilik izaten sarritan eztabaidetan eta iritzirik publikoan. "Haurra garantzi sozial gutxiago subjektutzat jotzen da oraindik, ez duelako eskubiderik bere kabuz: beste batzuek mintzatu behar dute bere izenean. Horrenbestez, helduen gaitasunak eta interpretazioak markatzen dute haurren gaitasunen arteko aldea"¹⁵.

Haurrak beste gizarte talde batekoak dira, oraindik-ez direnen taldekoak.

Casasen esanetan (2002, 33. or.), haurren gizarte irudikatzeak oraindik-ez direnen gizarte irudia egokitu die haurrei: oraindik-ez helduak, oraindik-ez erantzuleak, oraindik-ez gauza, oraindik-ez autonomoak, oraindik-ez trebatuak, oraindik-ez eskubide berekoak, oraindik-ez bereizteko gai.

Horregatik, haurtzaroa (lehen haurtzaroa, batez ere) kulturatzat hartzea ez da lehentasunezko gaia gizartean, ez dago erantzukizun kolektibotzat hartuta, eta etorkizuna dela-eta sortzen du kezka handiagoa (gazte edo heldu bihurtuko diren haurrak), oraina dela-eta baino.

Azken batean, haurren eskubideak berreskuratu nahi dituen hezkuntza kulturaz ari gara, gizarte komunitate osoak har dezan parte haietan.

14. Casas, 2002

15. Iruñeko udal haur eskolen hezkuntza proiektua

Ereduak arreta berezia –funtsezkoa ia– eman zion ikastetxea dagoen guneari eta haren barne antolamenduari, haurren eta bere garapenaren ezaugarrien arabera egokitu behar zuela baitzioen, alderantzizkoa gertatu beharrean.

Horregatik omen da hain beharrezkoa haurren irudiak, pedagogiak eta arkitekturak bat egitea: "Antzeko neurriko haur eskolak diseinatzeko dira maiz talde gutzientzat, hau da, hondartzan eta mendian asteburuetarako edo familia txiki baten opor motz batzuetarako eraikitzen diren apartamentu txikien antzeko neurriko haur eskolak. 45 metro koadroko balio lezakete horretarako, baina ez dute balio urte 1 baino gutxiagoko hamalau pertsonako taldeen etxea eta eskola izateko, edo 3 urte baino gutxiagoko 32 pertsonarenak eta dagozkien hezitzaileenak".

Idea horretan sakontzearen, hain zuzen ere, ideia horrexen ondorioz, ereduak guneari eta giroaren arteko harremanari heldu zion. Komunikazioak gure inguruan jarraitzen du, inguruak gu eraldatzen gaituelako eta geuk ere ingurunea eraldatzen dugulako bertan bizi garen heinean. Kultur indarra da, ikuspegi askotatik aztertu behar den diziplinarteko alderdia: zientifikotik, ekologikotik, politikotik, artistikotik, demografikotik, hirigintzazkotik...

Auziaren gakoa da nola bizi, hots, nola jarri gizakia eta Lurra bizi harremanetan. Hezkuntzaren ikuspegitik, auzia guneak, materialak eta aldiak antolatzea baino gehiago da. Hortaz, helburua toki bat proiektatzea da jolasteko, barre egiteko, maitatzeko, aurkitzeko, galtzeko, bizitzeko... Haur bakoitzak bere bizigunea eta fisiologia, afektibotasun, autonomia, sozializazio, mugimendu, jolas, adierazpen, esperimendazio eta aurkikunde beharren alderako erantzuna aurkituko dituen tokia proiektatzea da helburua, azken finean.

Haur eskolen eredu honen ikuspegitik, guneak inoiz ez dira neutralak. Guneari diseinu eta irtenbide zehatz bakoitzaren erroan oinarrituko duen filosofia batek hedatu behar du. Hortaz, guneari eta giroaren arteko harremana lehen mailako hezkuntza faktoretzat hartzen da haur eskola hauetan, eta horregatik zaindu behar da eta plangintza egin, orain arte azaldutakoaz gain, honako alderdi hauek islatzeko:

- Haur eskola bakoitzaren nortasuna bilatu behar du, erakundearen ereduaren estandarizazioari datxekion erredukzionismoan erori ezean.

- Haur bakoitzaren eta haur talde bakoitzaren nortasuna islatu behar du, eta euren autonomia indartu.
- Eskolako gelen arteko komunikazioa bideratu behar du, guneak malgutuz.
- Eskura dauden gune guztiak erabiltzea bultzatu behar du, haurrentzako ikastetxea osotasun globaltzat hartu eta bertan gertatzen den guztiari garrantzia emanez.
- Haur eskolaren gardentasuna eta osatzen duten eragile guztien (haurren, gurasoen, langileen eta gizartearen) arteko komunikazioa ahalbidetuko duten baliabideak bideratu behar ditu.

HEZKUNTZA BIKOTEA

Eredu pedagogikoaren barruan, "hezkuntza bikotea" elementurik esanguratsuenetako bat da, haurraren nortasuna indartzeko helburua duen adierazpen lantegiarekin batera.

Hezkuntza bikotea bi hezitzailek osatzen dute, eta haur talde baten tutore lana partekatzen dute. Jokabide horrek aberastasun handiagoa ahalbidetzen du hezitzaileen arteko harremanari (iritzi trukea, emozio, ikuspuntu, itxaropen... trukea) eta hezitzailearen eta haurren artekoari dagokienez (hautatzeko aukera handiagoa, estilo aukera...).

Antolamenduari dagokionez, lan egiteko forma askotarikoak ahalbidetzen ditu (talde handietan, talde txikietan, pertsonalizatutako arreta...), baita hezitzaile bakoitzak rol ezberdinak jokatzeko ere unean-unean (behaketa, datuak biltzea, funtzioak banatzea...).


Hezkuntza bikoteak maisu/maistra bat haur talde bakar batekin bakarrik dagoen egoera tradizionala hausten du. Hezkuntza trukatzeko auzi publikotzat hartzea esan nahi du, eta eskolan egiten den kooperatiba lanaren lehen maila da.

ZOKOAK

Zokoak "haur arkitekturarekin" eta garapen psiko-pedagogikoarekin lotutako oinarritzko alderdietako bat dira. Aniztasun elementua dira, eta lan egiteko moduak eragiten dituzte. Irekiak ala itxiak izan, zokoak ikasgelan barreatutako guneak dira, bakoitzari nortasuna ematen dioten material askotarikoak dituztenak. Sistemako elementu guztiak integratzen dira gune ludiko hauetan.

Aukeretan aberatsa den haurren irudia hartzen dute abiapuntu, eta baliagarriak dira haren nortasun propioa eta berezia definitzeko. Zokoek aniztasun handia eskaintzen dute, haur bakoitzak esanguratsuenak gertatzen zaizkion elementuak eta jarrerak hauta ditzan eta era autonomoan antola dezan bere burua, beste haur batzuekin edo helduarekin batera.

Irudikapen grafikoa egitearren, zokoa haurren nortasuna eta potentzialtasunak sortzen dituen gune elkarreragilea da:



Gune honen inguruko filosofia hori hartuta abiapuntu, honako hauek ditu oinarritzko ezaugarri:

- Zoko irekiak, gehiegi egituratu gabeak, zokoa beste gune bat bihurtzea galaraz ez dezaten.
- Bizigarritasuna: segurtasuna, berotasuna, intimitatea... transmititzea.
- Nortasuna. Beharrezkoa da irudiak eta argazkiak jartzea zokoan, gunea, materialak eta hurrak bakarka eta taldeka identifikatzeko.
- Nahitakotasuna. Materiala helbururen baterako eta ordenan jarri eta aurkeztu behar da. Material asko izateak ez du bermatzen inola ere zokoko eskaintzaren kalitatea.
- Estetika. Zokoko materialak jartzeko moduak nahitakotasun estetiko garbia izan behar du.
- Autonomia. Zokoko objektu guztiek haurraren autonomia bideratu behar dute: materialen aukeraketak, objektuen eta gunearen irisgarritasunak...
- Komunikazioa. Zokoa ez da ikasgelaren barruan bakartutako gunea; hortaz, komunikazioa izan behar da zokoarekin eta gainerako zokoekin, guneen arteko zirkuituak egitearren.
- Aniztasuna: zokoko ikusizko irudiei, gune fisikoari (zoruari eta sabaiari) eta material eta jarduera eskaintzari (banaka, talde txikietan eta talde handietan) dagokienez.
- Konplexutasuna. Beharrezkoa da zokoko eskaintza ez dadin bakuna izan, ñabarduretan eta aukeretan aberatsa baizik. Alde horretatik, garrantzitsua da material aberatsak erabiltzea, merkatuko ohikoen ezberdinak; material bizi eta errealak, hurrak etengabeko ikusmina izan dezan.

TALDEKAKO ARRETAREN ANTOLAKETA

Azkenik, merezi du Iruñeko udal haur eskoletako haurren antolamendua nabarmentzea, hainbat motatako taldeetan banatzen baitira. Horretarako, funtsezkoa da aurrez aipatutako hezkuntza bikotearen sistema, erantzukizuna

bere gain hartzen duen hezkuntza bikote bana baitago talde bakoitzean (hiru hezitzaile daude integrazioa dagoen taldeetan).

Eskoletako zuzendariak aldian-aldian eta noizbehinka lagundu eta lantegien koordinatzaileek proiektu jakinetan parte hartzearekin batera, taldeko bi hezitzaile izateak antolaketaren malgutasuna ahalbidetzen du eta, horri esker, hurrei talde txikiko, ertaineko, handiko eta nahasiko lanak eskaini ahal zaizkie.

Talde handiko proposamenak ikasgelan egiten dira, oro har, eta bi hezitzaileek eta hurrek hartzen dute parte. Biribilki proposamenak edo jolas zokoak izan ohi dira.

Talde txikiko proposamenetan, berriz, hezitzaile batek eta lau, bost edo sei hurrek, esate baterako, jolas heuristikoa edo altxorren saskia egiten dute adierazpen lantegian, edo eskolan gertatzen ari den auziren bat ikertu. Halaber, hezitzaile batek hurreak komunera aldatzera edo esfinterrak kontrolatzera eramaten dituenean komunera edo eskuak garbitzen dituztenean jazotzen dira proposamen horiek.

Talde ertaineko proposamenak hezitzaile batek ikasgelako taldearen erdiari proposamen zehatzak egiten dizkionean izaten dira, hala nola, ikasgelako lanak, puzzleak, ahokatzeak...

Talde nahasiko proposamenak adin ezberdinetako hurreak nahasita daudenak dira. Hainbat proiektutan, interesgarria da adin ezberdineko nesken eta mutilen arteko harremana behatu eta bideratzea.

KALITATEKO HAUR ESKOLAREN ALDERAKO GIZARTEAREN ESKAERA

Hainbat kolektibo¹⁶ 0 eta 3 urte bitarteko aldiko haur hezkuntza arauz garatzeko eskatzen aritu da duela zenbait urtez geroztik. Abiapuntua kalitatearen alderako apustua eta haurren eskubideak aintzat hartzea eta lehentasuna proiektuaren hezkuntza ezaugarriak izateko eskatzen dute, bazterketa saihestu eta haurtzaindegiek emandako zerbitzuaren izaera laguntzaile huts eta tradizionala gainditzearen.

Gizartearen eskaera horren alderdi ekonomikoak –udalen ahalmen ekonomikoaren araberrako ekarpenak, familientzako laguntzak...– edo gaztelaniazko eta euskarazko irakaskuntzarako toki eskasia baino harago, eskaera nagusia Foru Gobernuak arautu beharreko ereduaren hezkuntza alderdien ingurukoa da. Alde horretatik, planteatutako alderdi nagusiak bat datoz hein handi batean Iruñeko udal haur eskolen eredu pedagogikoaren ardatzekin:

- Ikastetxeak eskolarako baino ez erabiltzeko lokaletan kokatu, eta sarbide independentea izatea kanpoaldetik
- Unitate bakoitzeko bi metro koadroko areto bat izatea eskola postuko, 30 metro koadroko azalera duena gutxienez, eta aretoek gune bereziak izatea haurrek atseden hartu eta jateko, eta haurren higienarako eta komunetarako
- Eskolan kontsumitzen diren elikagaiak prestatzeko sukaldea izatea
- 30 metro koadroko areto balioaniztuna izatea
- Ikastetxeak 100 metro koadroko azalera baino azalera handiagoa duen bere patioa izatea
- Patioko materiala gordetzeko areto bat izatea

16. Federación de Asociaciones de Padres y Madres del Alumnado de Navarra/Nafarroako Ikasleen Guraso

Elkarteetako Federazioa "Herrikoa"

- Langileentzako komun osoa izatea
- Bulegoa eta bilera gela izatea
- Haur aulkiak eta kotxeak gordetzeko aretoa izatea
- Haurrak Artatzeko Europako Batzordeko Sarearen gomendioen araberrako ratioak izatea, haurrentzako zerbitzuen kalitate helburuen bitartez:
 - o 12 hilabetetik beherako haurrentzako lau tokiko heldu bat izatea
 - o 12 eta 23 hilabete arteko haurrentzako sei tokiko heldu bat izatea
 - o 24 eta 35 hilabete arteko haurrentzako zortzi tokiko heldu bat izatea
 - o Sukaldaria izatea
 - o 25 ikasleko sukaldeko/garbiketako laguntzailea izatea
 - o Hezitzaileen tituluak hezkuntzaren alorrekoak baino ez izatea
 - o Beharrezko titulua duten beste profesional batzuk izatea, hainbat espezialitate lantzeko hezkuntzaren ikuspegitik: Arte Ederrak, Musika, Psiko-motrizitatea...
 - o Prestatu, trebatu eta familiekiko harremanetarako denbora ikastetxearen lan astea –hurrekin lanean ari ez den artean– osatzen duen denboraren hamarren bat izatea gutxienez
 - o Ratioak mantentzea, aurreikusitako eta behar bezala antolatutako ordezkapen sistema baten bitartez
 - o Gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko bideak ezartzea
 - o Ikastetxe guztiek 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako eskaintza osoa izatea.

5. GIZARTEA ETA 0
ETA 3 URTE
BITARTEKO
HAURREN
HEZKUNTZA
BEHARRAK



A. NAFARROAKO ARARTEKOAK 2001 ETA 2003 ARTEAN 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAURREN HEZKUNTZA ZIKLOARI BURUZ IZAPIDETUTAKO KEXEN ANALISIA

- APLIKATUTAKO BAREMOAREKIKO DESADOSTASUNA ETA TOKI ESKASIA

Guraso batzuek euren semea Nafarroako Gobernuaren Sanduzelai auzoko haur eskolan onar zezaten egin zuten eskaeraren ingurukoa zen kexa (154/2001/4 espedientea).

Aipatu Departamentuak erantzun zuen aurreko eskaera, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko Familia Bulegoko buruaren eta Familia eta Gizarte Zerbitzu saileko zuzendariordearen 2001eko uztailaren 19ko txosten baten bitartez, eta honako hau jakinarazi zigun planteatutako kexaren gainean:

- "2001-2002 ikasturterako tokiak esleitzeko erabilitako baremoa Gizarte Ongizateko Nafarroako Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen 2000ko urtarrilaren 26ko Akordioaren bitartez; hain zuzen ere, delako erakunde autonomoaren haur eskoletan sartzeko baremoa onartu zuen Akordioak (erantsita).
- 2001-2002 ikasturterako eskaerak aurkezteko epea martxoaren 5etik 30era artekoa izan zen.
- Arrazoi hau dela-eta eman ziren hamar puntuak lortzearen, aitaren eta amaren lana justifikatzeko eskatu zen sinestamendua eskaera epearen aurreko azken hilabeteko bien soldata orria izan zen.
- Eskatzaileak ez zuen halakorik aurkeztu, berak sinatutako dokumentu bat baizik, irailean kontratatu behar zutela zioena.
- Azkenik, jakinarazi beharra dago 2000. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak xedatu zuela Nafarroako Gobernuak nabarmen emendatu behar zuela 2000-2001 ikasturterako tokien eskaintza publikoa, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak artatzeko.

Nafarroako Gobernuak aurreikusi zuen haur hezkuntzako ikastetxeak Foru Komunitatearen esparruan hedatzea hiru urteko epean, honako egutegi honi jarraiki:

- 1. 2000-2001 ikasturtea: Nafarroako Gobernuak antzemandako gizartearen beharrekina bat, lehentasunezkoztat jotako udalerrietan ezartzea.*
- 2. 2001-2002 ikasturtea: Iruñean eta Tuteran ezartzea.*
- 3. 2002-2003 ikasturtea: Komunitate osoan barrena hedatzea".*

Adierazi zaigunez, zegoen eskaerari erantzutearren, 2000. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legearen 21. xedapen gehigarriak xedatu zuen Nafarroako Gobernuak nabarmen emendatu behar zuela 2000-2001 ikasturterako tokien eskaintza publikoa tokiko erakundeekiko hitzarmenen bitartez, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak artatzeko. Helburua zen legegintzaldiaren amaieran heltzea hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko Lege Organikoak auzi horren inguruan egin zituen eskakizunei.

Xedapen horrekina bat, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeen erregimena arautuko duen Foru Dekretua indarrean sartzen ez den artean, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak arautu zituen tokiko erakundeekiko hitzarmenak sinatzeko oinarriak, erakundeek sustatutako haur hezkuntzako ikastetxeak abiatu eta hornitzeko.

Ebazpen horren azalpenean, txostenean adierazitako ezarpen aurreikuspenen antzekoak zeuden, nahiz eta aurreikuspen horiek benetan gauzatzea tokiko erakundeek ezarpena eskatu eta beharrezko lankidetzak hitzarmenak sinatzearen arabera izango zen hein handi batean.

Hortaz, ildo horri jarraitu behar zitzaion, hasiera batean markatutako helburua lortzeko, alegia, ziklo hau gure Komunitatean hedatzea. Planteatu zitzaigunaren antzeko egoerak saihestuko lituzke horrek, eta gaur egun dagoen gizarte eskaerari erantzungo lioke, orduan genituen baliabideak ez baitziren nahikoa erantzuna emateko.

Aurrekoari kalterik egin ezean, Administrazioaren ahaleginek ildo horretatik jo behar dutela uste dugula adierazi dugun arren, beharrezkotzat jotzen dugu egun erabiltzen den baremoari buruzko iruzkin labur bat egitea, kexa idazkiak zalantzan jarri zuenez gero.

Hezkuntzarako eskubidea arautu zuen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoko 20.2. eta 53. artikuluek xedatu zuten honako hauek izan behar zutela ikasleak ikastetxeetan onartzeko lehentasunezko irizpideak, hain zuzen ere, ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatzearen: famili unitatearen urteko errentak, etxetiko hurbiltasuna eta haurrak anaia-arrebak izatea ikastetxean matrikulatuta, toki nahikorik ez bazegoen.

Hartara, nahiz eta famili unitatearen urteko errentaren inguruko irizpidea hainbatetan eztabaidatu den, uste dugu aintzat hartu behar dela kasu hauetan. Alde horretatik, Konstituzio Auzitegiak irizpidea ezartzearen aldeko iritzia emateko aukera izan zuen, 77/85 Epaiazen bitartez. Auzitegi Gorenaren 5 zenbakiko salak ere aztertu zuen auzia, 1987ko abenduaren 9ko Epaiazen bitartez, eta honako hau adierazi zuen Bigarren Oinarrian LODEko 20.2. artikuluko xedapenari buruz:

"Iragar dezakegu inola ere ez gatzela bat delako lege aginduari egotzi nahi zaion konstituzionaltasunik ezaren narrioarekin. Famili unitatearen urteko errenten araberrako lehentasunaren helburu nagusia da errentarik txikiak dituzten familien alde egitea. Aurreko hori argi eta garbi egonik, ez da beharrezkoa Legeak esplizitu bihurtzea, eta 1960ko abenduaren 15eko Konbentzioa bultzatu zuen printzipioari erantzuten dio.

Lehentasun hori, Konstituzioko testuaren urratzailea baino gehiago –hain zuzen ere, 14. artikulua debekatu egiten du bazterketa eta tratu berdintasuna funts publikoez mantendutako irakaskuntzaren esparruan, baliabide ekonomiko eskasagoak dituztenen alde egin beharzagatik–, leiala da 9.2. artikuluko aginduaren aldera. Gogorarazi beharra dago 9.2. artikulua botere publikoen esku –hortaz, baita botere legegilearen esku ere– utzi zuela norbanakoaren (eta barneratzen den taldeen) askatasuna eta berdintasuna errealak eta benetakoak izateko baldintzak sustatzea, erabatekoak izan daitezten saihestu edo galarazten duten eragozpenak kenduz. Berdintasun hori nekez lor liteke legegileak ez balu aintzat hartu faktore sozio-ekonomikoa funts publikoez mantendutako irakaskuntzan sartzeko irizpideen artean, baita neutraltasun jarrera hartu izan balu ere, bateraezina dena Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoarekin; izan

ere, estatu horren Arau Goreneko 1. artikulua, besteak beste, berdintasunaren alde egin zuen, antolamendu juridikoaren goi balioztat”.

2001-2002 ikasturterako tokiak esleitzeko onartutako baremoari erreparatzen badiogu, ohartuko gara hezkuntzarako eskubidea arautu zuen Lege Organikoko 20.2. artikuluan aipatutako gainerako irizpideak islatzen zirela: etxetiko hurbiltasuna eta matrikulatutako anaia-arrebak izatea. Famili unitatearen urteko errentaren inguruko irizpide hori falta zen baina, hala ere, Iruñeko Udalak ezarritako baremoak bertako haur eskoletan erabiltzen zuen, aurrez aipatutako biez eta beste batzuez gain, hala nola, familiaren lan egoeraz, familiaren osakeraz eta salbuespenezko egoerez gain. Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuak ezarritako baremoan ere ageri ziren horiek.

Iruñeko Udalaren baremoan jazotzen zen gorabehera horri dagokionez, uste dugu familia bakoitzaren errealitate ekonomikoa erarik bidezkoenean balioestea ahalbidetzen zuen kontzeptua zerabilela, per capita errenta neurtzea hartzen baitzuen aintzat, famili unitatearen errenta balioztatzeko.

Horren guztiaren ondorioz, batetik, GOMENDIOA egin genion Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, beharrezko ekinbideak eta neurriak har zitzan orduan auzia arautzen zuten xedapenen eta alde horretatik Nafarroan zeuden aurreikuspenen esparruan, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak artatzeko toki eskaintza publikoa emendatzeko. Horretarako, tokiko erakundeekiko beharrezko hitzarmenak eta itunak ezartzea bultzatu behar zuen behar hori antzematen zen udalerrietan.

Bestetik, orduan Nafarroako Gobernuaren haurtzaindegietan edo haur eskoletan sartzeko erabiltzen zen baremoari dagokionez, IRADOKIZUNA egin genion delako Departamentuari, baremoa berriro aztertu eta famili unitatearen errenta aintzat har zezan ordutik aurrera, aurrez aipatu ditugun arrazoiak direla eta.

Gomendioa dela-eta, adierazi ziguten beharrezko ekinbideak egiten ari zirela ordurako 0 eta 3 urte bitarteko haurrak artatzeko tokien eskaintza publikoa emendatzeko, tokiko erakundeekiko beharrezko hitzarmenak bultzatuz horretarako.

Irakokizuna dela-eta, berriz, 2002-2003 ikasturtean aplikatu beharreko baremo berri bat lantzen ari zirela jakinarazi ziguten, besteak beste, familiaren diru

sarrerak hartuko zituen kontuan, per capita errentarik txikieneko familiek puntuazio handiagoa lor zezaten.

- NAFARROAKO 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO ZIKLOAREN BARNE DESADOSTASUNA

Nafarroako Gobernuak taxututako hainbat alderdiren arteko desadostasuna planteatu ziguten kasu honetan (02/356/B espedientean). Hain zuzen ere, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenaren bidez taxutu zituen 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeak, tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautzarren, haur hezkuntzako ikastetxe horiek abiatu eta hornitzeko.

Planteatu zitzaigun auzia aztertzen hasi ginenean, gai horri nabarmen eragiten zion hainbat gertakari jazo zen. Batez ere, hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoa indarrean sartu izanaz ari gara. Izan ere, aipatu zitzaigun hezkuntza zikloari zegokionez, hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko hainbat xedapen aldatu zuten.

Hartara, besteak beste, xedatu zuten eskolaurreko hezkuntzak, 3 urtera arteko haurrentzakoak, "hezitzaile-laguntzailea" izan behar zuela, eta "araudi espezifikoa" izan behar zuela (7.2. artikulua). Era berean, xedatu zuenez, "Gobernuak aldi honetako hezkuntzako alderdien inguruan xedatzen duen oinarrizko araudiarekin bat, autonomia komunitateei dagokie hezkuntza aldi honetako haurren arreta antolatu eta arreta hori ematen duten ikastetxeek eta erakundeek bete beharreko baldintzak ezartzea. Gainera, egoki jotzen dituzten ikuskapen eta kontrol prozedurak ezarri behar dituzte" (10.2. artikulua).

Langileei dagokienez, honako hau zioen: "Eskolaurreko hezkuntza adin honetako haurrak egokiro artatzeko behar bezalako prestakuntza duten profesionalek eman behar dute" (10.3. artikulua).

Aurrekoaz gain, otsail honetako lehendabiziko egunetan honako honen berri izan genuen, alegia, Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroak Kalitatearen Legearen egutegia eta hura garatzeko lehenengo dekretuen proiektuak aurkeztu zituela. Eskolaurreko hezkuntza dela-eta, 2004-2005 ikasturterako

xedatu zuten abian jartzea. Hala ere, autonomia komunitateei eta Estatu Kontseiluari galdegin behar zaie euren iritzia testu horiek onartu baino lehen.

Aurreko guztia azaltzearen helburua da nabarmentzea kexa idazkian aurkeztu ziguten auziari nabarmen eragingo diotela ezinbestean bai lehen argitutako legegintza aldaketek, bai Estatuak 10/2002 Lege Organikoko xedapenak betetzeko ebatziko dituen garapen arauak.

Are gehiago, Legeko bigarren xedapen iragankorrak epe bat finkatzea ere xedatu zuen, ezarri beharreko gutxienerako baldintzen arabera egokitu zitezten orduan abian ziren baina haur hezkuntzako ikastetxe izateko baimena ez zuten 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeak.

Horrenbestez, Arartekoak esparru honetan egin beharreko edozein ekinbide Estatuak oinarrizko garapen araudia behin betiko onartzearen mende zegoen une horretan. Oinarrizko araudi hori abiapuntu hartuta, autonomia komunitateek ere hel diezaiokete eskolaurreko hezkuntza arautu, maila hori antolatu, eta estatu mailako araudi horren gaineko baldintza egokiak ezartzeari; legegileak eta betearazleak, berriz, esparru honetan esku hartzeko lehentasuna dute norberari dagozkion eskumenen esparruan.

Hortaz, araudia hain berrikitan aldatzeak ekarri duen egoera dela-eta, uste dugu ez dela komeni auzi honen inguruko inolako informazio eskaerarik egitea oraingoz Nafarroako Gobernuari, hasiera batean halakorik egiteko asmoa baguen ere. Izan ere, oinarrizko garapen arauak maila honi eragingo dioten baldintzak definitu behar dituzte lehenik; orduan eskatuko genioke Nafarroako Gobernuari informazioa emateko aurkeztu ziguten kexa idazkiak planteatutako alderdien eta beste batzuen inguruan.

Horregatik guztiagatik, jakinarazi behar dugu kexa hori ezin dugula izapidetzeko onartu oraingoz, idatzita dagoen moduan, bederen. Izan ere, Arartekoak auzi honen inguruan egin beharreko edozein ekinbidek xedatutako garapen araudia onartzearen mende egon behar du.

• TOKI ESKASIA

Kexa (175/2002/4 espediente) Iruñeko Udalaren Arrotxapea auzoko haur eskolan bi semeentzako toki eskaera ukatu izanari buruzkoa zen.

Udalaren lehenengo informazioaren arabera, "haur eskolen zerbitzuan jasotako eskaerei aplikatu beharreko baremoa erantsi dizugu. Kasu honetan baremo hori aplikatu da eta, Iruñeko beste herritar askok bezala, ez duzu lortu gure eskoletan tokia izaterik (bai, ordea, Nafarroako Gobernuaren Santa Teresa haur eskolan)".

Udalak abuztuaren 30ean igorri zuen eskatutako informazioa baina, igorritako datuak ikusirik, informazioa zabaltzeko eskatu genion. Datu gehigarri horiek 2002ko urriaren 14an jaso zituen Arartekoak, eta jarraian transkribatu ditugu:

«Haur eskoletako toki eskasia dela-eta, haurrak haur eskoletan baremoko "beste irizpideak" atala aplikatuz sartzea ohiz kanpokoa da. Iritziaren arabera, familiartereko egoera zinez larrietan aplikatzen da atal hori, batez ere, haurrak behar bezalako arreta izango ez duela aurreikusten denean. Kasu honetan, haur eskoletan sartzeko indarrean dagoen baremo orokorra aplikatu zen, eta zegozkien puntuak eman zitzaizkien familia ugaria, bikiak eta abar izateagatik. Izan ere, egoera ez zen ohiz kanpokotzat hartzekoa, eta pentsatzekoa zen haurrek arreta egokia izango zutela, udal haur eskoletan tokirik izan ez arren».

Hori dela-eta, Iruñeko Udala ohartarazi genuen kexak planteatu zuen arazo handiagoaren inguruan –Arartekoari igorritako txostenak esplizituki onartu zuen–, hau da, udal haurtzaindegietako tokien eta bertan sartzeko eskatzen duten haurren arteko egokitasunik ezaren inguruan. Egoera horrek toki eskaintzaren eta herritarren behar errearen arteko korrelazio eskasa nabarmentzen du, eta Administrazioak erreakzionatu egin beharko luke, gizartearen eskaerari erantzutearren.

Administrazioak eskainitakoaren eta gizarteak alor honetan benetan eskatzen duenaren arteko egokitasunik eza hori hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ikuspegitik ebatzi behar da. 10/2002 Legeak eskolaurreko hezkuntzan behar adinako toki eskaintza bermatzeko eskatu zion Administrazioari, seme-alabek irakaskuntza hori izan zezaten nahi zuten gurasoek etxetik gertu zeuden ikastetxeetan sartu ahal izan zitzaten.

Horrexegatik, oso kalitate handiko haur eskolak ezartzen aitzindaria izanik, Iruñeko Udalak ildo horretan jarraitu beharko luke, eta zein behar erreal dauden

zehatz-mehatz aztertu, baita zein behar izango den ziur asko ere. Lortutako datuen kariatara, ikastetxe horietako eskaintza emendatu beharko da Iruñeko hainbat gunetan, hain zuzen ere, gero eta haur gehiago dituzten eta, batik bat, epe laburrean hirigintza aldetik haziko direla aurreikusten den gunetan. Helburua da behar bezala erantzutea alor honetan aurreikusten diren beharrei.

Aurrez azaldutako guztia dela-eta, IRADOKIZUNA egin genion Iruñeko Udalari, beharrezko ekinbideak eta neurriak har zitzan orduan auzia arautzen zuten xedapenen eta alde horretatik Nafarroan zeuden aurreikuspenen esparruan, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak artatzeko toki eskaintza publikoa emendatzeko behar hori antzematen zen inguruetan.

Iradokizuna onartu zutela jakinarazi ziguten, eta Arrotxapea auzoan haur eskola berri bat abiatu behar zutela; gainera, beste bi eskola omen zeuden pentsatuta Mendillorri eta Azpilagañan. Bestalde, haur eskolak lanaldi murrizturako –lauzpabost orduz– abiatzeko aukera aztertzen ari zirela adierazi ziguten, beste ikastetxe batzuetako lokalak egokituz.

• EGUNSENTI IKASTETXEKO FUNTZIONAMENDU BALDINTZAK

Haur hezkuntzako 0 eta 3 urte bitarteko ziklorako Egunsenti ikastetxean zegoen gehiegizko masifikazioa salatu zuten (238/2002/4 espedientea), ikastetxe hori Iruñeko Udalaren mendean dagoenez gero.

Udalak jakinarazi zigunez, "udal haur eskoletako haurren eta hezitzaileen kopuruaren arteko ratioak eta guneez Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak xedatutakoa betetzen dute; tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautu zituen Ebazpenaren bidez, erakundeek sustatutako haur hezkuntzako ikastetxeak abiatu eta hornitzeko, eta haurren eta hezitzaileen kopuruaren arteko ratioa eta izan beharreko guneak xedatu zituen II. eranskinean".

Informazio hori zabaldu zuten geroago, eta honako hau adierazi ziguten:

"1.a Delako haur eskolako hezitzaileen zerrenda zuzendari/arduradun batek, lanaldi osoko zortzi hezitzailek eta lanaldi laburreko laguntza hezitzaile batek osatzen dute, eta 82 haur dituzte euren gain. Haurrok

adinaren arabera daude banatuta lau gelatan (hamalau bularreko, hamasei ibiltari, hogeitain eta haurtzaindegiko 32), eta gela bakoitzak bi hezitzaile ditu.

2.a Hezitzaile horiek indarrean dagoen legediak aztertutako hezkuntza funtzioak egiten dituzte funtsean, haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo, sozial eta moral egokia lortzeko: programazio lanak, gurasoak informatzea, haurren higiene pertsonala, haurrak elikatu eta lotaratztea, material pedagogikoa antolatu eta garbitzea eta Zuzendaritzak kalitateko haur hezkuntza lortzeko agindutako lanak".

Kexa eragin zuen unean indarrean zegoen araudiarekin bat, kontuan izan behar da 0 eta 3 urte bitarteko aldia haur hezkuntzaren barruan zegoela, hain zuzen ere, haur hezkuntzak barnean hartzen zituen bi zikloetako lehenaren barruan –LOGSEko 7.-12. artikulua–. Egoera hori hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak aldatu zuen nolabait, hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko hainbat xedapenen landu baitzuen alor honetan.

Aurrekoari eta delako lege testuak beharrezkoa duen arauzko garapenari kalterik egin ezean, halako ikastetxeetarako ezarritako baldintzei dagokienez, LOGSEtik eratorritako araudia bera aztertzeak hainbat parametro ematen du ondoriotzat, eta parametro horiek kexa idazkian planteatutako auzia analizatzeko baliagarriak dira.

Esate baterako, ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuak erregimen orokorreko irakaskuntza ematen duten eta unibertsitateak ez diren ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak xedatu zituen, eta haur hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeek funtzionatzeko gutxieneko baldintzak aztertu zituen.

Kexa eragin zuen gaian jartzen badugu arreta, alegia, Egunsenti ikastetxeko haurrak artatzeko hezitzaileen kopuruan, ohartuko gara lanaldi osoko zortzi hezitzaile eta lanaldi laburreko laguntza hezitzaile bat daudela, zuzendariak gain. Bina daude adinaren arabera banatutako ikasgela bakoitzean, eta ratio hori bat dator aipatu Errege Dekretuko 15.1. artikulua ziklo honetarako ezarritako ratioarekin, baita Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak ezarritakoarekin ere; Ebazpenak adin tarte batzuetako unitateko haur kopurua murriztu ere egin

zuen bestearen aldean (1/12 urte 1 eta 2 arteko haurren unitateetarako, eta 1/16 2 eta 3 urte arteko haurren unitateetarako).

Gainera, ikasgelako bi hezitzaile izateak profesional horien lana garatzeari funtzionaltasun handiagoa dakarkiola iruditzen zaigu eta, batik bat, haurren arreta egokiari, 1004/1991 Errege Dekretuko 13.1. artikuluko xedapenak baino harago. Eskola unitateko haur kopuruari buruzkoak dira xedapen horiek eta, oro har, bete egiten dira.

Horretan guztian oinarrituta, ez genuen uste beharrezkoa zenik inolako oharrik egitea Iruñeko Udalarri kexa eragin zuen auziaren inguruan, ez baikenuen antzeman arlo honetako inongo araudirik bete ez zenik. Gainera, erakunde hori duela hainbat urtez geroztik haur eskolen sarea sendotzeko egiten ari den ahalegina eskertu behar da, eredugarritzat jo baita alde ugariatik. Nolanahi ere, egungo egoera ikusirik, zerbitzu honen alorrean dagoen eskaera gero eta handiagoaren arabera egokitzen ahalegindu beharko du, eskainitako ikastetxe eta toki kopuruari dagokienez.

- TOKI ESKASIA

Honako hau planteatu zuten kexa idazkiaren bitartez (02/267/E espedientearen bitartez), alegia, alaba ez zutela onartu eskatutako haur eskola publikoan, batez ere, zegoen eskaerari erantzuteko behar adina tokirik ezagatik.

Iruñeko haur eskola publikoetako tokiei eta Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenaren esparruan formalizatutako hitzarmen kopuruari buruzko informazioa eskatu zen. Halaber, hitzarmen horien egoeraren inguruko informazioa galdegin zen, baita ikastetxe berriak abian jartzeko epeen eta ikastetxe horiek eskainiko zituzten tokien inguruko aurreikuspenak ere.

Departamentuak 2003ko urtarrilaren 30ean igorri zuen informazio hori, eta adierazi zuen Iruñeko haur eskola publikoetan zegoen toki kopurua 1.107koa zela orotara; 2002-2003 ikasturterako aurkeztutako eskaerak, berriz, 1.284 izan ziren. Zerbitzu hori ematen duten Nafarroako udalerrien gaineko hainbat taula erantsi zuen, baita hurrengo ikasturterako aurreikuspenak ere. Aurreikuspen horiek hainbat udalekiko hitzarmenen bidez gauzatu nahi ziren, 3086/2001 Ebazpenaren esparruan.

ABIAN DAUDEN IKASTETXEAK ETA HITZARMENAK DITUZTEN UDALAK (0-3 URTE)

Udalerria	Unitate kopurua	Haur kopurua	Ordutegi mota	Hezitzaileak	NNEEtako unitateak	Hizkuntza ereduak
ABLITAS	3	35	7	4		gaztelania
ALTSASU	4	48	6	5		euskara
ALESBES	2	28	7	3		gaztelania
ANTSOAIN	8	81	7	9		4 gaztelania 3 euskara
ARANGUREN						
ATARRABIA	12	107	7	13		6 euskara 6 gaztelania
AZAGRA	3	38	4 eta 7	5	u 1	gaztelania
AZKOIEN	5	63	7	6		gaztelania
BARAÑAIN	6		7	9	u 1	2 euskara 4 gaztelania
BERRIOZAR	9	112	4 eta 7	11	u 1	4 euskara 5 gaztelania
BUÑUEL	2	27	7	3		gaztelania
CABANILLAS	1	17	6	3	u 1	gaztelania
CASCANTE	3	42	7	4		gaztelania
CASTEJON	2	28	7	3		gaztelania
CINTRUENIGO	6	72	7	7		gaztelania
ELIZONDO	3	40	4 eta 7	4		euskara
GARES	2	28	7	3		gaztelania
HARANA	6	60	4 eta 7	7		3 gaztelania 3 euskara
IRUNBERRI	2	16	4 eta 7	3		gaztelania
IRUÑA	8	91	7	9	u 1	gaztelania
IRUÑA	10	117	7	11	u 1	gaztelania
IRUÑA	4	32	7	5		gaztelania
IRUÑA	10	121	7	11		gaztelania
IRUÑA	8	91	7	9		gaztelania
IRUÑA	8	91	7	9	u 1	gaztelania
IRUÑA	10	114	7	11	u 1	gaztelania
IRUÑA	8	91	7	9		euskara
IRUÑA	4	49	7	5		gaztelania
LARRAGA	3	40	4	4		gaztelania
LODOSA	2	28	7	3		gaztelania
ORKOIEN	5	52	4 eta 7	6		2 euskara 3 gaztelania
SAN ADRIAN	5	62	7	7	u 1	gaztelania
TUTERA	10	103	7	12	u 1	gaztelania
UHARTE-IRU.	3	41	4 eta 7	4		euskara
VALTIERRA	1	11	6	3	u 1	gaztelania
VIANA	2	20	4 eta 7	3		gaztelania
ZIZUR NAGUSIA	6	72	7	7		3 euskara 3 gaztelania
GUZTIRA	186	2068		230		

NAFARROAKO GOBERNUAREN IKASTETXEAK

Udalerrria	Unitate kopurua	Haur kopurua	Ordelegi mota	Hezitzaileak	NNEEtako unitateak	Hizkuntza eredia
NINIA ETXEA (Iruña)	6	76	7	9	2 u	gaztelania
LOS ANGELES (Iruña)	6	58	7	7		gaztelania
RONCESVALLES (Iruña)	6	50	7	7	u 1	gaztelania
SAN JORGE (Iruña)	7	71	7	10	2 u	gaztelania
SANTA TERESA (Iruña)	6	58	7	8	u 1	gaztelania
EGUNSENTI (Iruña)	8	80	7	10	u 1	gaztelania
NIÑO JESÚS (Corella)		7	74	7	8	gaztelania
LIZARRA (Estella)	7	71	7	9	u 1	gaztelania
GUZTIRA	53	538		68		

JARDUNEAN DAUDEN IKASTETXEAK DIRUZ LAGUNDUAK HITZARMENA
EGITEKO DUTENAK

MENDABIA 2 23 6 2 2003 gaztelania

GUZTIRA 2 23 2

EGUNGO TOKIEN KOPURUA, GUZTIRA 2.629

HITZARMENA 2003AN AURREIKUSIA DUTEN UDALAK

Udalerria	Unitate kopurua	Haur kopurua	Ordutegi mota	Hezitzaileak	NNEEtako unitateak	Hizkuntza eredia
ANDOSILLA	3	36			ira. 03	
AGOITZ	3	36		4	ira. 03	
ARGUEDAS	2	28			ira. 03	
AURIZPERRI (AUÑAMENDI)	2	28			ira. 03	
BERA	4	45		5	ira. 03	euskara
BETELU	1	14			urt. 03	
CORTES	3	36		4	urt. 03	gaztelania
FUNES	3	30		4	urt. 03	gaztelania
HARANA	2	28		3	mar. 03	euskara
LIZARRA	6	72			urt. 03	
LEKUNBERRI	3	36		4	ira. 03	2 euskara 1 gaztelania
OLTZA					ira. 03	
ZANGOZA	6	72			ira. 03	
ZARRAKAZTELU	3	36			ira. 03	
SARTAGUDA	1	14		2	urt. 03	gaztelania
ULTZAMA						
	42	511				

0 ETA 3 URTE ARTEKO HAURRENTZAKO IKASTETXEEN PROIEKTUAK EGITEN ARI DIREN UDALAK

Ikastetxea eta udalerria	Unitate kopurua	Haur kopurua	Ordutegi mota	Hezitzaileak	NNEEtako unitateak	Hizkuntza eredia
ARTAXOA	2	26		2	2004	gaztelania
EGUES	6	72			aurreikuspenik ez	
ERRIBERRI	4	45			aurreikuspenik ez	
LAKUNTZA	2	28			aurreikuspenik ez	
TAFALLA	10	124			ira. 04	
	24	295				

Iruñeko Udalak, berriz, honako informazio hau igorri zigun 2002ko urriaren 14an:

«1.0 eta 3 urte bitarteko zikloko hamalau haur eskola publiko daude Iruñean gaur egun. Horietako bost Nafarroako Gobernuaren mendean

daude, eta beste bederatzia, oster, Udalarenak dira. 1.016 toki daude orotara.

- 2. 1.284 eskaera aurkeztu dituzte ikasturte honetarako, eta horietako 363 udal haur eskoletan onartu dira, eta 164, berriz, Nafarroako Gobernuaren eskoletan.*
- 3. Iragarrita dago datorren ikasturtean haur eskola berri bat abiatuko dela Arrotxapea auzoan, eta Azpilagaña auzoan beste haur eskola bat eraikitzeko proiektua aginduta dago. Bestalde, lanaldi murriztuko haur eskolak –lauzpabost orduz– abiatzeko aukera aztergai dago, beste ikastetxe batzuetako lokalak egokituz».*

Departamentuak igorritako txostenak aipatutako ikastetxe bat ere ez dago Iruñean edo Iruñerrian. Hortaz, aurreikustekoa den toki eskaintzaren emendatzeak ez du inongo eraginik izango inguru horretan; hain zuzen ere, eskaeren eta dauden tokien arteko egungo desorekarik handiena bertan dagoela antzeman da. Alde horretatik, Udalaren txostenak dio ikastetxe berri bat abiatuko dela Arrotxapea auzoan baina, nolana ere, ez dirudi arazoa modu esanguratsuan konponduko duenik, gaur egun dagoen eskaera handia dela-eta. Halaber, argi dago ez dela konponduko, Azpilagaña auzorako pentsatutako ikastetxea 2004-2005 ikasturtea hasi baino lehen eraiki eta abian jartzen badute ere.

Hori dela-eta, Hezkuntza eta Kultura Departamentua –alor honetako eskumena du– eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua ohartarazi genituen berri ere, baita Iruñeko Udala ere, kexa idazkiaren bitartez planteatu ziguten arazoaren inguruan –Arartekoari igorritako txostenek esplizituki onartu zuten–, hau da, haurtzaindegi publikoetako tokien eta bertan sartzeko eskatzen duten haurren arteko egokitasunik ezaren inguruan.

Administrazioak eskainitakoaren eta gizarteak alor honetan benetan eskatzen duenaren arteko egokitasunik eza hori hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ikuspegitik ebatzi behar da. 10/2002 Legeak eskolaurreko hezkuntzan behar adinako toki eskaintza bermatzeko eskatu zion Administrazioari, seme-alabek irakaskuntza hori izan zezaten nahi zuten gurasoek etxetik gertu dauden ikastetxeetan sartu ahal izan zituzaten.

Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak ildo horretan jarraitu beharko lukete, dauden behar errealei erantzutearren, baita ziur asko izango diren beharrei erantzutearren ere. Horrenbestez, ikastetxe horietako eskaintza emendatu beharko dute Iruñeko hainbat gunetan, hain zuzen ere, gero eta haur gehiago dituzten eta, batik bat, epe laburrean hirigintza aldetik haziko direla aurreikusten den gunetan. Helburua da behar bezala erantzutea alor honetan aurreikusten diren beharrei. Halaber, aurretiaz jokatu behar dute, eskolaurreko hezkuntza ezartzeko egutegia bete eta 2004-2005 ikasturtean behar bezainbat ikastetxe izatea bermatzeko. Alde horretatik, iruditzen zaigu Udalak egindako aurreikuspenak, Arrotxapea auzoan ikastetxe berri bat abiatu eta Azpilagaña auzorako proiektu bat onartzeko, ez direla nahikoak izango herritarren behar errealei erantzuteko.

Aurrez azaldutakoaren ondorioz, GOMENDIOA egin genien Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura, eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria departamentuei, baita Iruñeko Udalari ere, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak artatzeko toki eskaintza publikoa emendatzeko beharrezko ekinbideak egin eta gurasoek seme-alaben irakaskuntzarako duten eskubidea berma zitzaten.

2003ko maiatzaren 22an jaso genuen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren erantzuna, eta aurrez aipatutako espedienteen planteatu genion gomendioa onartu zuela jakinarazi zigun. Halaber, ekainaren 22an Iruñeko Udalaren erantzuna jaso genuen, eta ildo berean jo zuen. Idazki horrek zioenez, haur eskola berri bat abiatu behar zuten Arrotxapea auzoan, eta beste bi omen zeuden pentsatuta Mendillorri eta Azpilagañan. Bestalde, lanaldi murriztuko haur eskolak –lauzprobost orduz– abiatzeko aukera aztertzen ari zirela adierazi zigun, beste ikastetxe batzuetako lokalak egokituz.

- BAREMOA APLIKATZEA ETA TOKI ESKASIA ANTZOAINEN

Antsoaingo guraso talde batek 0 eta 3 urte arteko haurrentzako zikloan toki bat lortzeko ezintasuna planteatu zuen bi espediente hauen bidez (03/120/E eta 03/121/E espedienteen bidez). Batetik, Antsoainen dagoen toki eskasiaren ondorio izan zen hori eta, bestetik, Gizarte Ongizate Departamentuak 2003-2004 ikasturtean ezarri zuen murrizketarena, alegia, Iruñetik kanpo erroldatutakoek murrizketak dituztelako tokia lortzeko Nafarroako Gobernuaren Iruñeko udal eskoletan.

Antsoaingo toki eskasiari dagokionez, gurasoek Antsoaingo Udalak ez zituela alor honetako zerbitzuak eta ekinbideak aurreikusi salatu zuten euren idazkiaren bitartez.

Hartara, lan egiteko euren eskubidea eta seme-alabek euren adinaren araberako hezkuntza eta arreta izateko duten eskubidea erabiltzeko izaten dituzten zailtasunak azaldu zizkiguten idatziaren bidez. Izan ere, 2003-2004 ikasturtean Antsoaingo haur eskoletako 0 eta 3 urte arteko ziklotik kanpo gelditu ziren haurren zerrenda onartutakoena baino hiru aldiz luzeagoa zen. Hasiera batean nabarmendu dugunez, egoera hori larriagoa da Hezkuntza Departamentuak 2003-2004 ikasturtean ezarri zuen murrizketa kontuan hartuz gero, alegia, Iruñetik kanpo erroldatutakoek tokia lortzeko dituzten murrizketak Nafarroako Gobernuaren mendeko Iruñeko udal eskoletan.

Auzi hau dela-eta, azaldu ziguten lehen urtea zela Iruñerriko udalerriren batean erroldatutako herritarrek ezin zutena Iruñean erroldatutako baldintza beretan aurkeztu Nafarroako Gobernuaren mendeko Iruñeko haur eskoletako 0 eta 3 urte bitarteko zikloko tokien esleipena ordenatzeko ezarritako onarpen prozedurara.

Uste zuten Nafarroako Gobernuak baztertu egiten zituela Iruñean erroldatuta ez zeuden haurrak. Argitu zigutenez, murrizketak zituzten Gobernuaren mendeko Iruñeko haur eskoletan sartzeko, Antsoainen bizitze hutsagatik, nahiz eta eskolaren eta Antsoaingo euren etxearen arteko distantzia erreala motzagoa den kasu batzuetan, eskolaren eta Iruñean bizi diren beste haur batzuen etxearen artean izan litekeena baino. Erroldatze lekuaren ondorioz tratu ezberdina izatea justifikatuta egon liteke Iruñeko Udalaren mendeko 0 eta 3 urte arteko zikloko tokien kasuan; ez, ordea, Gobernuaren mendeko tokien kasuan.

Aurkeztutako bi kexa idazkiak aztertu ondoren, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin bat, Antsoaingo Udalera eta Gizarte Ongizate Departamentura jo genuen, jarduteko genituen aukera zehatzak mugatu eta planteatutako auzien gainean informa gintzaten.

Idatzi bat igorri genion Antsoaingo Udalari 2003ko uztailaren 28an, hain zuzen ere, planteatutako hezkuntza beharrei erantzuten ahalegintzeko ekinbideen inguruan egindako xedapenei buruz informatzeko eskatzearren. Gizarte Ongizate Departamentuari, berriz, Nafarroako Gobernuaren mendeko 0 eta 3 urte bitarteko zikloko tokiak eskuratzen izan zitezkeen balizko bazterketa

ez ezik, horren azpiko arazo orokorrak ere kontuan hartuz –Arartekoaren aurrean aurretik aurkeztutako kexa idazkien bitartez ere planteatu dituzte haur eskoletan tokia lortzeko zailtasunak, egun daudenen eskasia dela-eta–, honako auzi hauen inguruan informa gintzan eskatu genion:

- 1.a Kexa idazkiaren bitartez planteatutako uste zehatzari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren mendeko Iruñeko haur eskoletan sartzeko baremoa aplikatzen zen moduaren eta, batez ere, kexaren egileek aipatutako erroldatzearen inguruko auziaren inguruan, Antsoainen bitzuegatik baztertzen zituztela adierazi zuten gero. Baremo hori Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuaren Zuzendaritza Batzordearen 2000ko urtarrilaren 26ko Akordioak xedatu zuen
- 2.a Bestetik, halako kexen bitartez planteatzen diren arazo orokorrei dagokionez, gustatuko litzaiguke Departamentuak 2003ko urtarrilaren 27an Arartekoari eman zion informazioa osatu edo eguneratu eta orduz geroztik sinatutako hitzarmenak eta urte honetarako eta datozen ekitaldietarako aurreikuspenak adieraztea; informazio hori ematea 02/267/B kexa espedientearen ondorio izan zen, hain zuzen ere, tokiko erakundeekin sinatutako hitzarmenei buruzko espedientearen ondorio.
- 3.a Gainera, kontuan izan behar da hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko10/2002 Lege Organikoko 10.4. artikulua xedatutakoa: "Administrazio eskudunek familien artean dauden beharrei erantzun behar diete, eta eskariari erantzuteko behar adina toki eskaintzea koordinatu". Lege hori garatzearren, ekainaren 27ko 827/2003 Errege Dekretua onartu zuten, eta Errege Dekretuak Legea aplikatzeko egutegia xedatu zuen. Hortaz, kontuan izan behar da 2.2. artikulua xedatu zuela administrazio eskudunek 2004-2005 ikasturtean ekingo ziotela eskolaurreko hezkuntza ezartzeari. Hori guztia dela-eta, interesgarria da Nafarroako Gobernuak alor honetan jarduteko dituen aurreikuspenen berri izatea, hala araudia garatzeari dagokionez, nola delako lege testuko erabakiak betetzeari dagokionez.

Antsoaingo Udalak gure informazio eskaera erantzun zuen, eta honako hau adierazi zigun:

"Alkatetza honek jakinarazi nahi dizu hezkuntza zerbitzua ez dagoela udalek eman behar dituzten zerbitzuen artean, norberari dagokion

autonomia komunitateak bestelakorik erabakitzen duenean izan ezik. Jakingo duzunez, Foru Komunitateko Administrazioari dagokio Nafarroan.

Aurrez azaldutakoa gorabehera, Udal honek haurtzaindegi bat sortu zuen 1979. urtean, haur eskola izena duena gaur egun. Ikasturteko 80 eta 100 haur artean artatu ditu urte hauetan guztietan, eta horrek defizit handiak eragin dizkio udal diru kutxari, nahiz eta ez zuen zerbitzu hau emateko inongo eginbiderik, aurreko paragrafoan azaldu dugunez.

Alegia, ez da inolako "erantzun egokirik ezarik", kexa idazkiaren bidez baieztatu dutenez; aitzitik, guztiz kontrako egoera jazotzen da: nahitaezkoa ez den zerbitzu bat ematen ari gara, eta udalerrri honetako biztanle guztiak egin behar diote aurre horrek eragindako defizitari. Halaber, Udalak ez du "planteatutako hezkuntza beharrei erantzun egokia emateko ekinbideen inguruko aurreikuspenik", eskumen hori ez dagokiolako berari eta ezin duelako, beharrezko baliabideak ematen ez dizkioten artean, Arartekoaren aurrean kexa aurkeztu duten gizon-emakumeek eskatutako zerbitzua bere gain hartzeko. Antsoingo haur eskolako tokirik ezak gurasoei eragiten dien ezinegona eta kezka larria sentitzen duen arren, Alkatetza honek uste du Arartekoaren aurrean aurkeztutako kexak ez duela inolako lege oinarririk eta, hortaz, atzera bota behar dela erabat".

Halaber, Gizarte Ongizate Departamentuak ere erantzun zituen planteatu genizkion auziak, egindako informazio eskaera errepikatu ostean. Hain zuzen ere, kexa idazkiak auzitan jarritako arazoetan jarriko dugu arreta, txosten honetako beste atal batean heldu baitiogu Departamentuak emandako gainerako datuak aztertzeari.

Hartara, Gizarte Ongizate Departamentuak honako hau erantzun zigun:

"Lehenengo puntuan planteatutako auziari dagokionez, hau da, eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeetako tokiak esleitzeko baremoa aplikatzeko moduari dagokionez, nabarmendu beharra dago Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutua eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeak ezartzen ari dela pixkana-pixkana Nafarroako Foru Komunitatean. Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatzeko

oinarriak onartu zituen, 0 eta 3 urte bitarteko aldirako haur hezkuntzako ikastetxeak abiatu eta hornitzeko".

Ebazpenaren I. eta II. eranskinek Institutuaren eta tokiko erakundeen arteko lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko oinarriak jaso zituzten, baita hitzarmenak sinatzeko baldintzak ere. I. eranskineko 2. puntuak zioenez, berriz, lankidetzak hitzarmenen oinarritzko edukiak ikastetxeen antolaketaren eta funtzionamenduaren inguruko irizpideen aipamena egin behar zuen, besteak beste.

Bestalde, eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeen erregimena arautu zuen Foru Dekretuaren zirriborroko 37. artikulua xedatu zituen ikastetxeetako tokiak esleitzeko baremoak barnean hartu behar zituen faktoreak.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutua udalerriri bakoitzean aplikatzen den baremoa jasotzen ari da lankidetzak hitzarmenetan. Onartzeko dagoen araudirik ezean, orientabideak ematen ari zaizkie ikastetxe berri guztiei, funtzionamendu irizpide komunak ezartzearen Komunitate osoan.

Halako lankidetzak hitzarmen bat sinatu da Iruñeko Udalarekin. Iruñeko herritarrek eskaerak aurkeztea bideratu eta prozesua argitzearen, bi administrazioen mendeko ikastetxeetako tokien eskaintza bateratzea onartu zen. Deialdi bateratuak ikastetxe guztiak zonaz zona elkartzeko dakar, baita baremo bera ere.

Iruñeko bertako eskaerari erantzun ondoren, Iruñetik kanpoko eskatzaileek tokia lortu ahal izango zutela xedatu zen 2003-2004 ikasturterako deialdirako. Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen Ebazpena erantsi dugu, txostena onartu zuena, baita bi eranskin ere: baremoaren eta zona banaketaren ingurukoak.

Horrenbestez, egia da baremoa aldatu dela ikasturte honetan, baina kontuan izan behar da gainerako udalerriek ere euren baremoak dituztela, eta bertan erroldatuta ez daudenek murrizketak dituztela tokia izateko.

Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuak ikastetxe publiko guztiak laguntzen ditu hitzarmenen bidez, eta guraso guztiek antzeko baremoak dituzte bertan sartzeko, baita tarifa sistema bera ere".

Kexa idazkiaren egileek planteatutako bi auziak bereiz aztertzeak honako ohar hauek egin genitzan eragin zuen:

1.a Lehenik eta behin, "Antsoaingo Udalak zerbitzuak eta ekinbideak aurreikusi ez izanari" dagokionez, interesdunek salatutako 0 eta 3 urte bitarteko zikloko toki eskasia dela-eta.

Ikasturte honetan ziklo honetarako tokirik gabe gelditu diren Antsoaingo haurren kopurua 102koa da. Udalak nabarmendu duenez, nahiz eta haur eskolak edo eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeak sortzeko eskumena Nafarroako Gobernuari dagokion berez, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautu zituen, erakundeek sustatutako haur hezkuntzako ikastetxeak abiatu eta hornitzeko. Azken batean, eginkizun erabakigarria eman zien horrek tokiko erakundeei, Arartekoak aurrez izapidetu dituen espedientei esker nabarmendu ahal izan dugunez, aukera hori gauzatzea tokiko erakundeek ikastetxe berriak ezartzeko eskatu eta beharrezko lankidetzak hitzarmenak sinatzearen arabera izango zelako hein handi batean.

Norberaren udal esparruko beharrak antzeman ostean, tokiko erakundeei egotzi zitzairen ekimena 3086/2001 Ebazpenaren 3. puntuak islatu zuen, honako hau xedatu baitzuen: "0 eta 3 bitarteko aldirako haur hezkuntzako ikastetxeak ezartzearren, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuarekiko hitzarmenak sinatzeko interesa duten tokiko erakundeek Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko Familia Sailera jo behar dute eskari bitartez".

2.a Aparteko arreta merezi du planteatutako bigarren auziak: Gizarte Ongizate Departamentuak 2003-2004 ikasturtean ezarri zuen murrizketak, alegia, Iruñetik kanpo errolatutakoek murrizketak izatea tokia lortzeko Nafarroako Gobernuaren Iruñeko udal eskoletan.

Departamentuak bere txostenaren bitartez adierazi zigunez, Iruñeko 0 eta 3 urte bitarteko zikloko tokien inguruko deialdia bateratu zen 2003-2004 ikasturtean, hala Udalaren mendeko ikastetxeetako tokien ingurukoa, nola Gobernuaren mendeko ikastetxeetako tokien ingurukoa. Halaber, zonakako banaketa egin zen, baita baremo komun bat ezarri ere, Iruñeko herritarrek eskaerak aurkeztea bideratu eta aukeraketa prozesua argitzearen. Tokiak esleitzeko lehentasun ordena ezartzeko aplikatu beharreko baremoa funtsezko irizpide hauen arabera izango zen: gurasoen lan egoeraren, errenta mailaren,

familiaren osaeraren, etxetiko edo gurasoen lantokitiko hurbiltasun geografikoaren eta gizarte beharreko hainbat egoerari erantzuten dion beste zenbait irizpideren arabera. Hala eta guztiz ere, aurretiko beste lehentasun irizpide bat ezarri zen baremoa aplikatzeko: "Eskaera osoari erantzuteko tokiak esleitu ostean, bete gabeko tokiak badaude erantzun behar zaie Iruñetik kanpoko eskaerei".

Aurreko guztia zehaztuz gero, gerta litekeena da, Gobernuaren mendeko Iruñeko ikastetxe batean tokia eskuratu nahi izanik, baremoak ezarritako irizpideak zorrozki aplikatu eta Iruñerriko udalerriren batean erroldatutako haur batek puntu gehiago izatea Iruñean erroldatutako haur batek baino, onartutako zona banaketarekin bat, ikastetxea dagoen inguruan bizi bada. Edonola ere, baliteke jaramonik ere ez egitea bere eskaerari, Iruñean bertan aurkeztutako eskaeren bitartez betetzen badira tokiak.

Aurrekoarekin bat, honako hau baieztatu liteke, alegia, ezarritako neurri berriak Iruñean erroldatutakoen alde egin eta haiei on egiten diela baldintza beretan –bizilekutiko distantzia bera, errenta bera, familiaren osaera bera...– eta, hortaz, baztertzaila dela erroldatuta ez daudenen aldera. Gainera, Iruñean erroldatutakoek tokia lortzeko halako lehentasuna dute, erroldatuta ez daudenek ezin dute tokirik lortu. Horren guztiaren abiapuntua dira Iruñeak eta Iruñerriak ezaugarri dituzten kokaleku geografikoaren berezitasunak eta, hortaz, tokia eskuratzeko interesa dutenak berdintasun egoeran aurkeztea, egoera horrek eragina duen arren.

Interesgarria da Konstituzio Auzitegiak berdintasunerako eskubidea mugatu zuen modua gogoraraztea, doktrina horrek duen esangura berezia dela-eta, planteatutako kasura aldatuz gero. Hartara, honako hau adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak: "Herritarrek berdintasunezko tratua izateko duten eskubide subjektiboak eskubide hori errespetatzera behartu eta lerratzen ditu botere publikoak, eta egoera bereko kasuak modu berean trata daitezzen behar du, ondorio juridikoak direla-eta. Horrenbestez, euren arteko ezberdintasunak ezartzeko, ezberdintasunak behar adina justifikatuta egon behar du, oinarritutakoa eta zentzuzkoa dela adierazteko, oro har onartutako irizpideekin eta balio iritziekin bat. Halaber, ezberdintasunak eragindako ondorioak ezin dira neurritz kanpokoak izan; aitzitik, ezinbestekoa da ezberdintasunak eragindako ondorioak proportziodunak izatea lortu nahi den helburuaren aldera, emaitzak garestiegiak edo gehiegizkoak izan daitezzen saihestearren",

Honela jarraitu zuen Konstituzio Auzitegiak: "Berdintasuna harremanezkoa da, eta nahitaezko honako aurrebaldintza hauek behar ditu: batetik, auzitan jarritako neurriaren ondorioz, tratu ezberdintasuna ezarri izana taldeen edo pertsona kategorien artean; bestetik, erkatu nahi diren egoera subjektiboak homogeneoak edo parekatzeko modukoak izatea berez, hau da, konparazioa ez gertatzea arbitrarioa edo apetatsua. Bi aurrebaldintza horiek egiaztatu ondoren baino ezin zaio ekin tratu ezberdintasuna auzitan jartzeari, Konstituzioaren aldetiko legez kanpoko ezberdintasun edo ezberdintasun baztertzailatzat ezarritakoa" (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 20ko 119/2002 Epaia eta urriaren 4ko 200/2001 Epaia).

Nafarroako Gobernuak haur eskola bat edo eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe bat sortzen duenean Nafarroako edozein udalerritan, jakin badakigu udalerririk horretako toki eskariari erantzuten ahalegintzen ari dela, are gehiago sortutako eskola edo ikastetxea delako udalerriko bakarra baldin bada. Jorratzen ari garen kasuan, ordea, Gobernuaren mendeko Iruñeko haur eskolak izanik, azaldutako Konstituzio Auzitegiaren doktrina aplikatzeko modukoa da nabarmen, Iruñearen eta Iruñerriaren kokaleku geografikoa dela-eta. Pertsona taldeen arteko tratu ezberdintasuna ezarri zela baieztatu daiteke argi eta garbi –Iruñean erroldatutako eta Iruñerriko udalerriren batean erroldatutako artean–, pertsona horiek erroldatu diren lekua ondorioz, nahiz eta egoera subjektiboak homogeneoak edo parekatzeko modukoak diren berez (berdintasuna tokia eskuratzeko eskatutako baldintzak direla-eta: etxetiko hurbiltasuna, errenta...). Ezarritako ezberdintasunaren inguruko justifikazio oinarritutako eta zentzuzko nahikorik eza ere antzeman daiteke, baita lortu nahi zen helburuaren eta eragindako emaitzen edo ondorioen arteko proportzionaltasunik eza ere. Ez dirudi "Iruñeko herritarrek eskaerak aurkeztea bideratu eta prozesua argitzeko" helburua neurri hori hartzeko justifikazio oinarritutako eta nahikotzat har daitekeenik; halaber, eragindako emaitza, alegia, baremoa zorrozki aplikatuz gero haur eskoletan tokia lortuko luketen pertsona talde jakin batzuk aukeraketa prozesutik baztertzeko, ezin ulertuzkoa da lortu nahi zen helburuaren ondorio garestia edo gehiegizkoa ez izatea.

Gainera, honako honen berri izan genuen, alegia, 2003-2004 ikasturtean ezarritako neurri murriztailea martxoan abiatutako 2004-2005 ikasturterako aukeraketa prozesuan mantendu zutela.

Aurrez azaldutako guztiarekin bat, egokitzat jo zen Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari GOMENDIOA egitea,

Nafarroako Gobernuaren mendeko Iruñeko haur eskoletan sartzeko ezarritako baremoa berdintasun baldintza beretan aplika zekien martxoan abiatutako aukeraketa prozesuan Iruñean eta Iruñerriko udalerrietan erroldatutakoei. Hartara, Iruñerriko udalerriren batean erroldatutakoek aurkeztutako eskaeren onespena edo balioespena ez zen egongo tokiak gelditzearen mendean, Iruñean erroldatutakoek aurkeztutako toki eskaerak bete ondoren.

Maiatzaren 25ean, ostera, honako erantzun hau igorri ziguten:

"2004ko apirilaren 7ko zure idazkiari dagokionez, alegia, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari Nafarroako Gobernuaren mendeko 0 eta 3 urte bitarteko zikloko haur eskoletako tokiak esleitzeko prozesuen inguruan erantzuteko eskatu zenion idazkiari dagokionez, honako hau adierazi nahi dizut:

Honako hau izenpetu duen kontseilaria eta Hezkuntza kontseilaria Nafarroako Parlamentuko dagokion Batzordearen aurrean agertu ziren 2004ko maiatzaren 6an, bi departamentuek haur hezkuntzako ikastetxeen inguruan egindako plangintza argitzearren.

Orduko hartan, Hezkuntza kontseilariak argi eta garbi adierazi zuen Nafarroako haur hezkuntzako ikastetxe guztiak ordenatu edo arautu beharra, publikoak ala pribatuak izan, Nafarroako Gobernuarenak izan ala udalenak izan. Halaber, jakinarazi zuen prest zituela haur hezkuntzako ikastetxeen funtzionamenduari eta ikuskapenari eta eraikuntza berriei buruzko guztia arautu behar zuten Errege Dekretuen proiektuak. Hori guztia egiteko irizpide nagusia hezkuntza arlokoa izan omen zen eta, hortaz, Hezkuntza Departamentuaren eskumena zen. Nafarroako Eskola Kontseiluak balioetsi behar ditu proiektu arautzaile horiek une egokian.

Hori guztia dela-eta, ez dirudi egokia denik zure gomendioa kontuan hartzea une honetan, jatorria Hezkuntza Departamentuan duten xedapen berriak indarrean sartzen ez diren eta departamentu bakoitzaren eskumenak behar bezain mugarriztatuta ez dauden artean behinik behin. Are gehiago, aintzat hartu beharrekoa da gomendioa betetzeak dagoeneko onartu den deialdia berrikusi beharra ekarriko lukeela; izan ere, eskaerak aurkezteko epea urte honetako martxoaren 31n amaitu zen".

Jasotako erantzunaren edukia dela-eta, honako hau gogorarazi genion Gizarte Ongizate Departamentuari, alegia, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.2. artikulua honako hau xedatu zuela: "Aurreko atalak aipatutako ohartarazpenak, gomendioak, oroitarazpenak edo iradokizunak egin eta gero, nahasitako administrazio agintaritzak ez badu alor horretako neurri egokirik hartzen bi hilabeteko baino gutxiagoko epean, Arartekoak urteroko txostenean sartu behar du delako kasua. Gainera, aldeko jarrera hartu ez duten agintarien edo administrazio publikoen mendeko langileen izenak aipatu behar ditu berariaz, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak irtenbide positiboa litekeena zela uste izanik, irtenbide positibo hori lortu ez den auzietan".

Halaber, adierazi genion Departamentuari, aurrekoa gorabehera, aurkeztutako gomendioa ez onartzeak

Iruñerriko udalerrietan erroldatutako herritarren eskubideei eragindako ondorio kaltegarriak direla-eta, eta Departamentuak ez duela-eta auzitan jarri Arartekoak igorritako gomendioak transmititutako irizpidea –gomendio horren oinarria bera–, egokia zirudiela aurkeztutako gomendioa aintzat hartzea etorkizunean, hain zuzen ere, idazkian aipatutako eskumenen inguruko auziak mugarritatu ostean.

- ROTXAPEA AUZOKO HAUR ESKOLAKO HIZKUNTZA EREDUA

Udalari eskatutako informazioa jasotzeko zain gaude.

B. GURASOEN ITXAROPENAK ETA ESKAERAK 0 ETA 3 URTE ARTEKO HEZKUNTZA DELA-ETA

Honako txosten berezi hau egitearren, Arartekoaren aurrean planteatutako kexen orientabidezko osagarritzat, lan bilera bat egin zen ikasleen gurasoekin; horietako batzuek 0 eta 3 urte bitarteko haur hezkuntzari buruzko kexa idazkiak izenpetu zituzten.

Honako txosten hau osatzearren, lan saio kualitatibo horren helburua nahasitako herritarren iritziak biltzea zela ohartarazi zitzaien alde zurratik parte hartu zuten pertsonei.

Adin tarte horretako seme-alaben hezkuntza ulertzeko gurasoen modua jorratu genuen hasiera batean, alegia, hezkuntza alderdiak izan behar ote zuen nagusi laguntza alderdiaren gainean, alderdi horri ematen zioten garrantzia, ikastetxeak kudeatzeko modua, hizkuntza kontuak... Bertaratutako guztiek argi eta garbi adierazi zuten euren lehentasuna zela euren seme-alabak ikastetxe horietan sartu ahal izatea. Horretarako, toki kopurua nahikoa izan zedin eta toki kopuru nahikoa izatea Administrazioaren betebeharra izan zedin eskatu zuten; ez, ordea, gurasoena, ez baitzuten oso garrantzizkotzat jo ziklo horrek nahitaezkoa izan behar zuen ala ez.

Bizi diren udalerrian dituzten arazoak aipatu zituzten; izan ere, Iruñearen inguruko beste udalerrri asko bezala, biztanle kopurua bikoiztu egin da azken urteetan. Gainera, familia eta lana bateratzeko laguntzak eta bestelako etekinak eskuratzeko ezarritako baldintzak hobetu beharra azaldu zuten lehenik eta behin, eta ezarritako etekin jakinen bat eskuratzeko sarritan izaten dituzten arazoak nabarmendu zituzten, norberaren enpresak alor honetan izaten dituen jarreraren eta eragozpenen ondorioz.

Logikoa zenez, gurasoek nahiago zuten hezkuntza alderdia izatea nagusi laguntza alderdia baino gehiago, ziklo hau taxutzeko garaian. Hala eta guztiz ere, bigarren mailako auzitzat zuten, eskoletan toki kopuru nahikoa izan beharra dela-eta. Nolanahi ere, hezkuntza ereduari dagokionez –gaztelaniazkoa, euskarazko eta gaztelaniazko elebiduna edo bestelakoak–, argi zegoen euskarazkoa nahiago zutela ingelesezkoa baino, hizkuntzaren bat aukeratu behar bazuten. Ildo horretan, 2 urteko haurrak euskal hizkuntzan barneratzearen gaineko hainbat esperientzia positiboren inguruko aipamena

egin zuten, eta horrek D eredia aukeratzen dutenentzat zekarren aurrerapena aipatu zuten.

Euren ustez, lehen hezkuntzako aldi honetako arretaren finantzazioa partekatu egin liteke, nahiz eta uste zuten neurrizko kopuruak izan behar zutela, euren errenta mailaren arabekoak; nolana ere, uste zuten beka eta laguntza sistema bat ezarri beharko litzatekeela, pertsonen lamen ekonomikoak ikastetxe horietan sartzea eragotziko ez zuela bermatzearen.

Alde horretatik, baremoek familia erabiltzaile bakoitzak hilabetean ordaindu beharreko kopurua zehaztu beharko lukete euren ustez; orduan, ordea, beste helburu bat zutela uste zuten: "Familia batzuk alde batera uzteko balio dute bakarrik, seme-alabak onartzen dizkieten beste familia batzuen mesedetan"

Euren ustez, ikastetxeen kudeaketak publikoa izan behar zuen, eta Administrazioak berak hartu behar zuen bere gain. Kudeaketa pribatua zen edo emakiden bidez zeharka kudeatzen zen kasuetan, berriz, uste zuten ekonomia arlokoak baino ez ziren eta kostuak murrizteko xedea zuten interesak zirela nagusi, eta kontuan hartu behar zirela horrek langileen, soldaten, motibazio profesionalen... alorrean eta ikastetxeen funtzionamenduan eragiten zituen ondorioak.

2 urteko haurrak orduan existitzen ziren ikastetxeetan eskolatzeko aukera planteatu zen, baina adierazi zuten ez zutela uste aukera horrek zeuden arazo orokorrak konponduko zituenik, nahiz eta ez luketen alde batera utziko, arazoa arintzen lagun zezakeen heinean.

Azkenik, euren hiriko hainbat gorabehera zehatzagori buruzko aipamena egin zuten, hala nola, iaz 80 eta 85 haur berri artean erroldatu izanari buruz udalerrian. Horrek garrantzi handia du dagoen eskaera handiaren eta Administrazioaren eskaintza urriaren inguruko arazoa larritzea dela-eta, are gehiago kontuan izanez gero Udalaren mendeko ikastetxeak 80 haurrentzako tokia duela, eta horietako 40 bat eskaintzen dituela urtero.

Alde horretatik, salatu zuten administrazio eskudunek aurreikuspen gabeziaz jokatu zutela hirigintza lanei ekiten; izan ere, ez omen zituzten behar bezala aurreikusi inguru berri horietara jotzen zuten pertsonak beharko zituzten zerbitzuak eta hornidurak.

Etorkinek 0 eta 3 urte bitarteko haur hezkuntzako toki eskaintzaren alde horretatik izan lezaketen eraginari dagokionez, ez omen zuten antzeman aparteko eskaririk haien artean; aitzitik, etorkinek garrantzi handia dute azkenean haurtzaindegietan edo haur eskoletan onartzen ez dituzten familien seme-alabak zaintzen. Batez ere, emakumezko etorkin gazteak jarduten dira lan horretan, diru kopuru eskasen trukean, eta haur horien zaintzan etengabeko aldaketak izan daitezten eragiten dute, lan horretan aritzeari uzten baitiote beste lan bat aurkitzen dutenean soldata hobe baten trukean.

KALITATEKO HAUR ESKOLA BATEN ALDERAKO GIZARTEAREN ESKAERA

Hainbat kolektibo¹⁶ 0 eta 3 urte bitarteko aldiko haur hezkuntza arauz garatzeko eskatzen aritu dira duela zenbait urtez geroztik. Abiapuntua kalitatearen alderako apustua eta haurren eskubideak aintzat hartzea, eta lehentasuna proiektuaren hezkuntza ezaugarriak izateko eskatzen dute, bazterketa saihestu eta haurtzaindegiek emandako zerbitzuaren izaera laguntzaile huts eta tradizionala gaingitzearren.

Gizartearen eskaera horren alderdi ekonomikoak –udalen ahalmen ekonomikoaren araberrako ekarpenak, familientzako laguntzak...– edo gaztelaniazko eta euskarazko irakaskuntzarako toki eskasia baino harago, eskaera nagusia Foru Gobernuak arautu beharreko ereduaren hezkuntza alderdien ingurukoa da. Alde horretatik, planteatutako alderdi nagusiak bat datoz hein handi batean Iruñeko udal haur eskolen eredu pedagogikoaren ardatzekin:

- Ikastetxeak eskolarako baino ez erabiltzeko lokaletan kokatzea, eta sarbide independentea izatea kanpoaldetik
- Unitate bakoitzeko bi metro koadroko areto bat izatea eskola postuko, 30 metro koadroko azalera duena gutxienez, eta aretoek gune bereziak izatea haurrek atseden hartu eta jateko, eta haurren higienarako eta komunetarako
- Eskolan kontsumitzen diren elikagaiak prestatzeko sukaldea izatea
- 30 metro koadroko areto balioaniztun bat izatea
- Ikastetxeak 100 metro koadroko azalera baino azalera handiagoa duen bere patioa izatea

- Patioko materiala gordetzeko areto bat izatea
- Langileentzako komun oso bat izatea
- Bulegoa eta bilera gela izatea
- Haur aulkiak eta kotxeak gordetzeko aretoa izatea
- Haurrak Artatzeko Europako Batzordeko Sarearen gomendioen araberako ratioak izatea, haurrentzako zerbitzuen kalitate helburuen bitartez:
 - 12 hilabetetik beherako haurrentzako lau tokiko heldu bat izatea
 - 12 eta 23 hilabete arteko haurrentzako sei tokiko heldu bat izatea
 - 24 eta 35 hilabete arteko haurrentzako zortzi tokiko heldu bat izatea
 - Sukaldari bat izatea
 - 25 ikasleko sukaldeko/garbiketako laguntzaile bat izatea
 - Hezitzaileen tituluak hezkuntzaren alorrekoak baino ez izatea
 - Beharrezko titulua duten beste profesional batzuk izatea, hainbat espezialitate garatzeko hezkuntzaren ikuspegitik: Arte Ederrak, Musika, Psiko-motrizitatea...
 - Prestatu, trebatu eta familiekiko harremanetarako denbora ikastetxearen lan astea –hurrekin lanean ari ez den artean– osatzen duen denboraren hamarren bat izatea gutxienez

- Ratioak mantentzea aurreikusitako eta behar bezala antolatutako ordezkapen sistema baten bitartez
- Gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko bideak ezartzea
- Ikastetxe guztiek 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako eskaintza osoa izatea

C. 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HEZKUNTZA ARTATZEKO BALIABIDEAK ETA BALIABIDE HORIEN EZAUGARRIAK (FORU GOBERNUAK EMANDAKO INFORMAZIOA)

"Nafarroako Parlamentuko Sozialistak" taldeak Foru Gobernuari egindako galderak erantzun nahian, Foru Gobernuak erantzun bana eman zien garai hartan Foru Komunitatean 0 eta 3 urte bitarteko lehen hezkuntzaren beharrei erantzuteko zeuden baliabideen inguruko galderei. Informazio hori¹⁷ errepikatu dugu, alde honetatik daukagun eguneratuena den heinean, baliabide horien inguruko irudi ahalik eta hurbilekoena lortzarren.

- 2003-2004 ikasturtean Gizarte Ongizate Departamentuak finantzatutako Nafarroako Gobernuaren Haur Eskolen Sareko ikastetxeen kopurua eta izena.
- Ikastetxe horien kokalekua.

Nafarroako Gobernuak zortzi ikastetxe ditu bere gain: bost Iruñean eta bana Burlatan, Lizarran eta Corellan.

HAUR ESKOLA	HELBIDEA	UDALERRIA
Ninia-Etxea	González Tablas z.g. (Ensanche)	Iruñea
Ntra. Sra. de los Ángeles	Descalzos 2 (Casco Viejo)	Iruñea
Ntra. Sra. de Roncesvalles	Urdániz multzoa z.g. (Echavacoiz)	Iruñea
San Jorge	Repáraz doktorea z.g. (San Jorge)	Iruñea
Santa Teresa	Laguntzako Andre Maria z.g. (Chantrea)	Iruñea
Egusenti	San Francisco, z.g.	Burlata
Niño Jesús	Avda. del Villar z.g.	Corella
Lizarra	Cordeleros z.g.	Lizarra

- 2003-2004 ikasturtean bakoitzean eskolatutako 0 eta 3 urte bitarteko haur kopurua eta mailakako zehaztapena.

2003-2004 ikasturtean 576 haur eskolatu zituzten. Honako taula honetan zehaztu ditugu datuak, mailaka eta ikastetxeka banatuta:

SEKTOREAK	Niño Jesús	Izarra	Equnsenti	Santa Teresa	San Jorge	Los Ángeles	Roncesvalles	Ninia Etxea	Guztira
2 eta 3 urte	60	30	54	37	47	28	26	49	331
Urte 1 eta 2	25	23	16	15	18	16	11	33	157
0 eta urte 1	14	12	14	7	14	14	13		88
Guztira	99	65	84	59	79	58	50	82	576

- 2003-2004 ikasturtean abian zeuden udalen mendeko ikastetxe kopurua eta haur eskolen izena (Lan Ministerioak eskualdatu zizkien, Nafarroako Gobernuaren bitartez).

Lan Ministerioak hiru lan haurtzaindegi eskualdatu zituen, 922/1986 Errege Dekretuarekin bat. Horietako bi Milagrosa eta San José Obrero ziren. Milagrosa Iruñeko Udalarari eskualdatu zion berehala. San José Obrero, berriz, Artzapezpikutzak kudeatzen zuen, eta birmoldatu eta handitu egin zuten; Udalak laguntzen du diruz 2002-2003 ikasturteaz geroztik.

- Kokalekua.

Milagrosa haur eskola Iruñean dago, eta San José Obrero, berriz, Orkoienen.

- 2003–2004 ikasturtean eskolatutako 0 eta 3 urte bitarteko haur kopurua eta mailakako zehaztapena.

Ikastetxea	Udala	0-1 haurrak	1-2 haurrak	2-3 haurrak
CEPM Ostadar	Orkoien	6	29	37
La Milagrosa	Iruña	28	0	0

- Udalak diruz lagundutako Nafarroako Gobernuaren Haur Eskolen Sareko ikastetxeen kopurua eta izena.
- Ikastetxeen kokalekua.

Haur eskola hauek eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe izena dute gaur egun, Iruñeko Udalarenak dira eta erakunde autonomo batek kudeatzen ditu. Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuarekiko hitzarmen bati esker, diru laguntzak jasotzen dituzte, erakunde horretako zuzendari gerentearen 3086/2001 Ebazpenarekin bat.

Iruñeko Udalak bederatzi haur eskola ditu:

HAUR ESKOLA	HELBIDEA
Mendebaldea	Premin de Iruña 1 (Mendebaldea)
Donibane	Ekoiengo monasterioa 1 (Donibane)
Milagrosa	Irati erreka 7 (Milagrosa)
Printzearen Harresia	Blas de Laserna 61 bis (Milagrosa)
Rotxapea	Arrotxapeko Juanito z.g. (Arrotxapea)
Haurtzaro	Artika 1 bis (Arrotxapea)
Mendillorri	Egulbati jaurerria 26 (Mendillorri)
Egusenti	Miravalles z.g. (Orvina)
Izartegi	Marco Goñi z.g. (Txantrea)

- 2003–2004 ikasturtean bakoitzean eskolatutako 0 eta 3 urte bitarteko haur kopurua eta mailakako zehaztapena.

2003–2004 ikasturtean 686 haur eskolatu zituzten. Honako taula honetan zehaztu ditugu datuak, mailaka eta ikastetxeka banatuta:

	SEKTOREAK			GUZTIRA
	Urte 2-3	Urte 1-2	Urte 0-1	
Donibane	56	32	14	102
Mendebaldea	44	24	14	82
Printzearen Harresia	56	30	0	86
Milagrosa	0	0	28	28
Hurtzaro	44	24	14	82
Rotxapea	44	24	14	82
Izartegi	28	16	0	44
Egunsenti	44	24	14	82
Mendillorri	52	32	14	98
Guztira	368	206	112	686

- Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako 3 urtetik beherako haurrentzako unitate kopurua, Administrazioak edo Guraso Elkarateak kontratatutako irakasledunak.

Foru Komunitateko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan ez dago 3 urtetik beherako haurrentzako unitaterik, Administrazioak kontratatutako irakasleak dituenik.

Tafallako "Marques de la Real Defensa" ikastetxe publikoan bada 2 urteko 25 hurreko talde bat, Guraso Elkarateak kudeatutakoa.

- Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuak finantzatutako hartzaindegi pribatuen kopurua, lan hartzaindegi deritzenena.

Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuak diruz lagundutako lan hartzaindegi bakarra dago, "Nuestra Señora de los Dolores" izenekoa.

- Hartzaindegiaren kokalekua.

Mendabia.

- 2003-2004 ikasturtean eskolatutako 0 eta 3 urte bitarteko haur kopurua.

2 urteko bi talde dituzte, eta 32 haur guztira.

- **Baimenik gabe 3 urtetik beherako haurrak eskolatzen dituzten ikastetxeetako matrikula eta kopurua.**

Honako hauek dira 3 urtetik beherako haurrak baimenik gabe eskolatzen dituzten itunpeko ikastetxeen eta ikastetxe publikoen kopurua, kokalekua eta izena eta bakoitzeko 0 eta 3 urte bitarteko haur kopurua:

IKASTETXEA	UDALERRIA	ESKOLATUTAKO 0 ETA	
		3 URTE ARTEKO	HAUR KOPURUA
		- 2 URTE	2 URTE
Irabia	Burlata	18	40
Tantirumairu Ikastola	Lesaka		11
Ntra. Sra. de los Dolores	Mendabia		33
Pamplona	Ursulinas		58
Zangozako Ikastola	Zangoza		15
CPEI "Marqués de la Real Defensa"	Tafalla		25

- **3 urtetik beherako haurrak artatzen dituzten ikastetxeetako matrikula 2003-2004 ikasturtean.**
- **Existitzen al da Nafarroan galderako testuan aipatu gabeko beste ikastetxerik, 3 urtetik beherako haurrak hezi edo artatzen dituenik?**

Ez dago diruz lagundutako beste ikastetxerik. Haurtzaindegi pribatuak existitzen dira, baina ez dugu horien inguruko erregistrorik; izan ere, haurtzaindegi pribatuak ez dute inolako baimenik behar, eskolaurreko hezkuntza arautzeko dagoenez gero.

Argitu beharra dago Iruñeko Udalaren Haur Eskolen Sarea Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuak laguntzen duela diruz hitzarmen bati esker eta, hortaz, 3086/2001 Ebazpenak xedatutakoarekin bat datorrela. 2003-2004 ikasturterako prezioak, berriz, 488/2003 Ebazpenarekin datoz bat. Bi ebazpen horiek Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearenak dira, eta gaur egun eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe deritzen ikastetxe guztiei eragiten diete. Horietako gehienak 2000tik aurrera sortu dituzte tokiko erakundeek, eta hitzarmen bidez lagundu dituzte diruz.

- **Ikastetxe horien kopurua eta kokalekua.**

Gizarte Laneko eta Gizarte Laguntzako Diplomadunen Nafarroako Elkargo Ofizialak 2001ean eta Iruñeko Udalak egindako azterketa banari esker, honako udalerrri hauetan 68 haurtzaindegi daudela dakigu:

Agoitz	Caparroso	Martzilla	Azkoien	Eguesibar
Andosilla	Berriozar	Los Arcos	Iruña eta Iruñerria	Tutera
Arguedas	Lizarra	Murchante	San Adrián	Viana
Auñamendi	Fustiñana	Noain	Sartaguda	Atarrabia
Barañain	Lakuntza	Erriberri	Tafalla	Zizur Nagusia

- **Ikastetxe bakoitzean eskolatutako 0 eta 3 urte bitarteko haurren kopurua, mailaka.**

Ez dugu datu horiei buruzko informaziorik.

- **Udalen mendeko eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz eraikitako ikastetxe hezitzaile-laguntzaileetako matrikula eta kopurua (hitzarmenak sinatu dituzte abian izateko).**

Honako hauek dira 2003ko urrian abian ziren udalen mendeko eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz eraikitako 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxe hezitzaile-laguntzaileak, 2003-2004 ikasturtean bakoitzean eskolatutako haur kopurua eta mailakako zehaztapena:

UDALERRIA	IZENA	UNITATE KOP	0-1 MAILA	1-2 MAILA
2-3 MAILA				
Ablitas 16	CEP Mi Cole	3	8	12
Alesbes 16	CEP Pasitos	3	8	12
Altsasu 25	Altsasuko Udal Haurtzaindegia	4	0	16
Antsoain 43	CEP San Cristóbal	8	9	29
Atarrabia 53	CEP Amalur	12	29	42
Azagra 23	CEP Azagra	2	0	5
Azkoien 46	CEP Peralta	6	8	22
Barañain 69	CEP Barañain	6	0	28
Bera 12	CEP MUKIXO	3	6	6
Berriozar 58	CEP Iruñalde	9	16	34
Berriozar 32	CEP Recalde	5	0	35
Betelu 4	Sorgintxo Haur Eskola	2	2	5
Buñuel 19	CEP Buñuel	2	0	11
Cabanillas 8	CEP Montesori	1	0	7
Cascante 32	CEP Gorria	3	0	12
Castejón 28	CEP Garabatos	2	0	12
Cintruénigo 53	CEP Capuchilandia	8	7	39
Cortes 15	CEP cortes	2	1	11
Elizondo 23	Baztango Haurtzaindegia	4	0	19
Funes 14	CEP Funes	3	6	12
Gares 30	CEP Txori	4	0	20
Irunberri 5	CEP Lumbier	2	2	4
Iruña 56	CEP Donibane	10	14	32

Iruña 44	CEP Egunsenti	8	14	24
Iruña 44	CEP Haurtzaro	8	14	24
Iruña 28	CEP Izartegi	4	0	16
Iruña 44	CEP Mendebaldea	8	14	24
Iruña 52	CEP Mendillori	10	14	32
Iruña 0	CEP Milagrosa	4	28	0
Iruña 56	CEP Printzearen Harresia	8	0	30
Iruña 44	CEP Rotxapea	8	14	24
Larraga 20	CEP Gatopato	3	0	10
Leitza 16	CEP Leitza	2	0	13
Lodosa 17	CEP Lodosa	2	0	7
Mutiloabeiti 32	CEP Kuluxka	6	8	24
Orkoien 37	CEP Ostadar	6	6	29
San Adrián 32	CEP Santas Reliquias	5	20	13
Tutera 30	CEP María Reina	5	1	16
Tutera 66	CEP Santa Ana	10	4	33
Uharte 32	CEP Urrats	3	0	8
Ultzama 13	CEP Xinbili Xanbala	3	2	14
Valtierra 12	CEP Valtierra	2	0	7
Viana 12	CEP Jaime García Orio	3	5	15
Zangoza 25	CEP Sangüesa	6	6	30
Zizur Nagusia 32	Zizur Mayor	6	16	24
2003KO URRIAN ABIAN GUZTIRA		215	281	841
1367				

ESKOLAURREKO HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOAK: 2002-2003 IKASTURTEA

Udalerria	Ikastetxearen izena	Hizkuntza eredu
Ablitas	CEP Mi Cole	Gaztelania
Alesbes	CEP Pasitos	Gaztelania
Altsasu	Altsasuko Udal Haurtzaindegia	Euskara
Antsoain	CEP San Cristóbal	Nahasia
Aranguren harana	CEP Kuluxka	Nahasia
Atarrabia	CEP Amalur	Nahasia
Azagra	CEP Azagra	Gaztelania
Azkoien	CEP Peralta	Gaztelania
Barañain	CEP Barañain	Nahasia
Berriozar	CEP Berriozar	Nahasia
Betelu	Sorgintxo Haur Eskola	Euskara
Buñuel	CEP Buñuel	Gaztelania
Cabanillas	CEP Montessori	Gaztelania
Cascante	CEP Gorria	Gaztelania
Castejón	CEP Garabatos	Gaztelania
Cintruénigo	CEP Capuchilandia	Gaztelania
Cortes	CEP Cortes	Gaztelania
Elizondo	Baztango Haurtzaindegia	Euskara
Funes	CEP Funes	Gaztelania
Gares	CEP Txori	Gaztelania
Irunberri	CEP Lumbier	Nahasia
Iruña	CEP Egunsenti	Euskara
Iruña	CEP Mendillorri	Gaztelania
Iruña	CEP Haurtzaro	Gaztelania
Iruña	CEP Rotxapea	Gaztelania
Iruña	CEP Printzearen Harresia	Gaztelania
Iruña	CEP Milagrosa	Gaztelania
Iruña	CEP Donibane	Gaztelania
Iruña	CEP Mendebalde	Gaztelania
Iruña	CEP Izartegui	Euskara
Larraga	CEP Gatopato	Gaztelania
Lodosa	CEP Lodosa	Gaztelania
Orkoien	CEP Ostadar	Nahasia
San Adrian	CEP Santas Reliquias	Gaztelania
Tutera	CEP Santa Ana	Gaztelania
Tutera	CEP María Reina	Gaztelania
Uharte	CEP Urrats	Euskara
Ultzama	CEP Valle Ultzama	Euskara
Valtierra	CEP Valtierra	Gaztelania
Viana	CEP Jaime García Orio	Gaztelania
Zizur Nagusia	CEP Zizur Mayor	Nahasia

Grisez nabarmenduta daude 2002-2003 ikasturtean abian jarritako ikastetxeak

ABIAN DAUDEN DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTETXEAK,

HITZARMENA SINATZEKO ZAIN

Mendabia	Nuestra Sra. de los Dolores	Gaztelania
----------	-----------------------------	------------

NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEKO INSTITUTUAREN MENDEKO IKASTETXEAK

Burlata	Egunsenti	Gaztelania
Corella	Niño Jesús	Gaztelania
Iruña	Ninia Etxea	Gaztelania
Iruña	Los Ángeles	Gaztelania
Iruña	Roncesvalles	Gaztelania
Iruña	San Jorge	Gaztelania
Iruña	Santa Teresa	Gaztelania
Lizarra	Izarra	Gaztelania

2003. URTEAREN AMAIERAN ABIATZEKO AURREIKUSPENA

UDALERRIA	ABIATZEKO AURREIKUSPENA	UNITATE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Bera	urria	3	25
Zangoza	azaroa	6	58
Zarrakastelu	azaroa	3	39

2004KO IRAILERAKO ABIATZEKO AURREIKUSPENA

UDALERRIA	ABIATZEKO AURREIKUSPENA	UNITATE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Agoiz	Urtarrila	4	52
Barañain berri	Abuztua	9	106
Egues	Iraila	6	72
Erroibar	Datarik gabe	3	36
Ezkaroze	Urtarrila	2	28
Fontellas	Urtarrila	2	28
Iruña Roc	Abuztua	8	94
Lizarra	Iraila	6	72
Murchante	Iraila	5	58
Oltzako Zendea	Iraila	2	24
Ribaforada	Iraila	5	58
Sartaguda	Urtarrila	1	14
Tafalla	Urria	10	114
Tutera (María)	Iraila	8	94
Uharte (berri)	Iraila	8	94
ABIATZEKO AURREIKUSITAKO DATARIK GABE			

Andosilla	Sortzeko eskaria	4
Arguedas	Proiektua amaituta	2
Artaxoa	Proiektua egiten	3
Baztán (berri)	Aurreproiektua	4
Burlata (ikastetxe berria)		
Cabanillas (A)	Proiektua egiten	1
Castejón (Un)	Aurreproiektua idazten	
Erriberri	Proiektua amaituta	5
Fustiñana	Sortzeko eskaria	3
Galar	Sortzeko eskaria	9
Gares	Proiektua amaituta	6
Lakuntza	Proiektua amaituta	3
Larraga (ikastetxe berria)	Proiektua amaituta	3
Leitza (birmoldatzea)		
Lekunberri	Proiektua egiten	3
Martzilla	Informazio eskaria	3
Milagro	Informazio eskaria	2
Monteagudo	Proiektua egiten	2
Murchante	Proiektua amaituta	4
San Adrián (birmoldatzea)	Proiektua amaituta	6
Sesma	Informazio eskaria	2
Tutera (Sant)	2005eko iraila	8

6.0 ETA 3 URTE
BITARTEKO ZIKLOA
HEZITZAILEA
IZATEAREN
EGOKITASUNA



0 eta 3 urte bitarteko zikloa hezitzailea izatearen egokitasuna haurtzaroaren ikuskeraren eta haurraren bilakaera psiko-pedagogikoaren ikuspuntutik eta juridikoa baino ez den ikuspuntutik azter daiteke. Bi alderdi horiek ezin dira erabat berezi, eta batera edo era osagarrian izango ditugu hemen kontuan.

0 eta 3 urte bitarteko zikloaren tratamenduari edo izaera hezitzaileari heltzeko funtsezko aurrebaldintza edo abiapuntua da Konstituzioko 27. artikulua hezkuntzarako eskubidea pertsonaren oinarritzko eskubidea dela aitortzea bera.

Kode Zibileko 29. artikulua dioenez, "jaiotzak zehazten du nortasun zibila"; hau da, jaiotza hurrengo artikulua (30. artikulua) adierazten duen egoeran jazotzen bada, Espainiako antolamenduak finkatzen du orduan eskuratzen dela nortasun juridikoa, nortasun juridikoa honako hau izanik, alegia, antolamenduak berak aitortutako eskubideen eta norbanakoari ezartzen dizkion edo norbanakoak balioz hartzen dituen betebeharren jabe izateko gaitasuna.

Aurrez zehaztutako ezaguerak edo edukiak emateko lan soiltzat hartu beharrean, aipatu aginduak duen alde zabaletik ere hartzen badugu hezkuntza –"hezkuntzaren helburua da nortasuna erabat garatzea"–, ez dago arrazoirik adin muga bat ezartzeko; muga horretatik aurrera hezkuntzarako eskubide osoa existituko litzateke, eta muga horretatik atzera, berriz, lausotu egingo litzateke eskubide horren aitortzea. Hezkuntzarako eskubidea, ordea, Konstituzioaren antolamenduak bermatzen du, pertsona jaiotzen denetik. Hortaz, pertsona orok du heziketarako eta nortasuna askatasunean garatzeko eskubidea jaiotzen denetik, osotasun pertsonala lortzearren. Aparteko kontua da irakaskuntzaren nahitaezotasuna edo doakotasuna ezartzea legez finkatutako une jakin batetik aurrera.

Bizitzako lehendabiziko urteak nortasuna garatzeko gakoa direla dioen baieztapena zientifikotzat hartzen da gaur egun. Haur bakoitzak adin horretan ekiten dio bere gorputza ediren eta menderatzeari; orduan hartzen ditu eguneroko bizitzako ohiturak eta, horri esker, bere autonomia lortuko du; orduan jabetzen da zentzuen, mugimenduen eta hautematearen kontrolaz, hau da, pentsamendu abstraktuaren oinarriak osatzen ditu; orduan ekiten dio beste haurrekiko eta helduekiko komunikazioari eta harreman sozialari, hizkuntzaren kodeetan murgildu eta ahozko hizkuntza erabiltzen eta menderatzen hasten baita; orduan ditu lehendabiziko behaketa, esperimentazio eta kanpo munduaren aurkikuntza esperientziak. Dimentsio emozional eta afektibo

handian egiten du hori guztia eta, azken batean, orduan hasten da bere pentsamendua eta nortasuna osatuko duten lorpenak eta jabetzeak egiten.

Halaber, uste dugu arreta berezia merezi dutela bizitzako lehen urte hauetan urritasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoren bat duten hurrek, garrantzi handia duelako gabezia horiek goiz antzeman eta diagnostikatzeko. Kasu horietan, erabakigarriak izan litezke hartu beharreko osabidezko hezkuntzaren arloko neurriak, haur horien garapenak eta heziketak behar dituzten laguntza gehigarriak ematearren.

Planteamendu honetan, ezin ahaztuzkoa da Konstituzioak ezartzen duen aukera berdintasuna, Espainiako Konstituzioko 9.2. artikuluko klausulak botere publikoentzako agindu espezifiko bihurtu zuena. Hartara, eskola gizartea eraldatzeko tresna baliagarria bihur daiteke haurrak txikiak direnetik.

Egungo ikuskeren ingurumari honetan, gaindituztat jo behar dugu artatu edo lagundu egin behar diren beharrak dituzten haurren kontzeptua, errespetatu eta bermatu egin behar diren eskubideak dituzten haurren kontzeptuaren alde.

Hasiera batean bizitzako lehen urteetako haurren arretari egotzi zizaion izaera laguntzailea garai historiko baten ondorioa da; gizarte eta familiarteko behar berriak sortu ziren orduan, eta haurra laguntza beharrean zebilelako ikuskerak jarraitzen zuen. Hurrei oraindik-ez direnen irudia egokitzen zien gizarte irudikatzearen ordeztu oraindik-ez helduak, oraindik-ez erantzuleak, oraindik-ez gauza, oraindik-ez autonomoak, oraindik-ez trebatuak, oraindik-ez helduen eskubide berekoak, oraindik-ez bereizteko gai...-, haurra gaitasunez eta aukeraz betetakotzat hartzen da orain; bere pentsamendua eraikitzen izugarri parte hartzen duela uste da, eta bere hezkuntzaren protagonista dela. Haurra artatu edo begiratu behar izateaz gain, baita hezi ere, haurrak hezkuntzarako eskubidea du orain.

Eragina duten beste interes zilegi batzuen gainean, haurraren inguruko interes gorenaren nagusitasuna beti ahaztu dela dirudi haurraren 0 eta 3 urteen artean.

Familia eta lana uztartu behar direlako arrazoi zilegiak argudiatzen dira sarritan, haurrak zaintza beharrak baino ez dituela justifikatzeko, baina arrazoi horiek bere horretan jarraitzen dute haurrak 3 urte betetzen dituenean. Hezkuntza aldi hau nahitaezkoa ez delako arrazoiak ere erabiltzen dira tokien

eskaintza nahikoa ez den kasuak justifikatzeko, baina nahitaezkotasun horrek gurasoen borondatearen ingurukoa izan behar du ezinbestean, botere publikoena izan beharrean.

Ideia nahasketa hori dela-eta, komeni da gogoraraztea hasiera batean genioena, alegia, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza zikloaren inguruan planteatutako eztabaidak haurrak hezkuntzarako duen eskubidean oinarritu behar duela, botere publikoek familiaren eta lanaren beharrak bateratzen ahalegintzeko hartu beharko lituzketen neurrietan oinarritu beharrean.

Auzia ez da hutsala, ezta teoria edo doktrina eztabaida ere, dakartzan ondorio juridikoak direla-eta; izan ere, Konstituzioak hezkuntzarako eskubidea aitortu eta bermatzen du I. Tituluko II. Kapituluko 1. Ataleko eskubideen artean. Eskubide horiek guztiak botere publikoei eska dakizkieke, eta Espainiako Konstituzioko 53. artikulua xedatu zuen babes gorena edo indartua dute. Familia eta lana bateratzeko neurriak 39. artikulua esparruan sartzen dira, gizarte eta ekonomia politika zuzentzen duten I. Tituluko III. Kapituluko printzipioen artean. Programatikoak ez ezik, Konstituzio Auzitegiak arautzaileak ere badirela adierazi duen arren behin eta berriro, zuzeneko eragingarritasuna 53.3. artikulua ezarri zuen, honako hau xedatu baitzuen: "Printzipio horien aitopenenak, errespetuak eta babesak botere publikoen jardueraren berri emango dute".

Azken batean, gurasoek seme-alaben heziketan duten ahalmenari (eskubideari eta betebeharrari) kalterik egin ezean, 3 urtetik beherako haurraren hezkuntzarako eskubidea Espainiako antolamenduak bermatutako eskubidea da, nabarmendu dugunez. Hortaz, aldiaren borondatezkotasuna gurasoen aukera eta botere publikoen betebehartzat hartu behar da.

7. ONDORIOAK



- LOGSEk baieztatu zuenez sortu zuen dokumentu bateratuari (Hezkuntzaren liburu zuriari) jarraiki, hezkuntzaren bidez transmititu eta erabiltzen dira gizartean bizitzea ahalbidetzen duten balioak, batik bat, oinarrizko askatasun eta eskubide guztien alderako errespetua; gainera, hezkuntzaren bidez eskuratzen dira elkarrekin demokratikoki bizi eta elkar errespetatzeko ohiturak. Hein handi batean, gizartearen heldutasuna norberaren eta komunitatearen dimentsioak barneratzeko ahalmenaren ondorio da, hezkuntza hartuta abiapuntu, eta hezkuntzari esker. Hedadura dena delakoa ere, gizartearen aurrerapena helburu izan duen aldaketa oro hezkuntza suspertu eta sustatzearekin batera gertatu da, hezkuntzak aldatzeko ahalmena duelako itxaropenarekin batera; are gehiago, hezkuntzaren suspertzea eta sustatzea, hezkuntzak aldatu egin dezakeelako itxaropena aurrez gertatu izan da batzuetan.
- Haurrek hezkuntzarako eskubidearen esparruan duten eskubidea barneratzea LOGSEri esker lortu zen lehendabiziko aldiz, eta funtsezko aurrerapena ekarri zuen haurren eskubideak babesteko, lehen haurtzaroaren hezkuntza eskubideak maila berean txertatu zituenez gero Espainiako hezkuntza sistema orokorrean.
- Ziklo honetako eskolatzearen nahitaezkotasuna nabarmendu ala ez, administrazio publikoek aldi honetako ikasleentzako tokien familien eskaerari erantzuteko duten erantzukizunaren oinarriak finkatu ziren Legea aldarrikatzearekin bat. Honako hau gero eta arazo handiagoa izanik, helburua da familia eta lana bateratzea, haurrak hezkuntza hoberako duen eskubideari kalterik egin ezean.
- LOCEk LOGSEren filosofiaren hainbat alderdi aldatu zuen nabarmen, lehen haurtzaroaren hezkuntzaren arretari dagokionez. Adin guztietara zabal daitekeen eskubide globala den heinean, ez zuen alde batera utzi LOGSEk hezkuntzarako eskubidearen aldera zuen errespetua, baina garrantzi handiko ñabardurak egin zituen; izan ere, demokraziaren aurreko lege zaharrek hezkuntzako aldi honetarako ezarritako eta pedagogiarik sendotuenak alboratutako laguntzaile izaera berreskuratu zuen.
- LODEren zati bat indarrean badago ere, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeek bete behar dituzten oinarrizko printzipioei dagokionez, LOCEk

xedatutakoak laguntzaren kontzeptua eta zehaztasunik eza handiagoa ezarri zuen aldi berean, kalitatezko gutxieneko baldintza horiek direla-eta.

- Halaber, borondatezko haur hezkuntza, lan egiten duten gurasoen familientzako laguntzat ez ezik, gurasoek seme-alaben heziketan egin behar duten lanaren osagarritzat ere hartzeak erantzukizun banatuaren printzipioa finkatu zuen, baita gurasoek adin honetako haurren hezkuntzan duten parte hartze demokratikoarena ere, haurrak joaten diren ikastetxeei dagokienez.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESKUMENEI BURUZKOAK

- LOCEk LOGSEn sartu zituen haur hezkuntzaren ezaugarrien inguruko aldaketak gorabehera, artikuluek berek honako hau gogorarazi zuten: *"Eskolaurreko hezkuntza borondatezkoa da gurasoentzat"*. Hala ere, honako hau erantsi zuten: *"Administrazio eskudunek familiek dituzten beharrei erantzun behar diete, eta eskaerari erantzuteko behar adina tokiren eskaintza koordinatu"*.
- Hartara, LOCEk gurasoen funtsezko kezka nagusi bat islatu zuen: tokiak izatea; behinik behin, horixe egiaztatu ahal izan zuten Arartekoaren ordezkariak Iruñerriko gurasoekin auzi honi buruz egin zuten bileran. Edonola ere, LOCEk bigarren mailan utzi zuen LOGSEko alderdi oinarrizko eta nagusia, alegia, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza zikloak guztiz indarrean mantentzea adin horretako haurren hezkuntza bihurtzen zuten alderdiak. Esan liteke LOGSEk familiarteko heziketaren eta arretaren osagarritzat ezarri zuela haur hezkuntza, lana eta familia bateratzeko beharrei aurre egitearren. Era berean, esan liteke LOCEk ebatzi zuen sistemak osagarria ordezeko bihurtu zuela, tokirik ezagatiko gizartearen presioaren, eta enpresen ekimenak ordura arte baino presentzia emankorragoa izango zuelako aurreikuspenen ondorioz; presentzia hori hain emankorra ez izateko arrazoia ez ziren aurreko araudien mugak izan, haurrak artatzeko gizartearen behararen beste dimentsio bat agertu izana baizik.
- LOCEk autonomia komunitateei esleitu zien haur hezkuntzan kalitatea lortzeko aplikatu beharreko gutxieneko irizpideak finkatzeko eskumena eta, oro har, sistemaren arrazionaltasunaren aurrerapena izan zen hori; izan ere, lurraldeko administrazioak hurbilago daude gizartearen errealitatek, eta autogobernu maila handiagoa dute. Hala eta guztiz ere, askatasun horrek

erantzukizun handia zekarren, irizpide horiek osatu behar zutelako haur hezkuntza eta, hortaz, baita haurren hezkuntzaren etorkizuna ere. Komunitateetako gobernuek alde horretatik hartu beharreko erabakiek haurren hezkuntzarako eskubidea –bai orain, eta baita psikologia eta hezkuntza arloko etorkizuneko garapenean ere– izan behar zuten lehentasun sisteman behin betiko taxutzean. Beraz, haurren hezkuntzarako eskubidea ekonomia eta kudeaketa alderdiei gailendu behar zitzairen, autonomia handiagoko esparru horretako garrantzitsuenak ziruditen arren.

- LODEko 14. artikulua xedatu zituen gutxieneko baldintza horiek ikastetxe pribatuei ere eska zekizkiekeen. Izan ere, LODEko 23. artikulua honako hau xedatu zuen: *"Erregimen orokorreko zein erregimen bereziko irakaskuntza ematen duten ikastetxe pribatuak ireki eta abiatzeak Administrazioaren baimenaren mendekoa izan behar du. Administrazioak baimena eman behar du, Lege honetako 14. artikuluan xedatutakoarekin bat ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badituzte ikastetxeek". Nabarmentzekoa da LODEko 24. artikulua "haurrak babeste aldera" justifikatu zuela "haur hezkuntzako adin tarteko haurrak hartzen dituzten ikastetxe pribatuek 23. artikulua aipatutako Administrazioaren baimenaren mendekoak" izan beharra. Halaber, nabarmentzekoa da 3 urtera arteko adin tartea LOGSEko haur hezkuntzako lehen zikloari zegokiola; hortaz, haur hezkuntzak barnean hartzen zuela ulertu behar zen.*
- Tokiko administrazioen hurbilagoko jardura abiapuntu hartuta, Legeak (LODEko 2. xedapen gehigarriak) honako hau xedatu zuen: *"Tokiko erakundeek hezkuntza administrazio eskudunekin batera aritu behar dute elkarlanean, ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko, baita nahitaezko eskolatzeari betetzen dela begiratzeko ere, indarrean dagoen legediak xedatutakoaren esparruan eta, hala behar izanez gero, haiekin hitzartutako baldintzetan".* Eskolaurrako ikastetxeak sortzeko eskumena duenari dagokionez, ordea, xedatu zuen ikastetxeak sortzea autonomia komunitateko gobernu batzordeari edo gobernuari zegokiola norberari zegozkion eskumenen esparruan.

Araudi horrek bideratu zuen UPNk eta PSNk hitzartutako Parlamentuko ituna garatzeko lege esparrua sortzea Komunitatean; Foru Administrazioaren eta udalerrien arteko hitzarmenen erregimena garatu behar zuten hari esker, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako tokiak sortzearen lehen hezkuntzan, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak arautu zituen oinarriekin bat.

- Lege esparruak 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako hezkuntzaren esparruan ezarritako erantzukizunen banaketa ontzat jotzekoa da nabarmen, eta alde aurretik LOCEn ezarritako printzipioei eragin diezaiekeen araudia garapen bidean dago oraindik. Nolanahi ere, egokia da kontuan hartzea gizarteak Tokiko Administrazioaren esku-hartze mailaren gainean egiten duen presioak Administrazioari dagokion erantzukizun zibilaren esparrua gainditzen duela Nafarroan eta beste komunitate batzuetan, esparru hori dena delakoa ere azkenean, eta printzipio arautu berriak direla-eta, zein Foru Gobernuak jarduera antolatzeke duen modu partikularra (aipatu eta jada indargabetu Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutuko zuzendari gerentearen Ebazpena) dela-eta gertatzen da hori.

Baliabideen, eskaeraren eta batzuei eta besteei erantzuteko eskumenen inguruko zentzuzko azterketa eginez gero, ondorioztatuko dugu planteatu eta eskatzeko modukoa ere badela administrazio publikoen arteko lankidetzari handiagoa, bakoitzari dagokion eginkizunen esparruan. Izan ere, administrazioen erantzukizunak nahasteak ez du ez herritarren eskakizunen alderako konponbidea ematen, ezta haien eragingarritasuna eta balioespina hobetzen ere.

- Haurrak eskolatzeko sustatzeko politika eta ekimen askotarikoak positiboak direlako ideia har dezakegu abiapuntu. Alderdi negatiboa, ordea, egun lurraldeen artean zerbitzuak emateko garaian dauden desoreka handietan datza. Herritarrengandik hurbilen dauden gobernu maila diren heinean, desoreka horiek konpontzeko modu bat izango litzateke tokiko gobernuari (udalei) jarduteko aukera handiagoak ematea, aurrekontu bereziak lortu eta kudeatuz erantzun diezaizoten zerbitzuen eskariari.

0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAURRAK HEZTEARI BURUZKOAK

- **Hezkuntza sistema erreformatzeko liburu zuria** izan zen LOGSEren sorburua, eta honako hau baieztatu zuen: *"Hezkuntzako aldi honek irakasleek hezkuntza intentzioa izan dezaten behar du, esperientzien eta jardueren plangintza arretaz egitea, espezializatutako profesionalak, eta lan baldintza jakinak osasungarritasunari, guneei, irakasleen eta haurren arteko proportzioari... dagokienez"*. Gainera, honako hau erantsi zuen aurrerago: *"Antolamendu berriaren helburua da arta eskasa izan duen baina, pedagogikoak baino ez diren xedeak baino*

gehiago, laguntza eta gizarte xedeak ere maiz bete izan dituen maila arautzea... Maila hau hezkuntzako alditzat hartzeak ikastetxeen eta bertan ematen diren hezkuntza esperientzien antolaketaren aldaketak ekarri behar ditu".

- LOGSEko I. Tituluko I. Kapitulua, berriz, haur hezkuntza arautu zuen (7.-12. artikuluek), eta honako hau xedatu zuen: *"Haur hezkuntzak 6 urte artekoa izan behar du, eta haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo, sozial eta moralari lagundu behar dio. Haur hezkuntzako ikastetxeek elkarlan estuan aritu behar dute gurasoekin edo tutoreekin, delako hezkuntza aldian duten funtsezko erantzukizuna kontuan izatearren".*
- Aldi honetako eskolatzea borondatezkoa zela ezarri zuen, baina Administrazioaren esku utzi zuen toki kopuru nahikoa bermatzea, eskatzen zuten haurren eskolatzea bermatzearen.
- Haur hezkuntza zegokion espezializazioa zuten irakasleek eman behar zuten. Gainera, lehen zikloko ikastetxeek behar bezalako prestakuntza zuten bestelako profesionalak izan behar zituzten, adin bitarte honetako haurrei hezkuntza arreta egokia ematearren.
- Nabarmentzekoa da LOCEk berak ere honako hau baieztatu zuela: *"Haur hezkuntzak ezaugarria du lehen haurtzaroaren hezitzailea eta artatzaile eta zaintzailea izatea aldi berean, eta toki kopuru nahikoa bermatu behar du, familien eskariei eta beharrei erantzutearren".*

HEZKUNTZA EREDUARI ETA GIZARTEAREN BILAKAERARI BURUZKOAK

- Berdintasun eta elkartasun handiagoa, gizarte lankidetzak handiagoa lortzearen, ezinbesteko iturria da hezkuntza, eta funtsezkoa da hezkuntza sistemak finkatzea lehen haurtzaroan. Kultura berri horren abiapuntuak haurraren eskubide guztiak salbuespenik gabe betetzea izan behar du, eta garrantzi bereko hainbat aldaketaren lorpena objektibatu eta aldaketa horiek lortzeko ahalegindu beharra dakar horrek. Horretarako edo horregatik, haur hezkuntza oso lotuta dago haurrak moldatzen diren errealitate sozio-ekonomikoak aldatzearekin
- Hezkuntza sistemen kezka eta erronka 6 urtetik beherako guztiak hasieratik artatzea den heinean milurteko honetan, elikadurara eta osasunera lerratzen ez

den hezkuntza goiztiarraren ikuspegitik heldu behar zaio hezkuntzarako eskubidearen estaldura nabarmen emendatzeari.

- Osasunaren eta hezkuntzaren arloko alderdien arteko desberdintasunak oinarri hartuta, nabarmena dirudi hezkuntzaren funtzioa ez dela oinarritzen laguntza funtzioan aldi honetan ere ez; izan ere, hori ondoriozta daiteke ikerketak kontzeptualki eta gizartearen garapenak berak kulturalki gaintitu dituzten araudi historikoetatik. Laguntza kontzeptuaren beraren oinarriak "gutxienekoak" dira, zerbitzuaren beharrei eta eskaintzari dagokienez; Administrazioak, hots, botere publikoek, aparteko ekintzak egiten dituzte egoera okerragoan dauden herritarren beharrei erantzuten laguntzeko.
- Hala ere, haurren eskubideak aitortuz gero, kontzeptu hori ezin aplikatuzkoa da, are gutxiago hezkuntzaren arloan. Izan ere, eskubideen dualtasuna jazotzen da hezkuntzan: haurren eskubide espezifikoak eta hezkuntzarako eskubide orokorragoa dituzte hurrek. Banaka zein batera, gizakiaren dimentsioa eratzten dute biek ala biek, baita haurraren bizitzako lehenengo urteetan ere, eta laguntzeko esku hartzea ez da ulertzekoa, ezta zuzena ere.
- Litekeena da gure gizarteak azken hamarkadetan izandako kultur eta gizarte bilakaera izatea aldi honetako beharren alderako erantzunen ikuspegi "fisiko hutsa" (zaintza) gaintitzeko bultzadarik onena, nahiz eta emakume gehienak lan merkatuan sartu izanak presioa egin eta egiten dion gizarteari haurra artatzeko guneak aurkitzeko. Azken batean, ezin bereizizkoa da haurra adin honetan fisikoki artatzeak ere berekin duen hezkuntza alderdia.
- Edonola ere, familiek banaka edo administrazioek taldeka ezin dute erabili emakumeak lan egiteko duen eskubidea, lan eta gizarte berdintasunerakoa, bere buruaren autonomiarakoa eta lana eta familia bateratzekoa, haurraren eskubideen inguruko gizarte eta lege atzerapena sendotzeko arrazoitzat; azken finean, haren alde ari direla diote.
- Familiak laguntzeko presioaren eta haur hezkuntzako hezkuntza alderdiak sendotu beharraren arteko kontraesana ezin da haurraren edo bere eskubideen kontura konpondu, haurraren eskubideak araudi guztietan baitaude indarrean, eskubide diren heinean. Funtsezko aldeetatik urrun egonik biak ala biak, haurtzaroan hezkuntza izateko eskubidea haurraren funtsezko elementua da pertsona den neurrian, eta administrazioen erantzukizunak izan behar du bi alderdientzako hezkuntza testuingururik

mesedegarriena "eraikitzea"; argi dago testuinguru horrek eskubide horiek izan behar dituela oinarri, egoeraren arabera politiketan oinarritu beharrean.

- Haurtzaroaren aldi honetarako tokien gabeziak –espero dugu egoeraren arabera izango dela– ezin du lerratu haur hezkuntzarako eskubidea gizartearen eskaera edo behar hutsera; aitzitik, gizartearen, ekonomiaren eta lanaren bilakaeraren ondorioa da aldi berean, eta alderdi horiek guztiak elkarrekin lotuta daude.

0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAUREN HEZKUNTZAREN ETORKIZUNARI BURUZKOAK

- Orain arte bederen, eskaintza pribatuak hezkuntza sektore honetan izan duen presentzia txikiagoa pizgarri ekonomikorik ezaren ondorioa izan da, biztanle gutxienerako inguruetan batik bat; hau da, etekinak lortzeko aurreikuspenik ezarena.
- Hainbat ikerketa egin berrik nabarmendu duenez, "ekonomiaren aldetik eskuragarriak diren zerbitzuak garatzea honako helburu hauek ditu: norbanakoaren eskubideak sustatu eta gurasoek lan merkatuan parte hartzea bideratzea; gainera, egun familiartekoez edo etxeko ordukako langileek egiten duten lan informala lan merkatura aldatzea ekar dezake eta, orobat, lanpostuak ugariagotzea".
- Oro har, zerbitzuen eskasiari aurre egiteko Europa mailako azken joerak bitan banatuta daude: seme-alaba txikiak dituzten familiei laguntza ekonomikoak ematen (zerga arintzeak eta aldizkako ordainketak) eta haurrentzako zerbitzuak garatzea zuzenean sustatzen.
- Zerbitzu publikoak sustatzeko aukerak askoz ere eragin homogeenagoa izan dezake familiengan, haur guztiek gutxienerako kalitate baldintzetan lortzen baitute eskolatzeko eskubidea. Ekinbide bakarra laguntza ekonomikoak izateak, berriz, oso ondorio ezberdinak izan ditzake familiaren errentaren eta emakumeak lan merkatuan duen tokiaren arabera.
- Gurasoek ere dute lehen haurtzaroaren arretak hezitzailea izan behar duelako iritzia, tokien eskaintza baitute lehentasun, eta garrantzi handia ematen

baitiote ezarri beharreko zaintzaile-hezitzailearen eta haurren kopuruaren arteko ratioari, horrek zerbitzuaren kalitatean duen eragina dela-eta.

- Lehen haurtzaroaren arretaren hezkuntza alderdiak xedatzeko garaian, Administrazioak gurasoen iritzia izan behar du kontuan; izan ere, gurasoek nahiago dute euskarazko sistema elebiduna, beste hizkuntza batzuetakoak –ingelese– baino, positiboagotzat dutelako aurrerago D ereduan ikas dezaten.
- Proposamen gisa, honako hauek planteatu litezke:
 - Ikastetxe publikoetako eta pribatuak 0 eta 3 urte bitarteko haurtzaroko haur hezkuntzako tokien eskaintzaren eskola mapa egin beharko litzateke, adinen eta udalerrien arabera. Hezitzaileek, eragiten dien administrazioek eta ikertzaileek, oro har, izan beharko lukete udal eskola mapa horren berri, eta Foru Gobernuako Hezkuntza Departamentuak izan beharko luke egiteko horren buru, beharrezkoa balitz, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa lagun; izan ere, Ministerioa arduratzen da gaur egun hezkuntza estatistikak zentralizatzeaz.
 - Lehen haurtzarorako zerbitzuen eskari erreal eta latentearen ikuspegi argia izan beharko litzateke. Informazio hori eskuratzeko bide bat izango litzateke titulartasun publikoko ikastetxeetako itxaronzerrendak (gauzatu gabeko aurretiko izen emateak) nahitaz argitaratu beharra.
 - Zerbitzuen kudeaketa publikoaren gardentasuna hobetu beharko litzateke, herritarrek administrazio bakoitzak hartutako konpromisoen berri izan dezaten, bakoitzarengandik espero izatekoak diren eskudantziak eta egiten ari diren ekarpen errealak. Gardentasun hori hobetu egingo litzateke konpromiso konkretuak ezarriko balira tokiko gobernuek edota Foru Gobernuak euren gain hartu beharko lituzketen biztanle kopuruaren araberrako gutxienezko inbertsio egonkorrei buruz.

0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAURREN HEZKUNTZAREN FINANTZAZIOARI BURUZKOAK

- Finantzaziorik dagokionez, adituek uste dute haur hezkuntzako sisteman egindako inbertsioek ez luketela izan beharko Barne Produktu Gordinari %1 baino txikiagoak, baina Danimarka eta, agian, Suedia bakarrik iristen dira zifra horre-

tara gaur egun. Kostuen banaketari dagokionez, berriz, familiek heren bat ordain lezakete eta sektore pribatuak bi heren; gutxieneko diru sarrerek eskuratzen ez dituzten familiak ordaintzetik salbuetsiko lirateke.

- Haur hezkuntzako lehenengo zikloa ematen duten ikastetxe publikoetan sartzeari dagokionez, familien errenta erabili ohi da sartzeko, baina hainbat alderdi negatibo du horrek, diru sarrera bikoitza duten familiak baztertu, emakumeek lan egin dezaten eragotzi eta diru sarrera eskaseko kolektiboak biltzea eragiten duelako, eta ez duelako lortzen familiaren eta lanaren bateragarritasuna sustatzerik.
- Ikastetxe publikoetan sartzeko irizpideek gizarte errealitatearen arabera egokitu beharko lukete, eta familien errentaren gehienekoa handitu, soldatapean lan egiten duten amen seme-alabak sartzea bideratzearen. Sartzeko irizpideak zabalduko balira, eskari handiagoa izango litzateke eta, hortaz, beharrezkoa izango litzateke konpromiso erreal bat hartzea eskaintza handitzeke.
- Azkenik, garrantzitsua da laguntzak eta familia eta lan bizitza bateratzeko helburua duten beste etekinak emateko ezarritako baldintzak hobetu eta neurriak hartzea, dela hitzarmen kolektiboen esparruan, dela beharrezko araudiaren esparruan, familiek lan munduan izaten dituzten eragozpenak saihestearren lana eta familia bateratzeko etekin batzuk eskuratzeko.



**Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa**



Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa